

alternatiba

**Politika egitarau eta antolatze erakunde  
alternatiborako oinarri agiria**

Euskal ezkerak paradigma politiko berriaren inguruan bat egiteko  
guneen bila

Donostian, 2009ko ekainaren 27an

# AURKIBIDEA

1.- Proiektu politiko berria sortzeko ardatzak	3
2.- Taldekako sortzea: metodologia estrategikoa	8
3.- Prozesuaren emaitzak: etorkizunerako oinarriak	11
3.1.- Politika egitarau berriaren oinarriak:	15
3.1.1.-Erroko demokrazia: botere eta parte hartze kontzeptu berria	15
3.1.2.- Feminismoa: patriarkatuaren aurkako borrokaren lehentasun politikoa	23
3.1.3.- Nazio auzia: autodeterminazioa, erabakitze eskubidea eta Euskal Herria nazio subjektutzat hartzea	42
3.1.4.- Internazionalismoa: europar eta nazioarte mailako aliantzak sortzea estrategia askatzailea garatzeko	51
3.1.5.- Ekologia: irizpide ekologikoei egokituriko ekonomia, gizarte eta politika ereduak	59
3.1.6.- Ekonomia eta lana: interes eta irabazien ordezkari eskubide eta beharrezkoak lehenesten dituen sistema baterantz	68
3.1.7.- Elikadura subiranotasuna: elikadura, giza eskubidea	90
3.2.- Antolatze egitura koherente, demokratiko, berdinezale eta eraldatzaileko oinarriak	108

## 1.- Proiektu politiko berria sortzeko ardatzak

Egun indarrean den sistema ez da gai izan gizateriaren arazo larrienei konponbide egokia emateko; aitzitik, bizi dugun krisiunean ikus dezakegun moduan, mundu osoari ondorio latzak dakarzkion aurrera bideko ihesari ekin dio. *Nahitaezkoa dugu, beraz, egungo mendekotasun eta baztertze sistemak oinarri dituzten egitura eta joerak errotik aldatzeko gizartearen sorrerari ekitea, demokrazian, berdintasunean eta justizian oinarrituriko gizarte alternatiboa.*

Honaxe izan da Alternatiba Eraikitzen proiektuan parte hartu dugunak bildu gaituen funtsezko lehen ideia, 2008ko azaroaren 13an *Euskal indar politiko alternatibo eta sozialista berri bat sortzeko gako nagusiak* aurkeztu genuenetik. Kapitalismoa, patriarkatua, inperialismoa, etekin nahikeria<sup>1</sup>, hauteskunde hutsetara bideraturiko demokrazia eta kultura homogenizazioa gizaki eta herrien eskubideekin bateraezinak direla uste dugu. Ildo horretan, sistema hauek erabat baztertuko dituen alternatiba politikoa eraiki nahi dugu, berdintasun-eza garaituko duen dinamika politikoa.

Erronka honi irmoki ekingo badiogu, baina, ezkerak hausnarketa egitea eta bere burua berraztertzea premiazko lana delakoan gaude; hots, gaurko egoeraren zein ibilbide historikoaren aztertze zehatza behar duela uste dugu. Hona hemen, bada, gure bigarren funtsezko ideia: *ezker alternatiboak premiazkoa du bere nortasun izaeratik abiatuta, estrategia politikoan zein itxura, metodologia eta oinarri dituen erakundeetan parametro berriak sortuko dituen paradigma politiko berria aldarrikatzea eta garatzea.*

Esandakoa oinarri, Alternatiba Eraikitzenek hasiera-hasieratik *ezkerraren baitako iraultzari* premiazko baldintza deritzo egungo sistema aldatzeko. Hainbat eta hainbat borrokak izan dituzten lorpen eta ekarpenei muzin egin gabe, onartu beharrean gaude ezkerreko zenbait praktikak atomizazioa,

---

<sup>1</sup> Etekin nahikeria, irabaziak lortzeko gehiegizko nahia *productivismo* hitzaren itzulpentzat eman da.

sektorekako sailkatze sakonegia, geldikeria, epe laburkeria eta aldaketarako funtsezko diren sektoreen baztertzea izan dutela oinarri. Halaber, gure erakundeak, gehiegitan malgutasunik gabeko logika burokratiko bertikaletan oinarrituz, gizarte alternatiboaren eraketan bidelagun behar ditugun mugimendu sozialen proposamen eta funtzionamenduetatik aldendu egin dira. Beraz, errealitate honen aurrean, egitarau komunaren ardatzean borrokak eta agenteak bilduko dituen estrategia behar dugu; gizarte gehiengoarentzat sinesgarria den proposamen politikoa garatzeko kultura politiko benetan demokratikoa, berdinzalea<sup>2</sup>, malgua eta integratzailea behar da.

Laburbilduz, Alternatiba Eraikitzenek lehentasunezko helburua du: euskal ezkerren baitako paradigma politiko berriaren eraikuntzan bere eskarmentua jartzea egitarau politiko eraldatzailea sortzeko talde-lanean. Zabal geratzen zaigun erronka izanda, prozesu honek euskal ezker alternatiboko (politikoa zein soziala) beste pertsona eta taldeen beharra dugu. Alternatiba Eraikitzeneko kideok erabat sinetsita gaude Euskal Herrian helburu eta funtsezko ideia hauen inguruan dihardugunon zati besterik ez garela.

Hala, ekimen honen hasieran jarritako hirugarren funtsezko ideia: *Alternatiba Eraikitzen hiltzeko jaio da, euskal ezker antisistemako hainbat espazioren bat egitean bere indarrak xahutzeko, erakunde ahalik eta zabal eta anitzena sortzeko asmoz.* Bat egitea ez da aldarrikapen soila, beharra baizik. Alternatiba Eraikitzen biltzeko sortu da, bere apustu estrategikoa da hori eta horren zerbitzuan ditu bere aurrerapen, eztabaida, lanildo eta baliabideak.

Azken funtsezko baldintza, besteen garrantzi berekoa, honakoa da: *ezkerreko logika berria pentsatzeko ordua eta, logika, ikuspegi eta praktika politiko berriak sakontzean zalantzak dira nagusi ziurtasunen aldean.* Izan ere, erresistentziaz haratago erroko aldaketa sakona dugu helburu, alternatiba

---

<sup>2</sup> Berdinzalea gaztelerazko *equitativo* hitzaren ordeaz erabili da, *justua* ez erabiltzarren, zenbaitetan biak batera azaltzen dira eta.

sinesgarria ematea. Gizarte berri horren sorreran, baina, zalantza eta hausnarketa behar dugu, ez da nahiko indarrean dauden sistemei erantzutea eta bere desorekak leuntzea. Sozialismo demokratikoa ez da ameskeria guretzat, eraiki beharreko errealitatea baizik. Hemen dugun proposamen politikoa egungo oinarrien kontraesan itzelean dago. Subjektu ezberdinak uztartuko dituen egitarau komuna sortzea ez da lan erraza.

Hori zela eta, 2009ko urtarrilean taldekako sortze<sup>3</sup> prozesu bat hasi genuen, ezker politiko eta sozialeko beste pertsona eta taldeei irekia, denen artean egitarau politiko berri honen inguruko zalantzak argitu eta oinarri berriak finkatzeko asmoz. Alternatiba eraikitze iraunkor honetan dihardugu, eta ziurrera hor jarraituko dugu. Baina, zalantzak zalantza, eraikitzen hasteko lehentasun batzuk garbi genituen. Aipaturiko 4 funtsezko ideiez gain, 2008ko abenduaren 13an aurkezturiko *Gako nagusiak* prozesuari ekiteko zenbait abiapuntu finkatu genituen:

- *Ikuspegi anitzekoa izan behar du egitarau politikoak*, hausnarketa zein ekintza indar berarekin sartu behar dira egitarau horretan, egungo mendekotasun sistemen aurkako hainbat borroka uztartuz. Kapitalismoaren ezinbesteko ondorio den jabe eta ez-jabeen lehiak, hots, klase ikuspegiak, egungo ezkeraren oinarri estrategiakoa izaten jarraitzen du; baina gaur egun ez da sistema ekonomiko-soziala emakume eta gizonen edo herrien arteko oreka hausten duen muga baztertzaille edo berdintasun-eza bakarra. Badira funtsezko beste erronkak ere: patriarkatuaren aurkako borroka eta emakumezko zein gizonezkoen berdintasuna bermatzen duen gizartea; Naturaren funtzionamenduarekin lehian sartzen ez den antolatze ekonomiko, sozial eta politikoa; erabaki-ahalmena, kudeaketa-boterea eta informazio-eskuragarritasuna herritarren esku jarriko duen errokoa demokrazia

---

<sup>3</sup> Taldekako sortzea *elaboración colectiva*ren itzulpen moduan eman dugu, testuan zehar askotan azalduko den kontzeptua da.

ezartzea; herrien, euren kultura eta nortasun-aztarnen sendotzea, beti ere banakoaren zein talde eskubideak onartuta; txirotutako herrialdeen subiranotasun eta garapen eskubidearen defentsa;... Hauek dira sortu nahi dugun talde anitzaren lehentasun batzuk. Ezin zaio lehentasunik eman arlo bati, ezta ere folklorikoki aldarrikatu benetan garrantzirik eman gabe. Aitzitik, logika hauek guztiak elkartzen saiatu beharko genuke, komun batzuen mesedetan.

- Egungo mundu-sistema eraldatu nahi dutenekin bildu eta elkarlanean aritu beharko dugula garbi izatea ezinbestekoa da. Gure egitaraua ikuspegi anitzekoa izango bada, hainbat subjektu politiko integratzen jakin beharko du. Subjektu politikoa ez da bakarra eta itxia, baizik eta zabala eta anitza: langileriaz gain (soldatapekoak, nekazariak, zaintzaileak,...barne hartuta) badira feministak, ekologistak eta internazionalistak. Ezker politiko eta sozialak, bakoitzaren autonomia kontuan hartuta, gai izan behar du borrokarako espazio eta prozesu komunak bilatzeko, elkarren beharra baitugu, elkarren bateragarri garen heinean. Garatuko dugun egitura politiko berriak errotik demokratikoa, horizontala, malgua eta irekia izan behar du, aliantza eta elkarlan hauek bermatuko baditu.
- Erroko demokrazian oinarrituriko gizartea aldarrikatu behar dugu, egungo botere eta parte hartze sistemak guztiz eraldatuko dituen. Egitarau politiko alternatiboa aldarrikatu bai, baina botere egiturak eta herritar eta erabaki esparruen arteko aldea eraldatu gabe utzi nahi dituen abangoardia ez da Alternatiba Eraikitzenen helburua. Aitzitik, erroko demokrazia batek gai estrategikoetan herritarren erabakitzeko ahalmen zuzena eta politika kudeaketarako demokrazia parte hartzaile egiturak bultzatzeaz gain; informazio eskubidea hedatu behar du eta gai publikoetan parte hartzea bermatuko duen kultura demokratikoa bultzatu herritarren artean.

- Euskal Herria dugu Alternatiba Eraikitzenen lan eta osatze esparru. Euskal Herria da nazio subjektua eta bere subiranotasuna zein erabaki ahalmenaz gain bere oinarrizko zantzu kulturalak ere aldarrikatzen ditugu. Autodeterminazio eskubidea, erabakitzeko ahalmena, subiranotasuna, euskara eta kulturaren defentsa ardatz hartuta, hainbat izaera sentimendutik datozen pertsonak bildu ditugu; hau da: komunean ditugun funtsezko ideia horiek oinarri, egungo errealitatearen aldaketa onartzen duten pertsonak. Apustu hau zentzu internazionalista nabarmen bati lotu nahi diogu, izan ere, sistemaren aldaketa pertsonen eskubideak ez ezik herrienak ere errespetatzean emango delakoan gaude. Honetarako Europako zein nazioarteko erakunde sozial eta politikoeekin elkarlana funtsezkoa dugu.
  
- Aldarrikaturiko egitarau politikoari koherentziaz dagokion moduan, bertan bildu nahi dugun organizazio egiturak demokratikoa, berdinzalea, dinamikoa eta irekia behar du izan. Ezin da ezer berririk sortu metodologia eta modu zahar eta antzuetatik abiatuta. Nahitaezkoa dugu, beraz, militantziaren eskubideak bermatzea, inoiz aldatzen ez diren burokraziak ekiditea, informazioa eskuratzeko denen eskubidea bermatzea, parte hartzea sustatzea eta epe laburreko politika soiletik urrunago joango diren egitura k sortzea aintzat hartzea erakunde berrian.

Oinarri hauetatik abiatu da Alternatiba Eraikitzen prozesua, hauek ditu izaera-ardatz, oraindik osatzeke dagoen paradigma baten bila. Egindako bidea baino luzeagoa da egiteke dagoena. *Gakoak* lehen pausua izanda, agiri hau beste aurrerapausoa da bide horretan eta 2009ko urtarriletik hona egindako lanaren emaitza da.

Emaitza hori azaldu baino lehen, ordea, prozesu honen metodologia azalduko dugu, metodologia hauxe, berez, paradigma horri egindako ekarpena delakoan baikaude.

## **2.- Taldekako sortzea<sup>4</sup>: metodologia estrategikoa**

Paradigma berri horren osaketarako ez da nahikoa egitarau berria aldarrikatzea, lan-molde eta estrategia berriak behar dira, helburu berriei lotuko zaion antolatze kultura berria lortzeko. Helburu honetarako, metodologia politiko berriak soilik eragingo digu aurrera. Apaltasunez onartu dugun erronka hau konplexu dela esana baitugu: egungo egoera ez da egokiena alternatiba berriak sortzeko, eta ezberdinak zein koherenteak eta sinesgarriak direnek soilik egingo dute aurrera, burutu nahi dugun politikan bidea helburua bezain garrantzitsua baita, *nola* egin *zer* egin bezain garrantzitsua baita eta erabateko koherentzia behar baita aldarrikatzen eta egiten denaren artean, bertatik bertara garatzen den sozialismoa da-eta gizateriak bat egitea lortuko duena.

Proposamen eta oinarri politiko bateratu hauetara iristeko, *taldekako sortzea* jo genuen lan-tresnatzat, prozesuaren ardatz estrategikotzat. Kontzeptu honek geure egin nahi ditugun printzipio asko hartzen ditu: *talde lanean* eginda egotea, hainbat pertsona eta erakunde sozialen parte hartzearekin soilik lortuko baitugu paradigma berria; *sortzea*, proposamenen bitartez, eztabaida eta adostearen bitartez lortuko baitugu paradigma berria, eztabaida antzua da akzio politikarako proposamen zehatzik eman ezean, baina aurrehausnarketarik gabeko aktibismoak eskema eta inertzia zaharrak berrisla ditzake.

2009ko urtarrilaren 24an, bada, Alternatiba Eraikitzenek sustaturiko taldekako sortzea jarri zen abian. Hona prozesu honen ezaugarri funtsezkoenak:

---

<sup>4</sup> Esan bezala *Taldekako sortzea* gaztelarazko *Elaboracion colectiva*ren itzulpena da. Programak eta edukiak talde-lanean sortzen direla adierazi du.



- *Helburu garbi eta zehatzak:* urtarril eta ekain bitarteko epea ezarri zen, azken honetan aurkeztuko baitzen oinarri agiria, egitarau politiko eta antolatze egitura finkatzeko. Beraz, eztabaidok ez zuten eztabaida hutsalean geratu behar; baizik eta, metodologia oinarri, arlo estrategiko bakoitzean proposamen politikoak izan behar zituzten fruitu.
- *Ekimen anitza eta parte hartzera irekia:* 55 emakumezko eta gizonezko baino gehiagok hartu du parte Taldekako Sortze Prozesuan (PEC gazteleraz), hauetatik %30 inguru ez zetorren Alternatiba Eraikitzenetik; aitzitik, pertsonalki edo talde politiko zein sozialen kide izanda gerturatu ziren prozesura.
- *Metodologia aldetik ondo prestatutako bide-orri koherentea:* 7 mahaitan (erroko demokrazia, feminismoa, auzi nazionala, internazionalismoa, ekologia, ekonomia eta lana, elikadura subiranotasuna) banatu da lana eta aipaturiko parte hartzaileez gain *eragileen taldea* eta *babes metodologikorako taldea* izan dira lagun, erritmo komuna zaindu nahian; eta mahai guztien lana biltzeko *talde idazkaria* osatu zen. Azkenik, mahaien funtzionatze komuna zehaztu zen, lau bloketan banatua, bakoitza kronograma bati lotua: ardatz estrategikoen aukeraketa, egitarau politikoaren osatzea, antolatze egitura berrirako oinarriak, eta beste mahaiekiko zeharkako elementuak zehaztea.

Orokorrean emaitzaren epaia nahiko positiboa da, izan ere:

- Politikan, eztabaida antzuen eta aktibismoaren arteko oreka izan daitekeela erakutsi du. Prozesua ondo planifikatua izanez gero, posiblea da irizpide, ikuspegi eta neurri zehatzak hartzea eta eztabaida teorikotik ekintza proposamenetara iristea, denbora tarte laburrean. Hala, erakutsi da erakunde politikoaren egitarauak ez zaiola beti lotua izan

behar unean uneko egoerari; baizik eta lehentasunezko ikuspegi politikoen dialektika sakona garrantzitsua dela.

- Formula politiko berri honek pertsona anitz kopuru polita erakarri du. Prozesuan ezer ez da absolututzat eman eta definiziotik abiatu dira eztabaidak, ez ezarritako aurreirizpideetatik. Gainera, hau azpiko antolatze egitura sendo bat gabe egin da; ondorioz, balio handiagoa du.

Prozesuak izan ditu baina, nola ez, bere mugak. Hauetatik ikastea besterik ez zaigu geratzen.

- Mahaiek ezin izan diete egitarau berriko arlo guztiei ekin eta aipaturiko 7 arloei mugatu zaizkie. Honek ez du, ordea, adierazi nahi Alternatiba Eraikitzenentzat garrantzizko gai bakarrak direnik. Hurrengo bat egite prozesuan gai esparrua zabaldu egin beharko da.
- Denbora mugak direla eta, mahaiek ezin izan dituzte erabat osatu ez egitarau politiko berria ez antolatze egitura. Prozesua zeharo amaitzea helburua ez bazen ere, argi nabaritu dira mahaien arteko abiadura eta erritmo ezberdintasunak. Halaber, batzuetan ez da akordiorik lortu eta eztabaidak itxi gabe utzi dira. Muga potoloa izanda ere, bat egite prozesurako eztabaida hauek guztiok, itxiak zein oraindik irekiak, garrantzizko ekarpena dira.
- Komuneko metodologia eta babeserako taldearen laguntzarekin ere, zaila izan da batzuetan mahaien arteko zeharkako elementuak elkartzea. Hurrengo esperientziarako erronka irekia da.

Hau guztia ikusita, taldekako osatzea lana bera ekarpen oso positibotzat jotzen dugu, sortu nahi dugun paradigma horri begira. Bat egite prozesuak

metodologia hau bere egin dezan gustatuko litzaiguke, hau da, taldekako osatzea bere ohiko funtzionamenduaren garrantzizko lan tresna izan dadila.

Prozesu honek eman dituen ekarpenak hurrengo atalean azalduko ditugu sakonki.

### **3.- Prozesuaren emaitzak: etorkizunerako oinarriak**

Taldekako sortze prozesuak Alternatiba Eraikitzenen proiektua osatzen joateko oinarriak jartzea zuen helburua, euskal ezker politiko eta sozialeko hainbat pertsona eta talderekin bat egitea bermatuko duen paradigma politiko berria sortzea.

Agiri hauxe helburu honekin lan egindako 6 hilabeteen emaitza da; bertan, osatze ardatzei jarraiki, mahai ezberdinek eginiko eztabaida eta proposamenen berri ematen da. Arestian aipatu moduan taldekako lanetik abiatutako metodologia zehatz eta egituratua jarri zen martxan helburu eta irizpide zehatzak lortzeko asmoz, hausnarketa eta ekintzarako proposamen baliagarrien arteko oreka nahi baitzen. Halere, denbora muga dela eta emaitza ezberdinak lortu dira mahai bakoitzean.

Esan behar da, baina, egundoko lana egin dela eta paradigma berria osatze aldera ekarpen handia izan dela prozesua. Egitarau politiko berrirako proposamen berritzaile, erradikal eta alternatiboak eskaini izanaz gain, benetan demokratikoa, berdinzalea, irekia eta dinamikoa izango den antolatze egituraketarako oinarriak jarri dira.

Bi ardatz hauexetan banatu dugu atal hau: egitarau politikoa eta antolatze egituraketa. Lehenik, zazpi mahaiak gizarteari begirako egitarau eta proposamen politikoaren baitan egin dituzten proposamenak azalduko ditugu; bigarrean, etorriko den erakundeak ardatz izan behar dituen akordioak

azalduko dira, azaldu dugun egitarauarekin koherente izango bada.

Egituratze proposamena, oro har, erroko demokrazia aztertu duen mahaiak egin du baina beste arloetako ekarpenek osatu dute.

Talde idazkari bat izanda prozesuan baina bere lana kontzeptu eta terminologia bateratzera mugatu da, zeharkako edukiak biltzera eta atontzera mahai ezberdinen lanen artean. Gainerakoan, ahal zen guztian errespetatu da mahai bakoitzaren lana eta hau da eman duen emaitza. Era berean, akordiorik izan ez denetan, hala adierazi da eta ekarpena eztabaida bera da. Adibidez: ekologia zein ekonomia eta lana mahaiak komunean dute oinarri ekologikoko sistema ekonomikoa eta soziala lortzeko nahia, baina ez da lortu *hertzea*<sup>5</sup> (*frantseseko Décroissance edo gaztelerazko decrecimiento*) kontzeptuaren inguruko adostasunik, eta ez da azken erabakirik hartu. Berdin gertatu da beste kasu batzuetan. Ez dira berez kontraesanak, irekitako eztabaidak baizik, bat egitean konpondu beharrekoak.

Arlo bakoitzean emandako fruituak luze eta zabal azaldu aurretik, bakoitzaren laburpena emango dugu:

- **Erroko demokrazia:** mahai honen lanak herritarren parte hartzean oinarrituriko gizarte ereduari zein antolatze egitura alternatiboa garatzeko irizpideei egiten die aipu. Orokorki esanda *demokrazia zuzena, parte hartzailea eta ordezkartza demokrazia* aztertu dira. Herritarrak erabaki esparruetatik ahalik eta gertuen izatea hartu da helburu, beraz, erabaki estrategikoei dagokionean demokrazia zuzena proposatu da; beste arlo batzuetarako aurrekontu parte hartzaileak eta herritarraren ordezkartza. Halaber, komunikabideen kontrol sozialaren aldeko eta parte hartzearen aldeko asmoa adierazi da. Erakundearen barne egiturari dagokionean, ikuspegi bikoitza hartu da: batetik,

---

<sup>5</sup> Euskaraz kontzeptu hau darabilten egile batzuek, Peio Zubiriak kasu, hitz hau erabili dutenez honela itzuli dugu euskarara "decrecimiento" hitza.

lurraldeko bilguneak daude; bestetik, taldekako sortze mahaiak..Honetaz gain, txandakako ordezkari sistema proposatu da, ez burokratikoa, zerrenda ireki bitartez aukeraturikoa eta beti militantziaren mende egongo dena, azken honek kentzeko eskumena izango baitu. Militantziaren sustapenaren alde ere egin da, informazio eta trebakuntzara deitzen da militantea eta gizonezko eta emakumezkoen berdintasuna bilatzen da *emakumeen mugimendu autonomoaren* (mahai feminista beraz gain) bitartez, edo ordezkari eta liberazioetan erabateko *berdintasuna* bultzatuz.

- **Feminismoa:** ahalegin handia egin da egungo mundu-sistemaren aurkako borroka patriarkatuaren aurkako elementuak bere baitan har ditzan. Arlo ugari ezartzen den mendekotasun sistema izaki, ardatz askotatik aztertu behar da. *Botere eta parte hartzearen ardatzak* bidezko botere banaketa eta emakumeen eskubideen onarpenaz gain, neurriak proposatu ditu etorkizuneko egituraren berdintasuna bermatzeko. *Ekonomia eta lana* ardatzak zaintzaren ekonomia aldarrikatzen du alternatibatzat. *Sexu eta ugaltze eskubideen* ardatzak onartutako baina indarrean ez dauden eskubideak aztertu ditu, euren gorputzei buruz erabakitzeko eskubidea kasu. *Emakumeen aurkako indarkeria* ardatzean fisikoki ez ezik sinbolikoki, ekonomikoki, kulturalki,... ere ezartzen den indarkeria aztertu du eta *estatuaren laikotasuna* ardatzak emakumezkoen eskubideen begirunea bermatuko dituen hezkuntza laikoa bilatu du.
- **Auzi nazionala:** mahai honek bat egiterako lurralde eta nazio irizpideak izan ditu oinarri; eta jatorrizko proiektuaren oinarriak berretsi ditu: autodeterminazio eskubidea, erabakitzeko eskubidearen defentsa, Alternatibak Euskal Herria hartzen duela lan-eremutat eta euskal kulturaren zein euskararen defentsa.

- **Internazionalismoa:** mahai internazionalistak Europar Batasunean egin beharreko aliantza sistemari eman dio lehentasuna, ideologia soila baino kontu handiagoan izanda parametro berriarekiko irizpide komunak. Honetaz gain, mugimendu sozial berriekin harreman estua izango duen internazional berrirantz abiatzea ere funtsezkotzat jo da. Azkenik, ixteke geratu da nazio-gaindiko egitura handi eta luzeagoen aldeko apustua egitea mesedegarria den ala ez.
- **Ekologia:** mahai honetatik natur prozesuei egokituko zaien eredu sozio-ekonomikoa proposatu da; sistema kapitalistak epe laburrera, interes pertsonaletara eta puzte hutsera begira daraman praktikaren erabat alderantzizkoa. Bestetik , hertze (decrecimiento gazteleraz) kontzeptua jo da ekoizpen hutsa lehenesten duten sistemen (kapitalista izan ala ez) arerio. Esan bezala, eztabaida hau ez dago amaitua.
- **Ekonomia eta lana:** emakumezko eta gizonezkoek euren autonomia eta bizitza osoaz gozatu ahal izateari garrantzia ematen dion lan sistema kontzeptutik abiatuta, hainbat arlotan egin dira proposamenak: langabezia, pentsioak, zerga-sistema, pobreziaren eta baztertzearen aurkako borrokan eta immigrazioa. Azkenik, krisi honen egoera aztertu da eta kapitalismoaren gaindiko orden sozial, politiko eta ekonomiko berrirako proposamenak egin dira.
- **Elikadura subiranotasuna:** mahai honek egungo nekazal eta abeltzaintza industria sistema gainditzearen aldeko aldarri garbia egin du. Aipatu sistemaren ikuspegitik elikadura merkantzia da; elikadura subiranotasun ereduak, ordea, herriek euren elikadura politikak burutzeko eskubidea defendatzen du, berdintasun, demokrazia, osasun eta ekoizle zein kontsumitzaileen eskubideen errespetu irizpideak aintzat hartuta. Nekazal ekonomien mesedeko proposamenak egin dira, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harremana estutzeko bideak,

...Esandakoaz gain, ura, lurra, haziak eta natur ondasunen kudeaketa publiko eta komunitarioaren beharra garbi utzi da.

Orain mahai bakoitzaren jarduna modu sakonagoan garatuko da:

### **3.1. POLITIKA EGITARUA**

Egitarau honek Alternatiba Eraikitzenen proposamen politikoa biltzen du, mahai ezberdinen lana uztartuz. Mahai bakoitzak bere garapena izan du, logika komun baten inguruan izan bada ere. Eta agiri bakoitzak luzera ezberdina du sakontze eta adoste mailaren arabera. Honek ez du, baina, adierazi nahi garrantzia ezberdina dutenik; Alternatiba Eraikitzenek egitarau orekatu baten alde egiten du.

#### **3.1.1. ERROKO DEMOKRAZIA**

Alternatiba Eraikitzenen proposamen sozialista sakonki lotua zaio demokratikoa den gizarte bati, non herritargoak erabaki estrategikoak hartuz esku hartuko duen, baita oinarrizko politiken osaketan ere.

Zoritxarrez, egungo mundu-sistema aipatutakoetatik oso urruti dauden irizpideetan oinarritzen da. Sistemak proposatzen digun eredia, nahiz eta haxe bera ere ez duen askotan lortzen, hauteskunde demokraziarena da, non herritarrek euren izenean erabakiak hartuko dituzten alderdi eta pertsonak aukeratzen dituzten. Ordezkariek zeharka aukeratzeko gaitasun hau udalera, nazional edo estatu esparrura mugatu ohi da, gutxitan hedatzen da gero eta erabaki arlo zabalagoa duten nazio-gaindiko mailari; azken honetan estatuak eurak izaten dira ordezkarien hautesleak. Bestetik, ordezkatuak ez dute tresnarik aukeratu dituztenak kontrolatzeko, epe jakinetan soilik adieraz dezakete babesaren edo arbuioa, eta ez pertsona edo erabaki bakoitzari baizik eta

boterean den taldearen erabaki guztiak biltzen dituen kudeaketari. Kontuan hartu behar da, gainera, hautatze hauek informazio sakonean eta osotasunean lortzeko aukerarik ematen ez duen giroan egiten direla, informazioa mass media enpresa handiek merkantzia hutsa bihurtu baitute, eta hauek euren helburu zehatzei eta boterearekiko harremanei egiten diete men.

Beharrezkoa da, beraz, erabakiak hartzean herritarra benetako subjektu bihurtuko duen gizartera jotzea. Ildo honetan soilik har genezake geure burua sozialistatzat. Honela bada, geure ikuspegiak aurka egin behar die, egitarau politiko alternatiboa eskaini bai baina boterearen kudeaketa ordezkarien eskuetan soilik utzi nahi dutenei, ordezkatuena paper politiko bakarra bozka ematera mugatu nahi dutenei. Ez badugu helburu herritarra kudeaketatik ahalik eta gertuen egin dadin, ez gara gizarte alternatiboari buruz ari, alde hori baita berdintasun-eza eta bazterkerien iturria.

### **3.1.1.1. Erroko demokrazia kontzeptua.**

Alternatiba Eraikitzenek *erroko demokrazian* oinarrituriko gizartea aldarrikatzen du, honako irizpideen arabera ulertzen duguna:

- *Parte hartzea boterearen oinarrian:* boterea biztanleriaren esku hartze aktibo eta burujabearen bitartez eraman behar da aurrera erabaki esparru bakoitzean, herritarrek parte hartze hori bermatuko dien bide, egitura, informazio eta gizarte eredua behar dituzte. Parte hartze hau ezin da mugatu esparru politikora, beste ekonomia, gizarte edo kultura dinamiketara ere zabaldu behar da. Helburua da, ezaugarri estrategikoenetan bederen, gehiengoek zuzentzea euren eredu eta gizartea.
- *Ez dago eredu bakarrik* edozein testuinguru edo kulturatan bere horretan errepikatu behar denik. Aitzitik, demokrazia kontzeptu



ezberdinak elkarbizitzan izan daitezke komuneko eskubideen eta irizpideen zerupean. Beraz, erabateko demokrazia eta ordezkaritza zuzen adibideak – Boliviako Alto hirian edo zapatisten Juntas de Buen Gobierno direlakoak adibidez- ordezkartzari garrantzi handiagoa eskaintzen dioten batzuk bezain baliagarriak izan daitezke.

- Kalitatezko parte hartzea eskuragarria izatea denei bermatzeko subjektu bakoitzari egokituriko estrategiak garatu behar dugu. Hala, *Gako nagusiak* agirian adierazi dugun legez, subjektu bakoitzak mendekotasun sistema ezberdinak –kapitalismoa, patriarkatua, ...- jasaten ditu eta benetan aukera berdintasuna bermatuko duten prozesu, egitura eta politikak ezarri beharko dira. Emakumeen kasua nahiko adierazkorra da, izan ere, bazterketa eta prekariedade ekonomiko handiena jasateaz gain, erabaki guneeetatik oso urrun daude; logika maskulinoaren araberako ohitura, kultura eta egituren ondorioz. Funtsezko neurriok kontuan hartu behar dira errealitatea errotik aldatzeko.

Irizpide hauetatik abiatuta, honako ezaugarriez osaturiko **erroko demokrazia** kontzeptua aldarrikatzen dugu:

1. **Demokrazia zuzena, parte hartze demokrazia eta ordezkaritza demokrazia** uztartzea. Gizartearentzat estrategikoak diren erabakiak herritarrek hartzea bermatzen du, bai tokian tokikoan zein estatu edo nazioarte esparruetan; era berean, politika publikoetan herritarrek parte hartu ahal izateko egiturak definitu dira; azkenik, ordezkari politiko eredu berria zehaztu da, kargutik kendua izateko aukerapean eta txandakatze sistema batean politikarien profesionalizazioa saihestuko duena.

2. Demokrazia parte hartzeko egiturak sortzetik urrunago doa; kalitatezkoa izango bada, herritarrei **informazioa** lortzeko **aukera berdin, garden eta objektiboa** eman behar die.

3. Erroko demokraziak **erabat ezberdin den gizarte eredua** behar du, gizarte berdinzaleetan soilik eman baitaiteke kalitatezko esku hartzea. Gainera, eredu ekonomikoak arlo publikoan parte hartu ahal izateko denbora eta baliabideak bermatu behar dizkio herritarrari, eta parte hartzea bera funtsezko balio delako kultura hedatu egin behar da.

Erroko Demokraziaren Mahaiaren proposamenak 3 ezaugarri araberako antolatutako ditugu, 5 puntutan sailkatu ditugu beraz: demokrazia zuzena, parte hartze demokrazia, ordezkari demokrazia, informazioaren eskuragarritasun ekitatiboa eta tokian tokiko estrategia.

Azken puntu honetara enfokatu da lana, demokratizaziorako prozesu estrategikoan funtsezko ikusten baita, behetik abiatutako ezker alternatiba bat osatzeko asmoan.

### **3.1.1.2. Demokrazia zuzena**

Erabakiak ordezkari eta zeharkako prozesurik gabe hartzeko subjektu burujabea herritargoa dela defendatzen du demokrazia zuzenak. Ildo honetan proposamen hauexek garatu ditugu:

- *Herritarren erabaki eskumenak ahalik eta gehien zabaltzea.* Ahal den neurrian, herritarrek erabakiak hartu ahal izatea ahalbideratu behar da, ordezkarien lana mehetuz. Azken hauen lana operatibitate gaiei eta taldeka sorturiko estrategia politikei mugatuko beharko litzaieke, erabakia bera esparru bakoitzeko subjektu burujabea utzita.

- Zalantzarik gabeko muga, zer aukera daitekeen eta zer ez bereizten duena, *giza eskubideen nazioarteko arloak* zehazten du. Eskubideak ezin dira zalantzan jarri eta euren gainean ez da erabakirik hartzen ahal. Zehazteke geratzen da, halere, zer den eskubide eta zer ez (batez ere bigarren eta hirugarren belaunaldiena) eta euren izaera dinamikoa.
- Aurreko bi ideiak *Demokrazia zuzen Lege edo Erreferendum eta Kontsulta Lege* batek zehaztu beharko lituzke, honetan agertuko litzateke zein eskumen diren herritargoaren erabakitze esparruaren arlo hutsekoak eta zeintzuk diren esparru bakoitzeko subjektu zehatzak (nazio, lurralde historiko, eskualde, ...). Legeak subjektu horiei egituratzeko eta informazioa eskuratzeko ahalmena bermatu beharko die.
- Egitura eta legeak ez dira asebetegarriak ez bada benetako kultura demokratikorik sustatzen. Honetarako *informazioaren eskuragarritasuna, eztabaidarako eta erabakitzeko egitura egonkorrak, parte hartzeko denbora eta baliabideak, formakuntza orokorra, ...* behar dira.

### **3.1.1.3. Parte hartze demokrazia**

Erabakiak hartzean, demokrazia zuzenaren osagarri behar du izan, ahal den neurrian, herritarrek politika publikoen osaketan parte hartzeko aukerak. Beti parte hartzea maila zabalean emateak duen zailtasuna dela eta, erabakiak zuzenean hartzea aldarrikatzen duen kultura demokratikoa lehenetsi da; baina badira proposatzea merezi duten parte hartze demokrazia neurriak.

- *Kontseilu eta Batzordeen* sustapena, parte hartu nahi dutenei irekiak.

- *Udal, eskualde eta lurralde historiko mailako batzarren* sustapena, esparru bakoitzean politika eta neurri ezberdinak aztertu, eztabaidatu eta haien gaineko proposamenak egin ahal daitezen.
- *Legegintzako Herri Ekimen Lege* berria, herritarrek araudien osaketa eta onartze prozesuetan parte hartzea baimendu eta bultzatuko duena.

#### **3.1.1.4. Ordezkaritza demokrazia**

Ordezkatuaren eta ordezkariaren arteko harreman estuago baten alde egin da, lehenari indar handiagoa emanaz bigarrenarekiko.

- *Alderdi Legearen erabateko eraldaketa* izugarritzko bidegabekeria demokratikoa da eta.
- Egungo ordezkari sistema (D´hont legea, oinarrizko barrutiak,...) aztertu eta egokituko duen *Hauteskunde Lege berria*, herri babesa eta ordezkarien arteko koherentzia bermatuko duena.
- *Lurralde Historikoen Legea bertan behera uztea*, ordezkari biztanle kopuruaren arabera oreka dadin.
- Ordezkarien aukeraketa gisarako *zerrenda irekien* aldeko apustu garbia.
- Ordezkariak *postutik baztertzeko* aukera jarduera osoan zehar.

#### **3.1.1.5. Informazioaren eskuragarritasun ekitatiboa**

Komunikabideen eztabaida ere itxi gabe geratu da, eztabaidarekin jarraitu beharko da; izan ere, komunikabideen kontrola, jabetza eta ezaugarrien inguruko jarrera argirik ez da lortu. Badira, ordea, adostasun puntuak:

- Informazioa ezin da hartu merkantzia hustzat, funtzionamendu demokratikorako nahitaezkoa baita.
- Herritarren kontrolik gabeko estatalizazio hutsak ez du bermatzen benetako informazio bat jaso ahal izatea.

Beraz, jabetza publikoa komunitario eta herritarrarekin uztar dezakeen ereduren bat bilatu nahi da.

- *Internet eta software libreen sustapena*
- *Komunikabideetan kuota sistemak* hainbat sektore herritar zein komunitarioren beharrak asetzeko.

### **3.1.1.6. Tokian tokiko esparrua: botere eraldaketa estrategia**

Mahaiaren lana, azkenik, berrikuntza demokratikoan tokian tokiko esparruari eman beharreko lehentasunaz arduratu da, baina eztabaida hau ere ez da zeharo itxi. Batzuen ustez, tokian tokiko esparrua edozein estrategia demokratiko martxan jartzeko oinarritzko abiapuntua da, udala beste esparruen (lurralde historiko, nazio,...) ordezkari zutabe izanik. Horrela, demokrazia zuzena eta udala ordezkari zutabe gisan ulertzen duen ideia uztartzen dira. Beste batzuek, ordea, garrantzia estrategikoa aitortzen diote tokian tokikoari baina nazional edo nazio-gaundikoa arindu gabe. Hauen ikuspegitik esparru ezberdinak ez dira udalaren oinarritik abiatzen, baizik eta subjektu politiko ezberdinen arabera antolatzen dira.

Aho batez diote denek *tokian tokikoa esparru estrategikoa* dela boterean eta parte hartzean, errotik demokratikoak diren esperientziak osatzeko.

Erakunde berriari deia egiten zaio, beraz, *tokian tokiko demokrazia, botere eta parte hartze estrategia bat gara dezan.*

Helburu hau buruan, tokian tokiko demokrazia zuzen egitura eta protokoloak (aholku kontseiluak erabaki subjektu bihurtu, aurrekontu parte-hartzaileen arautzea, informazioaren eskuragarritasun ekitatiboa, herri mugimenduen sustapena,...). Estatu kontrol handiagoa aldarrikatu da irabazien banaketan eta eskubideei loturiko eskubideen praktikan; eta alderantzizkoan, estatuaren kontrol sozial murriztagoa, informazioaren monopolioan,...

Hauxe da, bada, erroko demokraziaren mahaiak proposaturiko agenda, antolatze egitura berriarekin oinarriekin uztartuko dena. Bistan da beraz lan handia dugula aurretik, betiere erabakiak herritarrengandik gertuago jartzeko asmoz kalitateko parte hartzea baliatuta, non ordezkariak herritarraren mendean egongo diren.

## 3.1.2. FEMINISMO

### 3.1.2.1. Xehetasun nagusiak

Feminismo mahaia, lan hil hauetan zehar, taldekako sortze prozesu honetan ezarritako helburuei erantzun ematen saiatu gara: egitarau politikoaren eta antolatze egitarauaren oinarriak zehaztea. Gure ahalegina, batez ere, bi arlo hauek geure politika feministaren baitan txertatzea izan da.

Bere burua ezkertiarizat duen edozein indar politikok ezin ditu hainbat feminisमतatik mahai gainean jartzen eta aldarrikatzen ari diren proposamen politikoak alde batera utzi. Gaiok ezin dute ezkerreko alderdien egitarauetan epigrafe soila izan, ezta alderdietako emakumeen gaia soilik izan ere, baizik eta proiektuari eusten dioten berezko oinarri ideologikoetan zein erakundearen arlo guztietan egon behar dute.

Merezi du argitzea, aipatu moduan, hainbat feminismo mota dagoela eta, zeini egiten diogun erreferentzia. Ez dugu zehazki korrante baten aldeko apustua egin, gure proposamen honetan guztietako osagai interesgarriek elkarbizitzeko aukera dutela uste baitugu; baina geure inguru ideologikoaren oinarritzko osagaiak azaldu beharrean gaude:

- Geure borroka feminista **sistema patriarkalaren** aurka ez ezik, **sistema kapitalistaren aurka** ere badelakoan gaude. Sistema patriarkala, gizarte antolatze sistema legez, gure bizitzako errealitateko guztietan ageri da; eta beraren arabera "maskulinoa", eta ondorioz gizonezkoak, denaren erdigunean daude. Sistema honek gizonezkoen esperientzia eta bizipenak gizateria osoarentzat eredugarriak direla uste du. *Gizaki eredu* bat zehaztu du -gizonezkoa, anglosaxoia, adin ertainekoa, heterosexuala, katolikoa, gaixotasun edo gaitasunezarik

gabea, arrakastako lanbideduna, ...- boterearen goiko ertzean eta eskubide oro duen herritartzat; eredu honetatik urrundu ahala sistemaren duen indarra murriztu egiten da. Honetaz gain, herritartasunean eta hau praktikan jartzearen maila ezberdinak ezarri ditu, aipatu irizpideen arabekoak. Laburtuz, patriarkatuak boterearen ezarpen autoritarioa planteatzen du, sektore eta pertsona zehatzen esku. Bereziki emakumeak baztertzen ditu baina boterearen eskuragarritasun eta praktikan ezberdintasun nabariak sortzen dizkie gehiengo askori; hala, gizarte demokratiko eta berdinzalea mugatzen da. Sistema patriarkalaren aurkako borroka, beraz, ezkerreko mugimendu berriak ezin alboratu edo esperoan utzi dezakeen borroka da.

Sistema patriarkala iraunkorra eta etengabea da historian, bere burua eraldatu eta testuinguru eta garai ezberdinetara egokitu izan da; halere sistema kapitalistaren baitan indartu eta garatzeko aukera paregabea aurkitu duela esan beharra dugu. Bi sistemok, ezberdintasun eta mendekotasun iturri diren heinean, elkar elikatu eta laguntzen dute. Geure egitarau feministak ezin dio uko egin sistema kapitalistaren aurkako borroka oinarritzko ardatzetako bat izateari; orobat, bultzatu nahi dugun sozialismoa ez da posible feminista izan ezean.

- Indar politiko berri honek emakumeek **bere burua talde sozialtzat hartu eta beraien gaineko konfiantza garatuko duen prozesua jabekuntza bultzatu beharko du**. Sistema patriarkalak zein kapitalistak emakumeen aurkako hainbat indarkeria mota sortu ditu, bizitzako arlo guztietan jabekuntza gaitasuna kenduta. Sistema biek emakumeak hiritartasun osotik aldentzen dituzte. Ezkerreko indar garen heinean, beraz, emakumeen askatze eta garatze prozesu hori bultzatu behar dugu, euren kontzientzien jabetzea sustatuz, gizabanako eta talde moduan, erabaki hartzean eta agintean euren parte hartzea eta eragina indartuz. Jabekuntza prozesuak, banakoaren mailan,



emakumeak bere mendekotasunaz jabetzea dakar; maila kolektiboan, jasaten duten mendekotasun sozial eta bazterketaren jabetze komuna egiten dute, eta horren aurka borrokatzeko behar den antolatze mailaz.

Emakume izanik, gutxienez lau autonomia esparru dakusagu lortzeko: autonomia fisikoa (geure gorputzaren, sexualitatearen eta emankortasunaren gaineko boterea eta kontrola); ekonomia autonomia (baliabide eta ondasunak eskuratu ahal izan eta kontrolatzea); politika autonomia (oinarrizko eskubide politikoak lortzea eta erabili ahal izatea, erabaki esparru guztietan geure parte hartzea bermatuta); sozio-kultura autonomia (baliabide kulturalen kontrola eta informazioaren eskuragarritasuna, izaera burujabe baterako eskubidea eta berezko balioaren eta auto-estimaren onarpena).

Jabekuntza prozesu hau bultzatzeko aldarriak ezkerreko indar politiko berri honen egitarauan honako *egitarau ardatzak* eman ditu.

Honetaz gain, kontzeptu honek erakunde berriaren antolaketan izan behar duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Emakumeek jabekuntzata prozesu propioei ekin behar diegu, emakumeon berdintasun-eza egoerara egokituak. Horregatik, ezkerreko paradigma berriaren erronka da herritargoaren auto-eratzeko, garatze eta indartze prozesuak sustatzea.

Geure proposamen feministan, bada, botere forma berriak mahaigaineratzen dira. Egungo ereduak ez zaizkigu baliagarriak aipatu prozesuak bultzatzeko. Hainbat egile feministaren planteamenduaren arabera, botere tradizionala 0 orekako izan da, hots, pertsona edo talde batek botere arloak lortzeak beste batek galtzea ekarri behar zuen nahitaez. Hala, gehiengo handiak boteretik at geratu izan dira, emakumeak tartean. Guk balioetan metakor den boterearen alde egiten

dugu, talde edo pertsona batek duen botereak orokorrean dagoen botere kopurua areagotzen du. Proposamen feministei jarraiki, boterea *barrutik* hartu nahi dugu, hau da, geure kontzientzia eraldatu eta gure errealitatea berrinterpretatzea; boterea *besteekin* nahi dugu, beste emakume eta eraldaketarako taldeekin elkarlana nahitaezkoa baita; boterea *helburuekin*, aldaketaren aldeko elkartasunari deitzeko, berdintasun-eza sortzen duten egiturei aurre egiteko. Botere honi gagozkio jabeakuntza prozesuak sortzeaz ari garenean. Ez dugu egungo boterera iritsi nahi, baizik eta eraldatu egin nahi dugu. Sustatu nahi dugun erakundearen helburu nagusietakoa izan behar duelakoan gaude.

- Feministak izanik, gune elkarbanatu batean esku hartzeko apustua aztertu behar dugu. Emakume feministok geure aldarri eta borroka propioentzako gune berezitua eduki behar dugula uste dugu, eta emakumeen mugimendu autonomia babesten eta defendatzen dugu. Baina, era berean, oinarritzko deritzogu ezkerreko aliantza berri batean parte hartzeari, eta esparru honetan gure aldarri feministen alde egiteari. Euskal Herrian benetako alderdi feminista eta ezkertiarra egon dadin egiten dugu lan. Egin daitekeelakoan gaude. Ezkerraren baitan mugimendu feministak jasan duen bazterketa albo batera utz daitekeelako itxaropena dugu. Badakigu ez dela erraza, erronka ugari ditugula aurretik, baina apustua egingo dugu. Hala izango bada, gizonezko gure kideen kidetasuna, babesak eta konpromisoa eskatzen ditugu borroka feministen alde egiteko; emakumezko garenon borroka, euren ere behar du izan.

Hurrengo 5 ardatzak lehentasuntzat jo ditugu erakunde politiko berrirako:

- Boterea eta parte hartzea

- Ekonomia eta lan mundua
- Sexu eta ugalketa eskubideak
- Emakumeen aurkako bortxa
- Estatuaren laikotasuna

Alternatiba Eraikitzenek proposaturiko feminismo kontzeptutik abiatuta, egitarau politiko osoa ez ezik, erakundearen antolatze eta lan egiteko moduak barneratu ditugu. Egitaraua, politikoa izateaz gain, estuki lotua zaie bizitzako beste arlo batzuei –ekonomia, gizartea, bizitza pertsonala-, ikuspegi feministatik berraztertu behar direnak.

### **3.1.2.2.-Lehen ardatza: boterea eta parte hartzea.**

Ardatz honetan lehen aipaturiko boterearen eta parte hartzearen gaia hartu dugu. Egungo sistema demokratikoak bozka ematera mugatzen dute gure eskubidea, eta herritarren beste parte hartze ororako aukerak ezabatzen ditu, emakumeenak batez ere. Hori dela eta, parte hartze maila eta horren inguruko egiturak genero ikuspuntutik berraztertu behar dira.

Era berean, *norberarena politikoa* delako esamolde feminista aldarrikatu nahi dugu bi arrazoi direla eta: ohiko publikoa eta pribatuaren arteko haustura markatzen duelako eta politika egunerokotasunean jartzen duelako. *Egunerokotasunaren* ideia honek albo batean geratu diren egitarau politikoak berreskuratzeko parada ematen du, emakumeen gaiak kasu. Honetaz gain, egunerokotasunetik egindako so hau, norberaren esperientziatik abiatzen dena, proposamen feministak herritarrari gerturatu nahiz dion elementu bat da. Ez dira gai globalak alde batera utzi behar; baizik eta asmoa da, auto-eratzeko prozesuei jarraiki, norberaren gertuenekotik ekin behar diogula hauek eratzeari, gure errealitatearen eta kontzientziaren jabetzetik, tokian tokikoari erreparatu modu orokorragoan antolatu eta borroka egin ahal izateko. Tokian tokikoa eta

gertuenekoa eragin gunetzat hartzea indar politiko berri honen ezaugarriei lotzen zaie.

Emakumeen parte hartzea sustatu eta zaindu behar dugu, autonomia politikoaren borrokan euren auto-eratzeari bultzatuz; baina era berean emakumeek berdintasunean parte hartu ahal izan dezaten forma eta eredu berriak garatu.

*Parte hartze demokratiaren* irizpideen arabera herritarrek, emakumeek bereziki, geure etorkizunaren gainean erabaki ahal izatea bilatu behar dugu, eta parte hartzea ez dadila sinbolikoa izan baizik eta horretarako baliabideez eta boterearen jabetzaz horniturik egon dadila. Defendaturiko parte hartzeak beti ekarri behar ditu loturik erabaki ahalmena eta dagozkion baliabideak.

Esandakoa dela eta, tokian tokiko esparruan bultzatzen ari diren prozesuetan parte hartu beharko dugu (Berdintasun Kontseilua, Parte Hartze Kontseiluak, Aurrekontu parte hartzaileak,...) erabakiak talde mailan hartzea eta herritargoak boterea baliatzea bermatzen duten tresnak baitira. Egiturok feministok aztertu beharko ditugu emakumeen kalitatezko parte hartzea bermatzeko.

Benetan parte hartzaileak izan daitezen ondorengo gutxieneko ezaugarriak bete behar direlakoan gaude:

- Informazioa ulergarria izan eta herritarrentzat eskura egotea.
- Eztabaida sustatu dadila hartu beharreko erabakien inguruan, hausnarketa ezberdinekin herritar kritikoak indartzeko.
- Parte har dezaketen pertsonen tresnak horni dakizkiela, parte hartzen ikasteko eta kalitatezko lana egiteko.

- Emakumeen parte hartzea bermatzeko bideak egon daitezela.
- Sexua ez ezik berdintasun-eza sortzen duten beste ezaugarriak kontuan hartzea: adina, jatorria, klase soziala,...

Geure apustu nagusia parte hartze demokrazia izanda ere, gai batzuk ordezkari demokrazia bitartez erabaki beharko direla uste dugu. Egungo alderdi sistemak emakumeen parte hartzea mugatzen duenez, erabaki guneetan emakumeak egotea bermatuko duten bideak ezarri behar dira.

Geure erakunde politikoak *parekotasunaren* alde egin behar duela uste dugu. *Kremailera zerrenden* (emakume/gizon txandakatzea) alde egin behar dugu. Ildo honetan, zerrendaburuaren artean ere *txandakatze sistemaren bat* ezarri beharko litzateke, postua gizon eta emakume baten artean aldatzeko. Hautes zerrendetan gutxieneko emakume kopuru baten alde egin dugu, ez gehienezko kopuruaren alde, alderdi feministek euren zerrendak osotasunean emakumez bete ahal izateko. Parekotasuna eta proposaturiko gaiok eraikitzen ari garen erakunde berrirako ez ezik beste alderdi guztietara hedatzeko modukoak direla uste dugu. Legeak egin beharrekoak proposatu ez ezik proposamen hauek ez betetzea zigortu beharko luke.

Geure iritziz, halako neurriak legez derrigortzeak ez du berez besterik gabe emakumeen kalitatezko parte hartzea bermatzen gai publikoetan, baina baztertuta eta ukatuta izan zaien errealitate batera iristeko aukera errazten die.

Honetaz gain, feminista izanik, *ordezkari politikoaren kontu emate sistema* ezarri beharko litzatekeela uste dugu. Programaren betetze maila eta emakume eta gizonen arteko berdintasun gai horien asebetetzea baloratzeko sistema ezarri behar dugu. Geure ordezkarien gaineko kontrol lana aurrera eraman beharko dugu.

Parte hartze demokraziaren alde egin badugu ere, gure eskubideen defentsari lotuak dauden gai batzuk azaldu nahi ditugu, eztabaidarik gabe geure proposamenera pasa beharko luketenak:

- Berdintasuna eta parte hartzea subjektu politiko berriaren osaketaren funtsezko oinarri.
- Emakumezko zein gizonezkoentzako erabateko herritartasunaren aldeko lana
- Giza Eskubideen berrikuspena feminismoaren ikuspegitik, emakumeek hauek lortzeko duten berdintasun-eza aitortzeko honakoak proposatuz: betetzen ez direnean salatzea eta biltzen dituen eskubideak zabaltzea; sexu edo ugalketa eskubideak, kasu, sartuta.

Harreman mota hauek gizarterako proposamenak ziprizzintzeaz gain, geure erakundearen antolaketan gauzatu behar dira batez ere. Ezkerreko alderdien ohiko kultura politikoa eraldatu egin behar dugu zerbait berria lortzeko, emakumeen berdintasuna bermatuko duena. Erakundeko emakumezko zein gizonezko kideen arteko harremana aldatu beharrean gaude.

Ildo honetan erakunde egiturarako proposamen batzuk egin ditugu, aipaturikoa bermatuko dutelakoan. Proposamenok lau oinarrizko esparrutan daude, denak ere botere kontzeptu berri bati begira: erabaki hartzea, taldekako sortzea, informazioaren eskuragarritasuna, kultura demokratikoa.

- Erabaki hartze sistemari lotua:
  - Geure iritziz *parekotasuna* irizpidetzat hartu behar dugu, ordezkaritza guneetan hala bermatu behar da. Ezin bada, gizonezko kopurua jaistea edo txandakatze sistemak ezartzea

proposatzen da. Erakundeko beste guneetan kuota sistema ezar liteke.

- Militantearen figura argi zehaztu eta mugatu behar da, parte hartze maila izanda irizpide.
  - Estrategikotzat jo dugu erabaki hartzea eta espazioen kudeaketa modu parte hartzailean egitea bermatuko duten metodologiaren ezagutza eta erabilpenean sakontzea.
- Taldekako sortzeari lotua:
    - Mahai feminista (mistoa, gizonezko eta emakumezkoen osatua) izatea nahitaezkoztat jo dugu.
    - Mahai hau osagarria izango zaio beste mahai edo guneekiko zeharkako eragin feministari. Bideak eta tresnak (iragazki galderak, aldebiko bilerak,..) zehaztu beharko dira proposamen eta lan feministaren *sektorializazioa* saihesteko.
    - Gainontzeko mahia eta guneetan emakumeak izango direla bermatuko duten neurri zehatzak ezarri behar dira.
  - Informazioaren eskuragarritasunari lotua:
    - *Funtzionamendu protokoloak* ezartzea funtsezkoa da; hauetan bilera, gai-zerrenda, akta,..prozedurak adieraziko dira.
    - *Informazio iturri eta bideak* zeintzuk izango diren zehaztu behar da.

- Barne komunikazio gunea ezarri behar da, erakundeko informazioaren hedapenaren arduradunen esku. Arlo honetan emakumeek presentzia nagusia izan beharko lukete.
- Kultura demokratikoari dagokionean:
  - Emakumeen jabekuntzarako lan-tresna eta gune moduan funtzionatuko duen *Emakumeen Egitura Autonomo* baten alde egiten dugu.
  - Egitura honek besteak beste ardura hauek izango lituzke: emakumezkoen bereziki zuzenduriko hezkuntza, emakumezko militanteen behar-izanei egokituriko gaitasunen garapena, erakundeko zein ordezkari postuetarako emakumeen laguntza...
  - Alderdien ohiko kooptazio/indukzio sistema eraldatu behar dugu, emakumeak baztertzen ez dituzten bideak aukeratuta.
  - Parekotasunak helburu eta estrategia izan behar du.
  - Erakunde berriak ardura elkarbanatuaren helburu nagusirantz egin behar du lan. Ohikoaz aldentzeko den denbora tarteen kudeaketa berezia egin behar da, bilera kopuruari, euren ordu eta lekuei,... arreta jarritz.
  - Berriz ere, parte hartze metodologiak ezagutu eta erabiltzeko beharra azaldu zaigu, erakunde barruko prozesu parte hartzaileak eta lan molde berriak ezarriko baditugu.

### **3.1.2.3.-Bigarren ardatza: ekonomia eta lana.**

Indar politiko berriaren egitaraurako funtsezko elementuak garatu direlakoan gaude. Nahitaez hasi behar dugu emakumeek lan munduan



pairatzen duten berdintasun-eza egoeraz mintzatzen; izan ere geure lan-munduratzek *prekarietate altua* izan du ezaugarri nagusi, *bazterketa bertikal eta horizontal handiari* loturik. Emakumeak ardua, lan-sari eta igotze aukera gutxieneko eta ez-egonkortasun handieneko lan-postuetan pilatu ohi gara, *ohituraz emakumezkoentzako izan diren sektoreetan* (sozialari, zaintzari, zebitzuei,...lotuak eta langabezia tasa eta aldizkako kontratazio handiagoak izaten dituztenak).

Geure lan-munduratzek, beraz, gizonezkoekiko berdintasun-eza baldintzetan izan ohi da beti. Egungo egoerarekin loturik, *etengabeko krisi egoeran* izan garela esan liteke. Ez dugu sakonegi aztertu emakumeen lan-munduratzek ezaugarri hauen arabera den; baina planteatu beharrean gaude sexu-genero bazterketak azaltzen duela neurri handian fenomeno hau.

*Zainketaren ekonomia ereduaren* alde egin dugu, lehenbizikoz ekoizpen eta ugalketa arloak biraztertuz, ohituraz gizon langile/emakume zaintzaileari lotu izan zaizkion arlo bi. Familia ardurarik gabeko gizon langilearen ereduak ezin du lan merkatuaren erreferentzia nagusia izan; ezta zainketari mugatzen zaion emakumea ugaltze arloan ere. Honetaz gain, *emakumeek egin izan duten ordaindu gabeko lan osoa* kontuan hartu eta *estatistika ofizialetan* tokia eman behar diogu.

Elkarbanaturiko arduren alde gaude: zaindua izateko eskubidea pertsona orori dagokio eta emakumezko zein gizonezko guztien ardua, estatuak hala bermatu behar du. *Zainketen hedatze orokorra* nahitaezkotzat dugu, pertsona guztiek eskuragarri izan ditzaten, diru-sarrera, jatorri eta antzeko edozein faktoreren mendean egon gabe. Estatuak gogor hartu behar da hau bermatzeko beharrezko baliabideak sor ditzan, batez ere bizi dugun krisi garai honetan.

*Mendekotasunaren arreta zerbitzu publikoa eta kalitatezkoa* exijitu behar dugu, zentzu honetan hainbat talde feministak indarrean den Mendekotasun

Legeari eginiko kritikekin bat gatoz, ez baita gai behar-izanei erantzuteko eta emakumeak zaintze lanetara "behartuak egotea" gainditzeko ikuspegi feminista baten gabezia nabarmena baitu bere aurre planteamenduetan.

Zainketari lotzen zaizkion pertsoneri, bereziki emakumezkoak, arreta berezia jarri behar zaie; antzera jokatu behar da etxeko langile eta emakume etorkinekin.

Funtsezkoa da, gure iritziz, ikastetxeetan eredu koedukatioak ezartzea, zeintzuetan mutil eta nesken autonomia sustatuko den zaintza eta autozaintzaren gaineko ezagutza garatzen joan daitezen, gai honek emakumezkoena soilik izateari utz diezaion.

#### **3.1.2.4.-Hirugarren ardatza: sexu eta ugalketa eskubideak**

Geure ustez lehentasunezko gaia da sortu nahi dugun erakundeak sexu eta ugalketa eskubideen onartzearen eta abian jartzearen alde egin dezala. Eskubideok funtsezko giza eskubide unibertsalak dira. Estatuari dagokio beraz eskubideon erabateko gozatzea bermatzeko ardura.

Sexu eta ugalketa eskubideek, besteak beste, seme eta alaba kopuruaren inguruko mehatxurik gabe erabakiak hartu ahal izateko gizakien eskubideari; eta informazioaren, hezkuntzaren eta hori lortzeko baliabideen eskuragarritasunari egiten diete erreferentzia. Beijingeko Emakumeen Mundu Batzarrean (1975) gaiak aurrera egin zuen eta emakumeek sexu inguruko gaietan dituzten eskubideak finkatu ziren. Adibidez, emakumeek bazterketa, mehatxu eta indarkeriarik gabeko baldintzetan euren sexualitatea erabiltzeko eskubidea dutela onartu zen.

Sexu eta ugalketa karta honetako eduki eta proposamenetan sakonki sartu gabe, emakumeen ugaltze osasun eta seme/alaba kopurua gainditzen

dituzten gaiak direla aipatu nahi dugu. Hautaketa sexual askatasuna eta kalitatezko sexu hezkuntzaren ezinbestekotasuna bezalako gaiak azaltzen dira, geure iritziz oso garrantzitsuak direnak eta ezkerreko erakunde berriak lehentasunezko zatik behar dituenak. Beraz, *emakumeen erabakitze eskubidea eta doako aborto askea* bezalako funtsezko gaiez gain, norberak bere sexualitatea askatasunean garatzeari loturiko aldarrikapenekin bat egiten dugu; ondorioz, aukera sexualak askatasunean hartzearen eta pertsona guztiak, edozein aukera sexuala izanda ere, eskubide berberen jabe izatearen alde gaude.

Zehazkiago, erakunde publikoek Sexu Osasun Estrategia Orokor bat osatu eta zabaltzeko proposamenak egin nahi ditugu:

1. Osasun sexualari arreta eman:

- Kalitatezko sexu osasunerako arreta zerbitzuak exijitu behar dira, pertsona guztientzat errazki iristerrazak izango direnak eta pertsona guztien xehetasunei (gazteak, emakume etorkinak,..) egokituak egongo direnak. Edozein emakumek ziurtatuak izango ditu azterketa ginekologiak, aurrezaintzekoak eta aldizkakoak.
- Baliabide antisorgailu guztien finantzazio bermatu osasun sistema publikoaren baitan.
- Haurdunaldiaren Borondatezko Etetea (IVE gazteleraz) bermatzea hala nahi duten emakume guztiei. Emakumeek euren gorputzaren inguruan erabakitze eskubidea funtsezkoa da. Abortatzeko erabakia emakumearen barne etikaren barruko erabakitzat hartu behar da. Horretarako:

- Abortoa lege berezi baten arabera arautu behar da eta emakumeen borondatearen aurka edo zuhurtzia-eza dela eta gertatuz gero Kode Penalean azalduko den delitua behar du izan.
- Abortoa osasun sistema publikoaren baitan burutu behar da. Horretarako osasun langileen kontzientzia eragozpena arautu beharko da, osasun agintariak izanik zerbitzua jaso ahal izatearen arduradun.
- 16 urtetik aurrerakoei erabaki autonomia onartu behar zaie, gurasoen baimenaren mende egon barik.

## 2. Osasun sexualari arreta eman:

Geure ustez kalitatezko sexu hezkuntza aldarrikatu beharrean gaude, aurreko puntua osatuko bada. Erakunde publikoek, beraz, honakoak egin beharko lituzkete:

- Maitasun-sexu hezkuntza sustatu lehen eta bigarren hezkuntzako kurrikuluetan; pertsonen euren gorputzen gaineko eskubidea, ugaltzetik harago doan sexualitatea izateko eskubidea eta sexua aukera ezberdinetan gozatzeko eskubidea onartuz.
- Emakumezko zein gizonezkoak zaintzearen, anti-sortze prozesuaren eta sentimendu harremanak mantentzearen arduradun direla sustatuko duten hezkuntza jarduerak sustatu.

## 3. Osasun langileen hezkuntzari genero ikuspegia barneratu:

Hezkuntza langileekin, aurreko gaiekin oso loturik egonik, eta lan zehatza behar duten lantaldea izanik, neurri hauen arabera lana proposatzen dugu:

- Medikuntza, erizaintza eta giza-osasun saileko beste lanbide batzuen heziketan abortoa sartu behar da, kirurgia zein osasun praktikak barne.
- Sexu osasunean espezializaturiko langileak genero ikuspegitik hezi behar dira, euren aurreiritziez jabetu eta jakitun izan daitezen; hala, pertsona guztiei, edozein aukerako gizona zein emakumezko, kalitatezko arreta eman ahal izan diezaieten.

### **3.1.2.5.-Laugarren ardatza: emakumeen aurkako bortxa.**

Ardatz hau proposamenaren hasiera-hasieratik da agerian. Sistema patriarkala eta kapitalistak emakumeen aurkako hainbat bortxa forma sortzen dituztela esana dugu dagoeneko. Darabilgun bortxakeria kontzeptua emakumeek euren autonomia eta jabeakuntza garatu behar duten arloekin lotzen dugu. Bortxakeria ulertzeko kontzeptu zabala da: kolpe, bortxaketa eta erailketaz gain gauza gehiago aztertu nahi ditugu.

Bikotekide edo bikotekide ohiek buruturiko emakumeen aurkako tratu txarrak edo indarkeria espainiar estatuan urtero bataz beste 60 emakume hiltzen dituen indarkeria mota da. Indarkeria mota hau, bere ezaugarriak direla eta (gertuko batek burutua izana, orokorrean denboran luze jotzea eta jasaten duenaren autoestima urratzen duten hainbat faktore) odoltsu eta ankerrenetakotzat jo daiteke. Errealitate hau salatu eta estatuari erabat desagerrarazteko neurri guztiak hartzeko eskatu behar diogu. Gizarteari eta geure buruei eurei ere *emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean inolako tolerantziarik ez izatea* eskatu behar diegu.

Hau esanda, indarkeria mota hau emakumeen aurkako bortxaren *izebergaren punta* besterik ez delakoan gaude. Geure iritziz, emakumeen aurkako bortxak agertzeko modu ugari ditu eta ezin dugu emakume kopuru "txiki" bati eragiten dion zatiari soilik mugatu. Emakume kopuruaren zati batek

tratu txarrak jasaten ditu baina denek jasaten dugu bortxakeria geure bizitzako hainbat unetan: *bortxakeria ekonomikoa* (ezaugarri kaskar eta behin behinekoetan lan-munduratzeari), *sexu bortxakeria* (sexu eraso eta bortxaketetatik hasita laneko sexu-jazparpenera), *bortxakeria psikologikoa*, *bortxakeria sozio-kulturala* (emakumezkoaren gorputzaren merkantilizazioa iragarkietan, komunikabideetan emakumeak *gauza hutsa* bihurtzea),...Beraz, indar politiko berri honen emakume feministen zein geure borrokan bidelagun izan nahi diren gizonen helburua da bazterkeria eta bortxakeria adierazpen oro desagerraraztea eta emakumeen aurkako bortxarik gabeko sistema berdinzaleen eraikuntzan borroka egitea.

Lan zaila da eta geure ahalegin guztiak beharko dituen epe luzeko prozesua izanik arlo ugari izango ditugu borrokatzeko: lege neurriak hobetu, indarkeria jasandako emakumeentzako kalitatezko arreta osoa, kohezuntza ereduak, komunikabideek emakumeen aurkako bortxakeria kultural eta sinbolikoan duten garrantziaz jabeaztea,.... Borrokarako eta lanerako esparru ugari, non geure erakundeak kokatu eta ekintzara jo beharko duen.

Muinera itzulita, emakume feministek 2008ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoari (genero indarkeriaren aurkako babes legeari) eta bere martxan jartzeari eginiko kritikak azaldu nahi ditugu. Puntu hauetan hobetu beharko litzateke geure ustez:

- Espainiar estatuko edozein tokitan bizi diren, landa eremuetan bizita ere edo egoera administratibo arautu gabeen egonda ere, eta indarkeria jasaten duten emakume guztiei arreta eta babes eskaintzeko giza baliabide edo baliabide materialak bermatzea.
- Polizia, justizia, laguntza eta osasun arloetako profesionalei dagokien heziketa ematea, bortxakeria bere osotasunean ulertu eta aurre egin ahal diezaioten.

- Genero indarkeriaren aurre zaintzea lantzea.
- Gaiarekin harremanduriko gizarte zein publiko mailako erakundeen elkarlana sustatzea.
- Justizia prozedurak bizkortzea, epaitegien espezializatzea ematea eta kasu hauen ardura duten epaileak sensibilizatzea.
- Zigor motak eta erasotzaileek zigorra betetzeko mailak baloratzea.

### **3.1.2.6.-Bosgarren ardatza:estatuaren laikotasuna.**

Estatu laikoa erakunde edo sinismen erlijiosoren eraginik edo esku-sartzerik jasaten ez duena da, hau da, eliza boterearekiko erakunde publikoen independentzia bermatzen duena, erlijioa pertsonen eremu pribatura, pertsonal eta taldekakoa, mugatuz.

Laikotasunak sinismen ezberdinen arteko elkarbitza hobea bermatzen du, sinistedunen interesei gizarte zibil osoaren interesa lehenesten baitie. Estatu laikoak giza eskubideekiko begirunea du helburu nagusizat, beraz, feminismoa eta laizismoa hertsiki loturik daude, biek defendatzen dituzte-eta giza eskubideak eta emakumeen askatasuna.

Erljio guztiek, bereziki monoteistek, emakumeek izan eta egin behar dutena arautu izan dute. Eliza Katolikoak, hain justu, emakumeei euren bizitza eta gorputzen gaineko erabakitze-eskubidea zein euren sexu askatasuna ukatzen die.

Azken urteetan Eliza Katolikoa bizi politikoan gero eta maizago ari da esku hartzen, bere arlotik kanpo dauden gaiei buruz iritziak ematen. Pertsona

bakoitzak izateko (ala ez izateko) eskubidea duen sinismenak gizarte osoari denona ez den erlijio moral bat inposatzearekin nahasten da.

Gainera, Eliza Katolikoak historikoki hainbat lehentasun edo pribilegio gozatu izan ditu, 1979an espainiar estatuak eta Vatikanok sinaturiko itunaren bitartez, zeina Konstituzioa indarrean sartu eta oso gutxira sinatu zen, erlijio katolikoa "beste funtsezko gaien ezaugarri berberetan" ikasteko hautazkotzat eskaini zen. Berriki, espainiar gobernuak Elizarekin adostu du errenta aitorpenean eginiko hamarrena %0,5etik %0,7ra igotzea. Ezin da ahaztu, gainera, hezkuntza katoliko pribatua, hezkuntza publikoko erlijio irakasleen soldata, apaizen soldata eta gizarte segurantza kostua eta zerga salbuespen bitartez lortzen duena. Hau guztia 1979an Vatikanok eta gobernu espainiarrak sinaturiko itunarekin berarekin dago kontraesanean, bertan "Eliza Katolikoak bere kabuz bere behar-izanak asebetetzeko helburua hartzen du bere gain" esaten zen eta.

Beraz, eraikitzen ari garen erakunde politiko berritik honakoak exijitzen ditugu:

- 1979ko espainiar estatuaren eta Vatikanoren arteko akordioak bertan behera uztea, akordiook 1953ko Konkordatu frankistaren oinordeko baitira eta erlijio katoliko semiofizial egiten baitute.
- Inolako elizarik ez finantzatzea diru publikoarekin.
- Hezkuntza publikotik erlijioak ateratzea, eskola laikoa sustatuz giza eskubideen eta askatasunen defentsa tresna ez sexista moduan.
- Eraikin edo ekitaldi publikoetatik erlijio sinboloak baztertzea.

Laburtuz, benetako estatu eta elizen arteko banaketa proposatzen dugu, arlo politiko eta zibila erlijiotik bereiziko dituen, non pertsonen eskubide eta



betebehar berdintasuna onartuko den, denen askatasuna bermatuta. Laikotasuna da, izan ere, gizarte plural batean ideia eta sinismen ezberdinak dituzten pertsonen elkarbizitza berma dezakeen esparru bakarra.

### **3.1.3. NAZIO AUZIA**

Agiri honen bitartez aurrera eraman ditugun eztabaidak zein nazio auziaren mahaian lorturiko akordioak bildu nahi izan ditugu. Bide honetan, iazko abenduaren 13an Bidebarrieta liburutegian aurkezturiko erakunde politiko baterako agiria oinarrizko erreferentzia izan zaigula adierazi behar dugu, batez ere fase honetako eztabaidagaiak mugatzeko zein euskal nazioa edo Euskal Herria ikusteko, ulertzeko eta aldarrikatzeko modu ezberdinak aztertzeko.

Mahaiak, sortu zenetik bertatik, bizi dugun kultura, hizkuntza eta politika esparruaren, Euskal Herriaren, definizio barneratzailea egin du, ahalik eta zabalena.

Ardura honi ekiteko aukeratu dugun lan-ildoak gaiak ardatzen arabera sailkatzea izan da. Ardatz hauetan nazio auziak eguneroko euskal politikan sortzen duen eztabaidarako balizko jarrerak atera dira, baita planteamendu horiei begira lan egin nahi duen erakunde politikoaren egiturarako moldaketa.

Testuinguruan jartzeko, Euskal Herria kontzeptuari eta bertan elkarbizitzan izan diren ezker ezberdinei buruzko hausnarketa historikotik abiatu gara. Eztabaida hau oso baliagarri izan zaigu lortu ditugun adostasun zehatzak mahai gaineratu ahal izateko; bai linea politiko berri bat zehazteko, bai eraikitzen ari garen erakunde politikorako.

Zentzu honetan, geure hausnarketaren hastapenean ideia bat dugu: geure ustez, euskal ezker izenarekin ezagutzen duguna (hots euskal biztanleriaren autodeterminazio eskubidearen aldeko ezker aktiboa) ez da betidanik izan. Aitzitik, hasierako irudian espainiar estatutik etorritako jendearen indarrak bultzaturiko ezker dugu, euskal lurrean sorturiko esparru estataleko ezker. Hortik sortzen dira PSOE eta PCE. Bertan bizi zirenen eta etorri zirenen arteko nahasketaren testuinguruan –pixkanaka-pixkanaka elkarren errealitate

sozial eta kulturalaz jabetu ostean- XX. mende hasierako ezkerrek klase zein nazio kontzeptuei buruz zituen ideia aldaezinak moldatzen hasi ziren.

PCEko sektore batzuen saiakera apalak gorabehera (hauek ere arlo teorikora mugatuak, SESBn gai honen inguruan azalduriko eztabaiden harira sortuak batez ere) ezin dugu espainiar ezkerretik bereizirik euskal ezkerrez hitz egin, gaur egun ulertzen dugun moduan, XX. mendeko bigarren erdialdera arte. Garai honetan garatzen dira ezker muturreko hainbat aukera, lehendiko beste mugimenduekin elkar lanean, diktadura faxistaren aurkako borrokan lotzen direnak.

Ezkerra eta nazio auziaren harremanaren ikuspegi historiko honek sarrera zentzua besterik ez du, bistan da gaiaren gaineko hausnarketa hemen azaldurikoa baino askoz luzeagoa izan dela. Ildo honetan, bere burua ezkertiarzat duen edozein indarrek gai honi buruz eginiko hausnarketak eta une historiko jakinetan harturiko erabakiak aztertu behar dira.

Baina, zalantzarik gabe, ideia nagusitzat hartu dugu, *euskal ezker nazionalaren* aldeko aldarria, *barneratzailea eta ez-baztertzaila, internazionalista, subiranista, eta zeharo demokratikoa* izango dena, esperientzia zahar batzuen lanari berrekinez –paradigma berri batetik, baina- *nazio eraikuntza eta eraikuntza soziala uztarrezinak direlako ideia faltsuarekin* amaitzeko.

Hala, euskal internazionalista izan daitekeela aldarrikatzen dugu, geure gizarte edo herriaren antolatzea defendatuz, era berean *ekintzan eta ekintzarako langileen elkarlanaren* alde eginda. Ez dugu, ordea, bat egiten izaera organikoko batasun nazional ikuspegiarekin, zeinak nazio eta gizarte eraikuntzaren arteko harremana ukatzen duen. Ezin Euskal Herria egungo irizpideen arabera eraiki, egungo mendekotasun eta baztertze sistemiei jaramonik egin gabe. Gutxieneko batzuetatik abiatuta, borroka eta eraldaketa

subjektuak uztartuko dituen proposamen barneratzaile batek soilik egin ahalko du aurrera norabide horretan.

Beraz, oinarri hauetatik abiatuta, 7 estrategia ardatz ezarri ditugu auzi nazioaren ikuspegitik Euskal Herrian sortu nahi dugun ezkerreko gauzatzeko.

### **3.1.3.1. Nazio izaera eta ezkerreko eragina honen osaketan**

- *Euskal izaera berezkoa* naturaltasunez hartuko duen erakunde politiko baten alde egiten dugu, baina *nazio esparruak markaturiko mugetara soilik lotu gabe*. Euskal izaera, noski, errealitate dinamiko eta irekiztat dugu, etengabeko eraldaketan dagoena.
- Beharrezkoa deritzogu *Euskal Herriaren nazio osotasunerako nazio alderdi egitura* hartzeari, nahiz eta jakitun garen Hegoalden (EAE eta Nafarroa) zein Iparralden kontzientzia eta hedatze maila ezberdinak ditugula.
- Munduari ateak ondo zabalik begiratuko dion erakundea nahi dugu, garenetik eta ikuspegi independente batetik gertueneko errealitateetako -espainiar eta frantziar estatuak- erakundeekin elkarlan bideak jorratzeko gai izango dena, egitarau komunek horretarako bide ematen duten gaitetan.
- Nahi dugun erakundeak, Euskal Herritik, ezker europar baten sorreran parte hartuko luke, egungo egitura eta dinamikak gaitutuko dituen ezkerreko, aspaldian Bloco eta LCR (egun NPA) egiten ari diren moduan.

### **3.1.3.2 Erakunde politikoaren jarrera nazio eraikuntza, nortasuna eta herritargoaren inguruko eztabaidan**

- Nazio nortasuna eta kontzientzia politikoak ez doaz beti eskutik. *Izatetik izan behar izatera* jauzi egitearen aldeko gara, hau da, egun garen eta osatzen dugun errealitate anitzaz jabetu behar dugu, izan nahi dugunaren gauzaketan aurrera egiteko.
- Euskal herriaren eskubide politikoaren defentsan aurreratu beharra dugu, euren gobernatzeko moduaren erabaki gaitasuna ardatz izanda. Hala, nazio eraikuntza era dinamikoan ulertzen dugu, inoren eskubideei eraso egin gabe, baina aurrez ezarritako muga edo lubaki gaindiezinik gabe bere garapenean –are gutxiago jarrera minoritarioen aldetik-. Orobat, hasiera-hasieratik uko egin behar zaio gutxiengoekiko tolerantzia-ezari.
- *Barneratzailea eta ez-baztertzat hartzea den euskal nortasun* batekiko konpromisoa. Nortasun berri eta eguneratua, ezin dena nortasun menperatzaile baten ukapen soilean –kasu honetan espainiarra (Espainiar Konstituzioa 2., 8., 15.,...art.)- oinarritu.
- *Funts politikoko nortasun berri* batekiko konpromisoa. Honek euskal kultur izaera ez ezik geurean dauden eta egon daitezkeen beste kultur izaerak hartzen ditu barne; eta herritarren arteko taldekako konpromisoa, zeinak euskal herritartasunean eta bere ondoriozko autogobernurako eskubidean oinarritutako nortasun politiko komun baten bidean jarriko gaituen.

Laburtuz, *euskal nazio nortasun politiko berria* nahi dugu, *barneratzailea eta ez baztertzat hartzea, komunitate politikoaren aldarrikatutako duena etnikoaren aurretik.*

### **3.1.3.3. Euskal Herria nazio kultural eta hizkuntz komunitate gisan**

- Euskal kulturaren garapen osoaren eta euskarak hizkuntza ofizial moduan duen balioaren erabat alde gaude. Honek nahitaez dakar ekintza positibo ekimenak behar izatea hizkuntza gutxituaren – euskararen- alde, beste hizkuntza ofizialaren –gazteleraren- aurretik.
- Erabat arbuiatzen ditugu, balizko aukeratze eskubide baten aitzakiapean, *euskararen aurrerapen eta garatzeari oztopo eta trabak jartzen dizkioten mugimenduak*, bai gobernutik etorritakoak zein beste esparruetakoak.
- *Euskal kulturaren sendotzea eta berau lortzeko eskuragarritasun osoa*, modu moderno, natural eta eraginkorrean herriaren egunerokotasunean txertatuz, *erakundeek batzuetan euskal kulturaren gainean zabaltzen duten irudi arkaiko eta antzinatiko hori saihestuz.*
- *Euskal gizartearen mailakako euskalduntzea* lantzea, euskararen ezagutza maila guztietan helburu; ezagutzen ez dutenen eskutan ikasteko eta ezagutzeko tresnak jarriz.

Laburtuz, Euskal Herria kultural eta linguistikoaren osagaiak baieztatzeko, mailakako euskalduntzearen apustutik, euskal kultura egun daukan erabilera sozialetik harago eramateko eguneratuz.

### **3.1.3.4. Nazioaren eraikuntza politikoa. Autodeterminazio edo erabakitze eskubidea.**

- Erabat autodeterministatzat aldarrikatzen dugu geure burua; beraz, herri, gizarte edo nazio honek zer izan nahi duen eta beste herri edo

nazioekin zer harreman izan libreki eta demokratikoki aukeratu ahal izatearen alde gaude.

- Nazioaren ikuspegi zibil batetik, naziotzat dugu geure burua, eta burujabe nahi dugu izan, gu geu izanda uneoro geure auto-gobernuaren mugak erabakiko dituztenak.
- Espainiar Konstituzioak geure garapena oztopatu eta mugatzean duen eragina salatu egin behar da. Ez bada berau irekiago izan dadin eraldatzen, geure jarrerak bere aurkakoa izan behar du nahitaez.
- *Autonomia estatutuak edo foru hobetzeak* ezin dira inolaz geure herriaren garapenerako nahitaezko helmuga edo azken muga izan; autogobernu maila onartzen badute ere, harago aurreratzeko bideak mozten baitituzte subiranotasun politikoa estatu erakundeetan uztean. Beraz, ez dugu uste erakunde berriak *neoestatutismoan* geratu behar dutenik; baizik eta uneoro geure erabaki eskubidea onartuko duen berdinen arteko ituna egin behar da espainiar estatuarekin.
- Ezkerrekoak omen diren planteamenduetatik autodeterminazio eskubidea ukatu nahi duten erakunde eta pertsonen aurrean kokatu behar dugu, eta euren planteamenduak dialektikoki eztabaidatu. Herri bat menperatzen duen beste herri bat ezin baita herri librea izan.

Autodeterminazioaren alde egiten dugun aldarrikapen argi eta garbia, eskubide honen aldeko jarrerak egitura baten edo bestearen alde egiteko loturarik gabekoa da. Herri honekiko konpromiso erabat demokratiko baten isla da, edozein ikuspegi nazionalista edo abertzaletik urrun dago, beraz.

### **3.1.3.5. Nazio eraikuntza politikoa. Subiranotasun politikoaren aldarrikapena.**

- Eraikitzen ari garen erakundeak *izaera subiranista* behar du izan. Hau da, autogobernua, guk jarritako mugekin kanpoko esku-sartzerik gabe. Beste hitzetan esanda, *geure eskumen guztien inguruan erabakitzeko gaitasuna izatea*.
- *Berezko botere politikoa*, uneoro herritargoaren kontrolpean, izateko gaitasuna aldarrikatu nahi dugu.
- Egun dugun une historikoari men eginez eta defendatzen dugun nazio subiranotasunetik abiatuta, euskal biztanleriak demokratikoki erabaki behar du inguruko beste herri eta nazioekin zer nolako harreman eta loturak izango dituen, baina ezin ditugu herri horiekin egun badauden harremanak ahaztu.
- Subiranotasunaren aldeko geure apustuak helburutzat du aukera zehatz batetik entzuten ohituta gauden defentsak gainditzea, geure ustez hartu beharreko erabakiak defendatzen dugun klaseen interesen arabera behar du izan; etorkizunean erabakitzeko eskubidearen jardunari uko egin gabe.
- Esandakoen harira, sortu nahi dugun erakundea *politika eta erakunde osatzearen inguruan dituzten zilegizko asmoei subiranotasunaren jardun demokratikoa lehenesten dioten ezkerreko pertsona eta taldeen bilgune* izan daiteke eta hala izan nahi dugu.

Beste hitzetan, geure asmoa federalistek, konfederalistek, independentistek zein autonomistek, nahi izanez gero, tokia izango duten erakundea osatzea da, herriarengan jarririk subiranotasunaren kontrola eta erabakiak hartzeko erritmoa.

### **3.1.3.6. Lurraldetasuna**



- Euskal Herria osatzen duten lurraldeen bat egite politikoa aldarrikatu nahi dugu, baina egungo errealitatearen jabetzetik eta abertzaleek dituztenak ez diren posizio batzuetatik.
- Alde ezberdinen nahian oinarrituriko batasuna nahi dugu, egun dauden esparruen arteko errespetutik. Egungo zatikatze eta uko egiteari aurre egiteko aukera ona izan daiteke lurralde bat egite hori *kondefederalismo asimetrikoan* oinarritzea.
- *Herri kontsulta* oinarri izango duen prozesu demokratikoa aldarrikatu nahi dugu euskal lurralde bakoitzean berez eta besteen esku-sartzerik gabe –gai estrategiko gehienekin egiten dugun moduan, erroko demokrazia mahaiak kontsulta eta erreferendumen alde egin baitu-.
- Eraikitzen ari garen erakundeak herrialde osoan ordezkaritza izatea izan behar du helburu, egungo arazoek jakitun izanda eta EAEko eztabaida nagusi ez izateko erakunde sistema malguak erabilita.

Defendatzen dugun lurraldetasuna aldean borondatek eta berezko erritmoei men eginda bakarrik lor daiteke.

### **3.1.3.7. ETA eta estatuaren indarkeriak desitxuraturiko nazio eraikuntza**

- ETARI desagertzea eskatzen diogu arrazoi etiko, demokratiko eta politikoak tarteko.
- Ekintza politikorako tresna demokratikoen garrantzia azpimarratu nahi dugu, defendaturiko helburuari zilegitasuna ematen dio helburuak lortzeko indarkeriak helburuon beron irudia okertzeko arriskua duen bitartean.

- Geure iritziz desobedientzia zibilaren tresnak dira egokienak estatu espainolak bere gobernu ezberdinen eskutik erabili duen errepresio eta askatasun murrizteari aurre egiteko.
- ETArekin egin moduan, tinkoki salatu behar dugu ETAREN indarkeriaren aitzakiapean abian jarritako salbuespen legeria osoa: terrorismoaren aurkako legea, alderdi legea, zigor-adinaren murriztea, kondena pilaketa,...
- Adosturiko konponbideetatik abiatuta, bidezko bake baten alde gaude, bidezko bakeak bakarrik dira-eta egonkor.
- Keinuak garrantzitsu dira beste aldea akordio-mahaira bultzatzeko, zentzu honetan ETAREN indarkeriaren etetea garrantzitsua den moduan, berdin gertatuko litzateke presoek hurbilketarekin.
- Irlandak berriki erakutsi digu zeintzuk izan daitezkeen negoziaketa prozesu baten funtsak. Edozein modutan, herritargoa akordioaren muina bihurtuko duen prozesua behar du izan. Ezin da herriaren bizkarrera negoziaketa bat eramanez, gero herriak informaziorik jaso gabe zapuztuko dena edo euskal gizarteak emandakoa baino ordezkari handiagoa hartu nahi duten taldeek soilik burutu dutelako.

### 3.1.4. INTERNAZIONALISMOA

#### 3.1.4.1. Sarrera

Internazionalismoari buruzko mahaiak bi bilera emankor soilik burutu ditu; beraz, osaketaren zatirik handiena partaideek eginiko eta email bitartez zabalduriko proposamenen bitartez egin da.

Abiatze proposamena hiru lan-ildotan banatzen zen hasieran:

- Mundu mailako gobernu sozialista eraikitzea
- Internazional sozialista berria eraikitzea
- Europako erakunde sozialisten sarea eraikitzea.

Azkenik, eztabaiden muin nagusia europar ardatza izan da, hau baita Alternatibaren geografia esparrua, baina beste bi ardatzi uko egin gabe, izan ere, ardatzok geure ustez utziezinak dira eta europar esparruak aurrera egin heinean beste bi ardatzek ere aurrera egingo dute.

Honetaz gain, Alternatibaren joera internazionalista gidatuko duten irizpide nagusiei buruz ere eztabaidatu da, baita beste gaiekiko zeharkako lotura duten puntuak.

Europako ardatzari dagokionean, egungo EB <sup>6</sup> ereduaren analisitik abiatu gara, neoliberalismoranzko joerak eta demokrazia urritasunak markatzen duten egungo europar proposamenari eginiko kritikatik. Egoera honen aurrean, ezinbestekoa da *Europa berrosatzea* irizpide sozialistaren bidetik, baldintza eta ideia berrien argitara, Alternatibak egungo mundu-sistemarekiko defendatzen duen erroko alternatibaren harira. Lortuko bada, bidea *europar esparruko erakunde sozialisten saretzea* izango da.

---

<sup>6</sup> Esan beharrik ez dago EB honek Europar Batasunari egiten diola erreferentzia

Hala, egungo europar eraikuntzari diogun arbuioa aztertu baino lehen, pertsonen eta herrien eskubideen aldeko Europa osatzeko genituen aurrebaldintza eta irizpide nagusiak azalduko ditugu:

- Herri eta kulturen internazionalismoa, pertsona eta herrien ekimenetik jaioa, estatu-nazioan mugatzen edo itotzen ez dena. Hau ezin da mugarri izan internazionalismoa garatzen duten subjektuentzat, ez eta aldarrikatzen diren gai edo ekintzentzat.
- Internazionalismoak giza eskubideetan oinarritu behar du, multzo unibertsal eta zatiez in moduan ulerturiko eskubide sorta batean, zeinak giza eskubideen hiru belaunaldiak hartuko dituen eta zentzu orobarneratzailea eta unibertsala izango duen.
- Herritargo unibertsal ideia da Alternatibaren giza kontzeptua eusten duen oinarria. Ideia honen arabera gizaki guztiok gara eskubide eta arduren jabe gizaki izate hutsagatik. Beraz, ezin zaio inori eskubiderik ukatu inolako jatorri, arraza, sexu, etnia edo naziotasun arrazoiengatik, eta pertsona oro gara erantzule gizaki guztiek eskubide hauek eskura izan ditzaten.
- Alternatiba erakunde politikoa denez, bere jarduera internazionalistak *beste erakunde politikoekin saretzea* izango du ardatz, gizarte mugimendu eta beste motako ekimenekin elkarlana baztertu gabe, baina ekintzarako elkarlanak politika arloko indarrak lehenetsiko ditu.

### **3.1.4.2. Europar erakunde sozialisten sarea eraikitzea**

#### **3.1.4.2.1. Egun EBn indarrean den ereduaren analisia**

Europar eraikuntzaren neoliberalismoranzko joera: europar egitasmoaren zentzu-aldaketa neoliberala 70ko hamarkada eta 80.ko hasierako ekonomia eta energia krisien ondoren hasi zen, finantza elitek eta nazioarteko enpresa nagusiek Bruselari merkatu eta moneta bakarraren ezarpena eskatu ziotenean, AEBk eta Britainia Handiak aldarrikaturiko globalizazio neoliberalaren harira. 90.ko hamarkadan joera neoliberal horrek aurrera eta gora egin zuen, batez ere 2000ko Lisboako Estrategiatik aurrera. Gizarte eta lurralde ezberdintasun itzelak sortuko dituen hazkunde ekonomikoa sortu zen horrela, metropoli eskualde handiak nagusi ziren prozesu batean, gero eta kulturantzagoak izaki EB kanpoko biztanlearekin eta gero eta biztanleria gutxiagorekin geratu ziren eta agroindustria handien mende zeuden landa periferiekin arazoak sortuz.

Bestetik, finantza eta enpresa elite europarrek, moneta nazionala nagusitasun politiko eta militarren babesarekin indartzearen strategiari jarraiki, euroa babestuko duen botere politiko eta militarra lortzea dute helburu, europar egitasmoaren sakontze eta zabaltze prozesu baten bitartez. Sakontze hori, estatuak euren atzerri politika, segurtasuna, justizia eta barne saila eskumenei uko egitean datzana, interes nazional ezberdinek eta beto eskubideak oztopatzen zuen. Zabaltzea merkatuaren beraren zabaltzean eta lan-esku gaitu berri eta merkea lortzeko aukeran oinarritzen da. Bi prozesuak une berean eman dira eta herrialde berriak sartzearekin batera estatu kideen beto eskubidea galdu da eta erabakiak hartzeko bide berriak ezarri dira.

Joera neoliberal hauek europar eraikitzean izan dituzten ondorioak sakonak eta ugariak izan arren, merezi du 3 arlo bereziki aipatzea: merkatu politika bateratua, eskubide sozialak eta etorrera eta asilo politika europarra.

Merkatu politikari dagokionean, MMEren (Munduko Merkataritza Erakundea, OMC gazteleraz) barneko elkarrizketa aldeanitzak geldotu zirenetik, EBk Elkartze Ekonomikorako Akordioan (EPA ingeleraz) bitartez aldebiko elkarrizketaren alde egin du nazioarteko enpresa europarrei komeni zaizkien

inbertsio arauak ezartzera deituak, baliabideen eskuragarritasuna liberalizaturik, erosketa publikoak baldintzatuz eta lan edo ingurugiro standarrak murriztuz. EBk dio akordio hauek *kideen* artean eginak direla eta elkarkidetzan eta parte hartzean oinarriturik daudela; baina akordioon ardatz nagusia arantzelen murrizketa da, baina alde ezberdinen arteko merkatu desorekak ezarpen huts bihurtzen ditu. Arantzel-tasak kentzeak txirotutako herrien giza garapena finantzatzea oztopatzen du eta akordioek herri hauei jabetza intelektual eskubideak betetzera behartzen dituenek, besteak beste, botika generikoak inportatzea debekatzen die. Honetaz gain, akordio hauek erreximen autoritario batzuen irudi sinbolikoa eta politikoa indartzen lagun dute, EBren "kide" bihurtu baitira, giza eskubideen gaia bazterrera utzirik.

Eskubide sozialei dagokienez, EBren politikek babes sozialerako sistemak murriztu ohi dituzte. Lisboako egitarauak ekonomia eredu liberaletan oinarrituriko modernizazioa proposatu du, gastu publikoa oinarri. Orobat, kontinente mailako merkatuen liberalizazioaren alde egiteak enpresa publiko nagusien pribatizazioa etengabea ekarri du. Erakunde bateratuek Lan Legeriaren berritzea aldarrikatu izan dute, *malgusegurtasunaren* kontzeptu korapilatsua aintzat hartuta, zeinak malgutasuna- hots, prekarietatea- eta segurtasuna uztartu nahi dituen. Hala, lan malgutasun handiagoa –lan kontratu malguagoak eta kaleratzeko erraztasun handiagoak- segurtasun sozial handiagoarekin –lan-gabezia laguntza altuagoak, hezkuntza handiagoa eta lanerako laguntzak estatutik- nahi dituzte batera. Beraz bi ertzeko politika da: prekarietatea handitu eta ongizate estatua indartu. Eredu hau modu desorekatuan garatzeko arriskua begibistakoa da, hau da, lan prekarietatearen igok burutzea segurtasun sozialeko neurri eskas batzuk hartzearen aitzakiapean. Danimarkan jaiotako eredu hau zerga altuak eta iruzur fiskal eskasa dituen testuinguruan soilik da bideragarria, baina oso zailki heda daiteke Europar Batasun osora. Logika liberal honen adibide ditugu asteko 65 lan orduen zuzentarauan eta hain arbuio handia jaso zuen Bolkstein Zuzentarauan.

Immigrazioari lotuta, Etorrera eta Asiloari buruzko Europako Ituna *hautatutako immigrazioaren* alde ageri d; hots, batasun kanpoko herrialdeetatik datorren giza baliabide gaituei atek irekitzea etorri nahi duten besteei atek itxita. Etekin nahikeriaz jositako ideia honek, zeina EBren eta bere lan merkatuaren interesi soilik begira egina den, txirotutako herrialdeei kalte handia dakarkie. Aipatu behar ere bizileku eskubiderik gabeko pertsonal egozte, hegaldi bateratuak sortuta eta taldekako erregularizazioei atek itxita, bisa biometrikoaren ezarpena eta mugak ikuskatzeko erakunde europarraren indartzea. Egozte hauek, gainera, tarteko herrialdeetara egin daitezke eta ez nahitaez jatorrizkora eta familia biltzeari mugak jarri zaizkio, familia bizitzaren aldeko nazioarteko itunek esandakoaren aurka. Egozte zuzentarauak etorkin irregularrak 18 hileko epera arte atxilotzea baimentzen du arau administratiboak tarteko, adingabeak atxilotzea eta Europara itzultzeko 5 urteko debekua.

Asilo politiken bateratzeari buruz, zeina 2012rako zegoen aurreikusia, bere gauzapena immigrazioaren kudeaketa hertsitzaile batean egingo den beldurra dago, mugen kontrolean eta agiririk gabeko pertsonen jarraipenean oinarrituko delakoan, eta ez dago batere argi asilo eskubide hori zenbatean bermatuko den balizko eskatzaileak ezin badira geure mugetara gerturatu EB inguruko herrialdeen kanporatze prozesua dela eta.

EBren demokrazia eskasia: europar eraiketak gero eta nabariagoa den zilegitasun eza du. 80ko hamarkadaren erdialdera arte, ongizate estatuak giza isladun kapitalismoa garatu zuen, enplegu osoko egoera batean, nahiz era berean emakumeak hein batean lan merkatutik kanpo uzten zituen, eta honi esker integrazio europarrak irudi on samarra zuen. Neoliberalismorako aldaketarekin eta Brusela gerora estatu soziala deusezteko erabili dituen eskumenak hartzen hasi zenetik, Europar Batasunarekiko arbuioak gora egin du herritarren artean. Honi aurre egin nahian, imaginario elkarbanatu baten gabeziari erantzuteko bestearekiko beldurra aurkeztu digute, barruko zein

kanpokoekiko, eta herritarrei europar eraketa barne eta kanpo segurtasunaren berme onenatzat aurkeztu zaie, zilegitasuna lortu nahian.

EBren globalizazioko polizia onaren irudi hori zatikatu egiten da EBren ekonomi interesak ezartzeko, inguruko natur baliabideak eskuratzeko eta moneta eta finantza konfiantza mantentzeko indar politiko-militar handiagoa bilatzen doan heinean. Lerrokatze militarista honi europar biztanleriak uko egiten dionez, "botere malgu" baten ideia sinestarazi nahi digute, arrazoi humanitarioetan oinarritzen omen dena, onargarriagoa gerta dakigun.

Bestetik, europar erakundeen demokrazia eskasia gora ari da: batasuneko agintariek aurrerapauso demokratikotzat bazuten Europar Konstituzioa erreferendum bitartez onartu eta Konbentzio -ustez parte hartzailea- formatu bidez egina izana, bere porrota ikusita ez dute zalantzarik izan atzera egin eta gobernuen arteko konferentzia ilunetara itzultzeko Lisboako Ituna osatzean. Irlandar ezetzaren ostean, berri bat diseinatu zen, baiezkoak irabazi arte.

Testuinguru honetan, ez da harritzekoa europar herritarrek euren burua eraiketa prozesu honetatik gero eta urrunago ikustea eta azken finean prozesu hau zein nortasunen helburutan ari den garatzen galdetzea euren buruei.

Europar nortasunaren bilaketa: europar herrien aniztasunak ez du baimentzen kultura edo erlijioan osaturiko europar nortasuna osatzea, hau dela eta maiz nortasun honen esanguratsuena balore batzuei lotua zitzaiola aipatu izan da: europar eredu soziala, giza eskubideen defentsa, aniztasunarekiko begirunea, tolerantzia, elkartasuna, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna, eskubide estatua,...

Idea honen izaera eurozentriarrearrean geratu gabe, argi dago egitismo europarraren egitarau hau aipatu nortasunarekin kontraesanean dagoela eta



eredu honen bideragarritasuna beraxe birrinduz bermatu nahi delako paradoxa dugu aurrean. Gehiago dirudi merkatu logikan eta "bestearekiko" beldurrean oinarrituriko izaera bat egiteko saiakera, "Europa Gotorlekua" irudikatuz.

Europar egitasmoaren arbuioa: neoliberalismo eta segurtasuneranzko lerrokatzeak europar askoren arbuioa eragin du. Halere, jarrera hauek ugariak eta anitzak dira eta erreformatik deusezterainoko jarrerak dituzte, bateratze egitasmoaren berrosatzea tarteko.

Europar Lege Biltzarrean ordezkaturiko ezkerria "Europa gehiago" behar delakoan dago Europa soziala lortuko bada, estatu nazioak ahuldu gabe, hauek baitira kapitalari aurre egin diezaioketenak eta euren ustez nazio esparrua da batez ere bizitza politiko eta soziala zein klase borroka ematen den esparrua.

Indar politiko antikapitalistek uste dute Europaren berrosatzea eman behar dela, ikuspegi federaletik, honek eduki soziala, ingurugiroari lotua eta erroko demokraziaren barnekoa lor dezan.

Azkenik, beste batzuk Europaren eraiketa atzera botatzearen aldeko dira, aurrekoek ez bezala, uko egin diote estatu-gaundiko egiturak egiteari, nahitaez herritarrengandik aldentu eta urrutiratuko direla eta kontrol demokratikoa zailduko dela uste baitute, ekonomia eta finantza botere egituren aurrean moldagarriagoak izango direlakoan.

#### **3.1.4.2.2. Erakunde sozialisten saretzea European**

Saretze hau osatzeko honakoak izan behar ditugu kontuan:

- Garrantzitsua da europar eraiketaren inguruko berezko jarrera izatea eta guk *EBren berrosatzearen* alde egin dugu. Lerrokatze neoliberalak sorturiko arbuioari jaramonik egin gabe, finantza eliteek euren

egitasmoa ezarri dute; hori dela eta premiazkoa da EBren berrosatzea helburu duten *indar politikoekin aliantza estruktural eta egonkorra* osatzea, komuneko programarekin.

- Programa honek *europar eraiketa eredu*a proposatu beharko luke, *federalismoan, sozialismoa eta parte hartze demokratikoan* oinarrituko dena. Europar egitasmoa, bai barrura bai kanpora begira herritartasun orokorrean eta giza eskubideetan behar du oinarritu.
- Aipatu moduan, saretzea erakunde politikoekin egin behar da, adosturiko egitarau politikoak, ekimenak eta alternatiba proposamenak oinarri izanda. Azpimarratu behar da *baterako ekintzak ikuspegianitzeko egitarauetan oinarritu behar dutela*, hau da, Alternatibarentzat ukaezin diren aspektuak bil ditzatela eta saretzeak ez dezala Alternatibak proposaturiko erakundetze demokratikoa bazterrarazi. *Europar Ezker Antikapitalistaren Konferentziak*, non europar alderdi politiko ugarik hartu duten parte, kide logiko eta berezkoa dirudi saretze honetan.
- Ez da baztertu behar Europar Foro Sozialesan eta EBren gaiekin loturiko beste nazioarteko mugimenduetan parte hartzen duten gizarte mugimenduekin koordinatzea, Via Campesina kasu. Gizarte mugimenduek Alternatiba eta kideguriko indarren egitarauak osatuko dituzten analisi interesgarriak egin ditzakete.

## 3.1.5. EKOLOGIA

### 3.1.5.1. Ekonomia ekologikorako oinarriak

Azken hamarkadetan natur baliabideen kontsumoak gora egin du, sistema sozioekonomikoarentzat arrisku larria bihurtu izateraino, sortzen dituen ingurugiro arazoengatik zein baliabideen euren agorpena dela eta. Ekonomia-finantza krisia eta egungo arazo sozialak (gerra, gosete,...) bizi dugun ekologia hondatzearen isla dira, zibilizazioa historian ikusi ez den moduko amildegi ertzean jarri gaituen hondatzearena.

Ildo honetan, kapitalismoaren eta industria iraultzatik sortutako produkzio indarren hazkundera energia ugari eta merkeari esker izan da. Energia honen agorpenak errealitate termodinamiko gordinera itzuli beharra dakarkigu: gizakiak gai izan beharko du energia berriztagarriek eskaintzen dioten energia ardatz hartuta antolatzeko. Krisia honek aldaketarako aukera paregabea ematen digu, egoera arruntean ezinezkoa zena posible bihurtzen baita bizi garenekoa bezalako ezohiko garaietan.

Modu honetan, mendebaldeko zibilizazioaren jasangarritasun<sup>7</sup> eza birbideratzeak indarrean den eredu sozio-ekonomikoa, ekonomia hazkunde etengabe eta mugagabea eta kontsumo irrikan oinarritua dena, arazoaren muintzat hartzea eskatzen du. Natur baliabideen ustiapenak ez du parekorik izan historian zehar: XX mendeko bigarren erdian aurreko belaunaldi guztiek baino baliabide gehiago kontsumitu dugu. Geurea da bere burua naturatik at, naturaren jabe, ikusi duen lehen zibilizazioa. Egungo gizarteak aurrerapena teknologiaren bitartez natura menderatzearekin lotzen du. Lehiak eraginkortasuna adierazi nahi du eta ongizateak kontsumoa. Hala ere, ikuspegi

---

<sup>7</sup> "Jasangarritasun" hitza erabili dugu gaztelerazko "sostenibilidad" hitzaren ordez, jatorrizko esanahia hobeto hartzen duelakoan, nahiz orokorrean "iraunkortasuna" hitza gomendatu ohi den.

honek sortu duen mundu mailako ingurugiro krisiak irizpide hauek gezurtatu ditu eta natura eta gizakiaren arteko lotura birpentsarazi digu: *ekonomia ekologiratu* behar da, natura ekonomiratu beharrean. Modu honetan soilik lortuko da gizakia eta naturaren, ekonomiaren eta ekologiaren eta ongizatearen eta ingurugiroaren arteko oreka.

Beharrezkoa da, beraz, natur sistemek ezartzen dizkiguten mugei begirunea izatea; bai baliabideak eskuratzekoan, bai hondakinak asimilatzeko naturak duen gaitasunari dagokionean. Paradigma berri honen arabera natur sistemaren iraupena zehazten duten baldintzek berebiziko garrantzia hartzen dute, hauek gabe ez baitago inolako eredu sozial edo ekonomikorik eraikitzerik. Beste hitzetan, etorkizunak jasangarri izan beharko du, hala izan ezean ez bada etorkizunik izango. Jasangarritasuna gizarte justu eta berdinzaleago batera iristeko nahitaezko baldintza da.

Esandakoaren ondorioz, gizarte eredu berriak ekologia jasangarritasuna ekintza irizpidetzat izan behar du. Honek loturik dakar printzipio biotiko eta abiotikoak betetzea, ekonomia zikliko baten testuinguruan non materialak errekurtso biltegietatik –airea, lurra eta ura- hartu eta berriz ere itzuliko diren eta eguzki energiak emango dion indarra prozesuari. Hala, giza garapen jasangarriak eskatzen du:

1. Ingurugiroa babestea eta baliabideak modu jasangarriak kudeatzeko planifikazio egokiak egitea.
2. Berezko natur eta energia baliabideetatik abiatutako garapen autokonzentratua bultzatzea. Honek beste helburu batzuk ere bermatuko lituzke: elikadura subiranotasuna, tokian tokikoaren garapena, zentralizazio-eza, buruaskitasuna eta ahultasun edo mendekotasun txikiagoa.
3. Sistema sozioekonomikoen baitan aniztasuna, eboluzioa, autoantolaketa, buruaskitasuna, zentralizazio-eza eta kooperazioa

sustatzea. Helburu honetarako erabakiak hartzeko parte hartzea bermatu behar da.

4. Materialen zikloa itxi, ekosistema naturalek hondakin isurkiak birzikla ditzaten (beste era batera esanda, termino biofisikoetan egoera higiezina).
5. Arrantza, ehiza eta nekazaritzaren moduko baliabide berriztagarriak erabiltzea ekologia sistemek baliabide horiek etorkizunean eskaintzeko aukera murriztu gabe.
6. Baliabide berriztaezinen erabilera etorkizuneko beharren eta aukerako baliabideen arabera mugatzea.
7. Egungo baliabideen erabilera eraginkortasun (produktu unitateko baliabide ustiapena murriztea) eta askitasun (baliabideen kontsumo orokorra murriztea) irizpideen arabera mugatzea.
8. Arazoen aurpegi anitzeko ikuspegia erabiltzea, ekologia, gizarte, ekonomia, politika eta kultura irizpideei men eginda.

Azkenik, sistema sozioekonomikoak bi printzipo handiren menpean antolatu behar dira: *ardura printzipioa eta ingurugiroaren nagusitasun printzipioa*. Ardura printzipioak ekintza zehatz batek gizartean edo ingurugiroan sortuko dituen ondorioen ziurtasun zientifikorik egon ezean babes neurriak ezartzea defendatzen du. Ingurugiroaren nagusitasun printzipioaren arabera, lurraren jabetza pribatuaren ordeztu beraren erabilera eskubidea ezarri behar da, hots, belaunaldi bakoitzak natur baliabide eta zerbitzuak erabiltzeko eskubidea du.

Honela, eredu sozioekonomiko berria zein politikoa bera funtsezko oinarri izango dituen irizpide hauei egokitu behar zaizkio, ingurugiroa hondatzea dakarten egungo parametroak alde batera utzita.

Izan ere, ingurugiroa hondatze honek izaera antropogenikoa du, baina gainera arazo sistemikoa da. Lehiakortasun nahikeria, epe motzeko etekinak

bilatzea, jabetza pribatua, lan indarraren merkaturatzea, globalizazioa,... zeinak merkatu ekonomiaren funtzionamendu ezaugarri diren, berebiziko eragileak dira naturaren birrintzean, berdintasun-ezan eta gizartea zatiketan. Jasangarritasunerako bideak nahitaezkoa da egungo eredutik aurretik aipatu ditugun printzipioetan oinarrituriko eredu berri batera igarotzea, non berdintasun, justizia eta ongizate helburuak Naturaren mugen arabera baliabide ustiapenarekin lotuko diren. Modu honetan soilik utziko dio ekonomia sistemak arazoaren muin izateari, hala bakarrik pasako da konponbidea izatera. Natur esparrua oso lotua zaio esparru sozialari, beraz, baten hondatzea bestea ekartzen du eta alderantziz. Egungo joera gainditzeko gizakia naturaren jabe izan beharrean bere partaide dela eta giza ekonomia natur sistemaren azpi-sistema soilik izan daitekeela ulertu behar da.

Testuinguru orokor honen baitan ekintzarako 3 ardatz nagusi ezarri ditugu: biomesia, hertzea<sup>8</sup> eta berdintasuna.

### **3.1.5.2. Lehen ardatza: biomesia.**

Mundu mailako ingurugiro krisiak egungo ekonomiaren eta ekologiaren bateraezintasuna adierazten du, erritmo ezberdinak baitituzte. Biologikoak mantxoak baina epe luzekoak diren bitartean ekonomikoak azkarrak baina epe laburrekoak dira. Biologikoa edo geologikoa baino azkarragoa den erritmo ekonomiko bat ezartzea etorkizuneko ingurugiro arazoak –baliabide eskasia, bioaniztasuna galtzea edo berotegi efektua- gutxiestea da egungo etekin ekonomikoen hazkundearen mesedetan, hots, natur baliabideen erabateko ustiapenaren mesedetan. Ekonomia erritmo hauek biologikoei egokitzen ez zaizkien heinean munduko ingurugiroaren hondatze bat jasaten dugu, eta aurreikusezineko ondorioak eragin dira. Ekonomia sistemak ziklikoa behar du izan eta organismo bizitzat hartu behar dugu, hau da, lehenik, materialen zikloa kutsapen eta toxikotasunik gabe itxi egin behar da; bigarrenik, printzipio

---

<sup>8</sup> "Hertzea" hitza gaztelerazko "decrecimiento"ren itzulpen moduan eman dugu.

biotikoekin bat etorri behar da eta tokian tokiko errealitateari egokitu; eta, azkenik, prozesuan erabilitako energiak berriztagarria behar du izan.

Beste hitzetan, giza ekonomia jasangarria izango da baldin eta natur ekonomiaren jokaerari egokitzeko gai bada, biomesi kontzeptuan biltzen den ideia. Biomesiak bere baitan ditu: eguzki energiari esker funtzionatzea, nahitaezkoa den energia kopurua erabiltzea, forma eta funtzioa egokitzea, birziklatzea, kooperazioa saritzea, aniztasunaren sustatzea, barrutik gehiegikeriak biguntzea, mugen indarra erabiltzea, testuingurutik ikastea eta etorkizuneko belaunaldiak zaintzea.

Ekologia ekonomiaren oinarriak praktika politikora egokitzeak helburu asko burutzea dakar:

- Ekoizpen bide eta kontsumo jasangarriak sortzea ekosistema industrialak moduko hainbat tresnaren bitartez. Horrela, *industrialdeek eta teknologia parkeek* energia eta input materialak aurrezteko sinergiak bilatu beharko lituzkete eta *sorturiko hondakinak gutxienez murriztea*.
- *Zerga erreforma ekologikoa* (kontaminazioa eta materialen ustiapena bezalako ekoizpen sistemaren alderdi kaltegarriak fiskalki zamatu, sorturiko lana bezalako alderdi onuragarriak zamatu ordez). Ildo honetan, indarrean den zerga sistemaren erabateko eraldaketa aldarrikatu behar dugu; batetik, zerga ez-zuzenak gutxitzea zerga zuzenak areagotzeko, bestetik, natur baliabideen kontsumoa zamatzea lanaren ordez.
- Lurraren artifizialtze prozesuak mugatzea. Euskal Herrian geratzen den *lur emankor eskasaren artifizialtzearen gaineko moratoria ezartzea ezinbestekoa da*.

- *Energia berriztagarrien sustapena.* Energia fosilen kontsumoa berriztagarriekin ordezkatu behar dugu. Lehenik, *zentral nuklear guztiak itxi behar dira.*
- *Mugikortasun jasangarriaren bultzada.* Baliabide publikoak batez ere euskal herritarren mugikortasuna bermatzera eskaini behar dira. Honen arabera garraio bide kolektiboak eta sozialki berdinezaleak diren horien alde inbertitu behar da. Planteatu dituzten moduan eta garatzen ari diren baldintzekin, *AHT, Supersur eta Pasaiako superportua moduko azpiegitura proiektu erraldoiak geratu egin behar dira.* AHTk lurraldean eragin txikia izango duen tren sozialari toki utzi behar dio. Euskal Herriko errepide bitarteko trafiko azpiegitura erraldoiei moratoria ezarri behar zaie. Baliabide publikoek pertsona guztiei irisgarritasuna bermatu behar diete, eskualde arteko mugimenduei lehentasuna emanda.
- *Nekazaritza ekologikoa babestea* (ikus elikadura subiranotasun ardatza).
- *Bioaniztasuna mantentzea.* Esparru honetan lehentasunezkoa da lurraren kontsumoa murriztea eta ekosistema autoktonoak berreskuratzea.

### **3.1.5.3. Bigarren ardatza: hertzea.**

Diskurtso politiko ekonomiko gehienek –eskubiko zein ezkerreko- baitan antzematen den mugarik gabeko hazkunde etengabearen ideia errealitate agorgarri batekin kontraesanean dago, planetaren muga biofisikoekin. Horregatik hertzearen aldeko benetako aldarriak –ondasunen ekoizpen eta kontsumoari dagokionean- benetako ideologia iraultza suposatzen du.



Hertzeak ez du esan nahi herritar gehiengoaren bizi baldintzen okertzea, baizik eta baliabideen birbanatzeari loturiko hobekuntza nabariak, sektore berriak sortzea, ingurugiroa mantentzea, etorkizuneko belaunaldien ongizatea, osasuna, lan baldintzak eta hazkunde orekatuari loturiko aurrerapenak. Kontuan izan behar da, hertze hau ez bada nahita eta ondo prestatua suertatzen, ezinbestean egin beharko da egungo zentzugabekeria ekonomiko eta soziala dela eta:

- Geure mendebaldeko gizarte aberatsaren testuingurutik ezin dugu ikusi hertzea egungo ongizate maila murrizte moduan, baizik eta ongizatea aberasteko tresna bezala. Hori bai, ongizate izenarekin ez dugu kontzeptu kuantitatiboa izan behar, ez dugu adierazi nahi baliabide materialen pilaketa etengaberik; baizik eta aisialdirako denbora, elkartasuna, giza harremanak, altruismoa, berdintasuna, justizia eta izpiritualtasuna nagusi diren kontzeptu kualitatiboa dugu buruan.
- *Hertzea, sistemaren jasangarritasun-eza iraunarazten duten jardueren murrizte/baztertzean datza: industria militarra, nuklearra, autogintza, nekazaritza industrial,...* Lanpostu hauek beste aldeetara bidera litezke, beharizan sozial eta ambientalak asebetetzera edo lanaldi murriztearen bitartez eginiko lan banaketa hobeetara. Era berean, jasangarritasunerantz lagungarriak diren industriak sustatu behar dira: energia berriztagarriak, taldekako garraioak, nekazaritza ekologikoa, hezkuntza eta kultura, ...
- Ongizatea, baliabideen ustiaketa eta hondakinak sortzean arteko balizko harreman puskatzera eraman behar gaitu hertzeak, aztarna ekologikoa murriztera.

- Hertzak produkzio, administrazio eta garraio azpiegiturak murriztea dakar loturik.
- Hertzak tokian tokikoari lehentasuna eman nahi dio globalaren aurrean.

#### **3.1.5.4. Hirugarren ardatza: berdinzaletasuna.**

Ekologia krisiak gizateria osoari eragin badio ere, ardurak eta ondorioak ez dira berdin banatu. Iparraldeko ingurugiro arazoak bere supergarapenari zor zaizkion bitartean (kutsadura industrialak, euri azidoak, hondakin arriskutsuak,...), Hegoaldearen ingurugiro eskatea aurrekoek ezarritako garapen ereduak ezarri die. Iparraldean ez bezala, Hegoaldekoentzat ingurugiroa euren bizimodua da, ez luxua geure kasuan gertatzen den moduan. Beraien iraupena ingurugiroaren jarraipenaren mende da. Beraz, munduko ekologiaren gaineko edozein hausnarketak kontuan izan behar du *berdinzaletasuna* eta jasangarritasunaren afera, 3 ikuspegi hauetatik:

- Lehenik, Iparraldearen erantzukizun ia erabatekoa mundu mailako ekologia krisian (Ipar zein Hegoaldeko gizarteetan ere erantzukizun maila ezberdinak daudela kontua hartuta).
- Bigarrenik, munduko ondasun eta zerbitzu komunak gehienbat mendebaldarren mende egotea.
- Hirugarrenik, herrialdeok Hegoaldeko natur baliabideen gaineko ustiapen jasangaitza.

Hauek ikusita, honakoak eraman beharko lirateke aurrera:

- Txiroitutako herrialdeen *kanpo zorra bertan behera uztea*.
- *Zor ekologikoaren onarpena*.

- Hego herrialdeen ingurugiro eta gizarte eskubideen aurka diharduten *euskal nazioarteko enpresen* jarduera edo diru-sartzeak salatzea.
- *Kutsadura isurtze eskubideen saleroste sistemak* salatzea.

### **3.1.6. EKONOMIA ETA LANA**

Mahai honen lanean, hainbat gai zehatz landu dugu, eurak denak lan kontzeptu berri bati lotuak, herritar multzo osoa *ondo bizitzea* ardatz duen gizarte eredu baten testuinguruan.

Horrela, eredu sozioekonomiko alternatibo bat zeharo zehaztu gabe – prozesua hau oraindik eraikuntzan da-, ildo hauen baitako ikuspegi, ekimen eta printzipio batzuk eman nahi ditugu; zeintzuek bazterketa, berdintasun-eza eta mendekotasunak saihestuko dituen eta pertsona eta herrien autonomia sustatuko dituen gizarte eredura gerturatuko gaituzten. Lan kontzeptu berri hau abiapuntu dugula –feminismo mahaiak eginiko ikuspuntu berriek paradigma ekonomiko eta sozial berriari *zainketa ekonomiaren* gainean eginiko ekarpenek aberasturik- honako lehentasunezko ardatzak jorratuko ditugu: langabezia, pentsioak, txirotasuna eta bazterketa soziala, immigrazioa, zerga-sistema, lan sindikala.

Azkenik, egungo ekonomia krisiaren analisia aintzat hartuta, proposamen alternatiboa egin nahi duen azken puntua garatuko dugu, kapitalismoa baztertuta, gizarte berria eraikitzeko eskema berriak planteatuko dituen, klase ikuspegitik baina askapen borrokarako subjektu berriak kontuan hartuko dituen.

#### **3.1.5.1. Lanari balioa ematea: lana eta kapitalaren arteko harremana**

##### **3.1.5.1.1. Lana: kontzeptu eta politika kapitalistei kritika**

Mundu kapitalistako giza pentsaera eta banakako garapena kantitateari begira jarri dira, bakoitzaren arlotik zein kolektiboki sozialki osasungarria den bizitzarako oinarria den arlo etikoa alde batera utzita. Kapitalismoaren ikuspegitik, pertsonak etekina lortzeko kudeatzen diren zenbaki hutsak dira. Kapitalismoak pertsona langileei opa dien bizitza makinaren ahalik eta antzekoena da: encefalograma laukoa, autonomiarik gabea eta arazorik emango ez duena.

Mugimendu antikapitalistaren arabera, ordea, pertsona langilea gizarteko kide aktiboa da. Bere inplikazioa, konpromisoa, hazteko eta aldatzeko bere borondatea ezinbestekoak dira gizartea ezberdina lortzeko, non askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna errealitate bihurturik ikusiko ditugun eta baten aurrerapenak ez duen bestearen atzerakada ekarriko.

Bide honetan, geure bizitzak geure esku izateko eskubidea aldarrikatu nahi dugu: konpromisoa, aktibismoa, gizatarkuntza, sozialkuntza, xahutzearen aurkako jarrera, borroka, ... inoiz baino beharrezkoago ditugu kontzeptuok dena mugatik kanpo hedatu deneko eta lanak berak balioa galdu dueneko mundu honetan.

Borroka honetan aurreratuko bada, kapitalaren diskurtsoa osatzen duten kontzeptuak zehaztu eta aztertu beharko ditugu; *lan munduko malgutasuna eta lehiakortasuna* kasu. Kategoria hauek honako funtzioak betetzen dituzte:

- Ekoizpen harremanen izaera politikoa ostendu nahi dute *hizkuntzaren teknifikazioa* bitarte. Hala, lehen aurre egin/negoziatu dikotomiaren baitan aztertzen ziren aferak, langileak kaleratzea merketzea adibidez, espazio horretatik atera dira eta lan proposamen *arduratsuak* bildu behar dituen elementu bihurtu dira.
- Gizarte babesik gabeko erabakiak hartzeak enpresa klaseari dakarkion kostu politikoa murrizten dute. Erabaki politikotzat hartu beharrean teknika izatera pasa nahi direnean, eurak hartzea nahitaezkoa dela

adierazi nahi da. Enpresa klaseak honela bere aztarnak ezabatzen ditu krimen tokitik.

- Langile klasea sakabanatzen dute. Nozio hauek (malgutasuna, lehiakortasuna,...) lan harreman marko orokorrak deusezteko helburua dute, marko indibidual edo zatituekin ordezkatzeko asmoz. Marko hauen desegituraketa funtsezkoa da lan indarraren antolaketa soziopolitiko ezarako eta klase karakterrik gabeko erakunde korporatiboetan sailkatzeko orduan.

Edonola era, malgutasuna bezalako kontzeptu hauetako asko 60ko hamarkadatik hona mendebaldeko gizarteetan suertatu diren aldaketa askorekin lotuak daudela gogoratu behar dugu. *Aldaketa* aukera gizaki berriaren asmoen oinarritzko edukia da; bizitza osorako lanpostuan oinarritariko eredia, hau egonkorra izanda ere, ez litzateke asebetegarri egungo eskari sozial batzuentzat.

Ildo honetan, *Supiot informea* garrantzizkoa dugu. Agiri honek lan kultura berrirako proposamenak izan beharko lituzkeen edukiak aztertzen ditu. Besteak beste, *giro sozialaren eskubideak* aipatzen dira, langileek borondatez hautaturiko mugikortasuna finantzatzeko sistema bat.

Proposamenok duten erakartze gaitasuna gorabehera, egun ditugun eskubideen atzerakada gertatzen ari deneko testuinguru honetan aipatu neurriei lehentasuna emateko arriskua dugu. Geure ahalegin nagusia babes bermeen mantentze eta zabaltzean finkatu behar dugu, langileen garapen pertsonal eta laboralaren garapen politikei uko egin gabe, kostua lurralde edo nazio bateko enpresa multzoaren artean mutualizatuta.

Bestetik, euskal langileria berrosatzeko garrantzitsua da *lan harremanetarako euskal esparruaren aldarriari* eustea. Baina, EAE eta Nafarroak euren zerga eskumenen erabilera atzerakoia ikusita (patrimonio zerga

ezabatzea, sozietate zera murriztea, kapital errenten aldeko fiskalitatea, errenta hauen iruzur maila altua) argi dago euskal esparrua ez dela nahiko bermatzeko zerga, lan edo babes sozial politikak gehiengo sozialen aldeko izatea, baizik eta presio sozial eta politiko handia behar da erakundeek jende aberats eta irabazi handienekoen alde duten joerari aurre egiteko.

### **3.6.1.2. Lanaren eta kapitalaren arteko harremanak**

Enpresaburu eta bankujabeen aldeko laudorio, zerga salbuespen eta subentzioen zale porrokatua den kultura neoliberalari aurre egiteko asmotan, Alternatiba Eraikitzenek explotari eta explotaturik gabeko mundua aldarrikatu nahi dugu.

Besteen lan, osasun eta bizitzaren lepo irabaziak lortzen dituztenei aurrez, lan ekonomia analisiaren bigarren mailako elementutzat daukatenei aurrez, lana eta enpleguaren bereizketa egiten ez dutenei aurrez, autonomiaz eta bizitza pertsonal eta komunitario aberats, orekatu eta osasuntsuaz gozatzeko bide moduan aldarrikatu nahi dugu lana.

Kontratu egonkorrak antzinako gauza soziala bihurtzea askatasunaren aurrerapausotzat aurkeztu nahi digute. Ez dugu ukatzen pertsona batek une jakin batean jarduera aldaketa baten bitartez bere bizitzari norabide aldaketa bat eman nahi izatea, baina horixe bera da zigortua dagoena. Aitzitik, ezartzen diguten prekarietateak ez du zerikusirik askatasunarekin. Enpresarien eskaerei uko egiteak kalera joatea dakarrela dakienaren edo bere lana sozialki ezagutu gabe lan egin behar duenaren askatasuna baino murriztagorik ez da.

Eredu horren aurka, lan kontzeptu berria aldarrikatu nahi dugu, ekintza sortzaile eta birsortzaileak baitan izango dituen, lanpostu egonkor eta eskubidez atondu batetik abiatuta, pertsonen euren ekonomia autonomia bermatzeko, etorkizuna aurreikusteko, patronalaren nahierako eskaeren

aurrean babesa izateko eta bere lana ezagutua ikusteko aukera emango diona. Honetarako, soldatak nabariki igo behar dira, hala hauek ekoizpenarekiko duten galera konpentsatzeko, eta denontzako hileko 300 euro gehituz eta *gutxieneko soldata* 1200 eurotan ipini, aldi baterako lana eta ABLEak (aldi baterako lan enpresak) alde batera utzi kaleratze kolektiboak debekatu eta banakakoak mugatu eta zigortu, kaleratzea bidegabea dela onartzen bada langilea bere lanpostura itzuliko dela bermaturik.

Guk defendatzen dugun ereduaren pertsonak ez dira erabili eta botatzeko pentsamendurik gabeko tresna hutsak, gurean langileek eragiten dieten erabakietan parte hartzea sustatu nahi da, lanaren beraren aberastea bilatzen da, anitzago eta sorkuntzara bideratuagoa egonik, langileek aldaketa eta egoera berrietara moldatzeko beharko duten hezkuntza eta trebakuntza emanda.

Aparteko orduak eta 14 urtetik 70era arteko asteleheneetik iganderako lanaldia defendatzen dutenen parez pare, lanaldi erdiko pertsonak berak enpresarentzat bakarrik bizitzea defendatzen dutenen aurrez aurre, lanaldia bizitzaren beste zati besterik ez izatea eta geure zaletasunak, lagunak, sendia eta bizitza sozial edo politiko zein bizitza bere osotasunean gozatzeko parada emango digun ereduaren aldeko gara.

Edozein jarduera, etekinak lortuz gero eta ingurugiroa edo giza bizitza hondatzen edo kaltetzen duen axola gabe, zilegi dela uste dutenek ez bezala, denon interesean oinarrituriko ekonomia jarduera jasangarri eta etikoaren alde egiten dugu. Kapitalismoak abian jarritako etekin nahikeria hutsaren bideak natur baliabideen gehiegizko ustiaketara bultzatu gaitu, eta ondorioz jasanezina eta iraunezina da. Bitartekoa helburu bihurtu du, ekonomiak gizakiaren zerbitzura izan behar bailuke eta ez alderantziz. Kapitalismoak kontsumo produktuen zaharkitzea aurrez prestatua du, iragarki matrakari esker kontsumo ondasun behar berriak sortzen ditu industriaren erabateko erritmoari eusteko eta ibilgailu pribatu bidezko mugikortasunaren sustapen artifiziala burutzen du.



Honek guztiak ekonomiaren garapenaren garrari eusten dio baina ez du giza zorientasuna lortzen. Ibilgailuen industriak, petrolio hornikuntzen eskasia dela eta mundu osora ezin heda litekeen energia kontsumoan oinarritzen dena, bioerregaien alternatibara jo du baina bere mesedetan landa munduko familia txiroenen elikadura iturriak bereganatu ditu eta elikagaien prezioak igoarazi. Industria honek egun bizi duen krisiak garapen jasangarri industria (trenbidea, ...) baterako bihurtze prozesuan izan behar du aterabidea, bertan dihardutenen lan baldintzak mantenduta.

Neoliberalak beti aurkitu ohi dute bankuak babesteko, armada xahutzea handitzeko, banku eta eraikuntza enpresa handien irabaziak potoltzeko soilik balio duten azpiegitura erraldoietarako dirurik. Geure lehentasunak, ordea, pertsonak babestea da, zerbitzu sozialak eta lan-gabezia diru-sariak handituta, osasun eta hezkuntza bezalako lehentasunezko zerbitzu publikoetan dirua sartuta. Neurri hauek lan handiago, egonkorrago eta jasangarriago baterako lan postu ugariago emango dute.

Belaunaldi askoren borrokari esker lortu diren prestakuntza publiko sozialen laguntza duten guztiak odol-xurgatzaile sozialtzat jarri nahi dizkigute: osasun zerbitzu publikoaren erabiltzaileak kulturarik gabekoak eta pilula zaleak omen dira, baina gehiengoaren interesak kontuan hartu beharrean farmazia enpresa handien beharrak asetzen dituzten osasun aurrekontuak ez dira zalantzan jartzen; lan ez-gai egoeran daudenak ikuskatze eta ez-gai epeen murriztearen bitartez estu hartu behar diren iruzurgileak omen dira; langabezia daudenak edo oinarrizko errenta jasotzen dutenak nagiak edo gaiztaginak omen dira, eta bitartean miloi anitzeko soldata eta pentsioak zein babesturiko kontratuak gozaten zituzten bankugizon eta enpresaburuek, mota guztietako iruzurren ondoren gizateria hondamendian kolokan utzi badute ere lan-sarien eta prestakuntza sozialen murrizketa eskatzen darraite.

Eredu honi aurre eginez, guztientzako babes soziala eskatzen dugu lan egitea posible ez den kasu guztietan, egoera sozial latzean dauden guztiei gutxieneko bizitza maila duina bermatzea.

### **3.1.6.2. Langabezia**

Kotizaziopeko pentsio delakoa kotizaturiko lan epearen eta jasotako lan-sariaren araberkoa da. Honek babes gabe uzten ditu lan baldintza eskasetan ari direnak eta klase barruko zatiketa areagotzen du. Langabezi diru-sariaren egoera honi atzekoz aurrera jarri behar da, pausuz pausu lan egindako epe eta jasotako sariari lotua egoteari utzi diezaion. Kontzeptu berri honek 3 ondorio lituzke: babes sozialik gabeko egoera murriztea, klase birbiltzea eta langilea bere etorkizunaren erantzule bakarria delako ideia ahultzea.

Bestetik, gora ari den presioa dago egun kapitalaren interesen arabera langileen kokatze eta aldatzea bultzatzeko. Hauxe ikus dezakegu langabetuak eskainitako lan postuak hartzera behartu nahi direnean euren behar, interes eta gaitasunen arabera erabakitze aukera kenduta. Mugikortasuna ulertzeko modu hau iraultzea premiazkoa da: enpresa interesen arabera ezarritako mugikortasuna murriztu behar da eta lan indarraren interesari loturikoa zabaldu, arestian aipaturiko lan kultura berriaren harira.

### **3.1.6.3. Pentsioak**

Azken urteotan pentsio sistemaren saihezezinezko hondamendiaren inguruko matraka jaso dugu, lan bizitza 65 urtetik harago luzatuz bakarrik ekidin ahal izango omen dena. Kapitalak egin duen moduan, langileen interesen aldetik ere balizko hondo jotze honi alternatiba eskaini behar zaio. Honetarako eztabaida egungo lan-sari sistemara eta enpresek kotizazioak igotzeko beharrera ekarri behar dugu, hala lan-ezako epeei (lan ezintasun epeak, ezintasun iraunkorra, jubilazioa, ama edo aitatasuna,...) aurre egin ahal izateko.

Jubilazio saria azken 15 urteetako errentaren arabera egiten da egun. Zabaltzeak ala laburtzeak (hots, urte kopuruarekin jokatzek) ez dio erretiratuari aparteko onurarik ekarriko, izan ere lan prekarietatea goraka ari da eta azken urteetako egoera (direla 5, 15 edo 20) lehenetako bezain eskasa izan daiteke. Euren kokapen kronologikoa alde batera utzita, *kontuan hartzeko epea lan bizitzako urte onenek osa* dezaten aldarrikatzean dago gakoa.

Gaur egun KPIren (IPC gazteleraz) arabera burutzen dira pentsioen birikuskatzeak, eta honen joera adostutako hainbat hitzarmenena baino beheragokoa da. Jubilatze baldintzak onak izanda ere, faktore honek adin altuenen kaltetan doan desberdintasun sozial etengabeko bati ematen dio bide, pentsioak soldatetatik urruntzen doaz eta. Hau dela eta, *soldaten batez bestekoaren arabera pentsio birikuskatzea* eskatu behar dugu.

Urte batzuetatik hona pentsio fondo pribatuak sustatzeko politika eta ekintzak jarri dira abian, (izaera "herritarreko" "aurrezte kulturaren" sustapenaren bitartez) pentsio sistema publikoaren alternatiba gisan eskainita. Sistema honen aurre kapitalizazio sistema publikoak lehenetsi behar dira. Langileriarentzat, *pentsioen izaera publikoaren aldeko* borroka garrantzia estrategikoa du:

- Dударik gabe sistema pribatuak baino integratzaileagoa da, gizarte ongizate handiagoa ekartzen du; irizpide birbanatzaileak baimentzen baititu, hala nola, gutxieneko pentsioak bermatzea, zaintze jarduera epeak kotizaturiko epetzat hartzea, emakumeen bizi-itxaropen luzeagoaren erruz pentsioa ez murriztea,...
- Jarduera espekulatzaileen zerbitzura dauden diru-poltsa kopurua murrizten da, egu pairatzen ditugun desorekak urrituta eta pentsio fondoetan inbertitzen duten langileen (zeintzuek fondoan

produktibitate altua nahi duten) eta fondo horien inbertsioa jaso duten enpresen langileen (zeintzuek produktibitate izenean lan baldintzetan presioa jasango duten) arteko interes kontraesana saihestuz.

Kotizazio eta pentsioetan gehieneko puntuak egoteak neurri berdinzalea dirudi lehen begiraldian, baina praktikan errenta altuak pentsio fondo pribatuetara bideratzen ditu. Beraz, *kotizazio topeen igotzea* jubilazioaren alternatiba pribatua urritzeko neurria izan daiteke.

Arreta berezia zor zaio *lan taldearen gatzetze* politiken ondorioz jubilaziora iritsi gabe lan merkatutik egotzitako pertsonen egoerari. Honek irizpide mugatzaileengatik pentsioak murrizten ditu, eta jubilazio adina luzatuz gero fenomeno hau areagotu egingo litzateke. Enpresa txiki eta ertainetan lan egiten dutenentzat jubilaziorako tartea 52 urtetik gorakoen lan gabezia diru-sariak betetzen du, oso kopuru urrikoa eta etorkizuneko jubilazioa baldintzatuko duten kotizazio baxuei lotua (enpresa handien kasuan kargu osagarriei eta kotizazioen hobekuntzari lotuak izan ohi dira). Hau eragozteko, hasierako aldarrikapena izan daiteke diru kalterik gabeko *60 urtetan jubilatzea*, osasunerako arriskutsuagoak diren lan postuetarako baxuagoa eskatuta. Ez dugu baina, erretiro aurreratuen amua irentsi behar, zeinari atxiki ohi diren osasun edo neke arazodun langile ugari. Gainera, 52 urte gorakoen sariaren orde z lan gabezia prestazio arrunta ezarri behar da, erretirora artekoa, enpresen poltsikoko kotizazioak mantenduta.

Nagusien belaunaldien *alarguntasun* pentsioak emakumezkoek bizitzaren birsortzean izan duten rol historikoaren onarpenaren baitan azertu behar dira, ondorioz, euren ezkonkideen pentsioa zor zaie.

#### **3.1.6.4. Txirotasuna eta bazterketa soziala**

Aurreko mendeko 80ko hamarkadara arte, desabantaila prozesuak materia eta birbanatze kontuekin zeuden lotuak eta txirotasun kontzeptuaren baitan sartzen genituen. 70ko hamarkadako krisiak eta hura gainditzeko ezarri ziren ekonomia politikek berebiziko eraldaketak sortu zituzten lan eta babes sozialeko esparruan, eta hauei demografia edo gutxieneko elkartasun sareen aldaketak gaineratu zaizkie. Honek guztiak beharizan sozial berriak eta gabezien mehatxupeko kolektiboen hedatzea ekarri du, material eta ekonomia esparruetan ez ezik, baita hezkuntza, kultura, osasuna, etxebizitza eta harreman arloetan ere. 80ko hamarkadan sortu zen bazterketa sozial kontzeptua ekonomia zein beste esparruetan garatu ziren gabezia hauek adierazteko. Beraz, txirotasunaz ari gara, baina baita osasun eskasiaz, etxebizitza eskasaz edo hezkuntza zein harreman gabeziak.

Txirotasunarekin egin moduan, bazterketa sozialak duen izaera sistemikoa azpimarratu behar da: sistema sozioekonomiko jakinean suertatzen da garapen dinamika zehatz batekin, eta, bazterturiko norbanako eta kolektiboen bizitza ez ezik, integraturik daudenen bizitza ere baldintzatzen du. Batetik, eredu sozioekonomikoak txirotasuna eta bazterketa soziala sortzen ditu; bestetik, txirotasun eta bazterketa sozialaren irauteak sistema bera den bezalakoa izatea bermatzen du.

Ikuspuntu honi jarraiki, garbi geratzen da errenta bermeen sistemak pobreziaren eta bazterketa sozialaren aurka egiteko duen ahultasuna. Emate hauek gabezia egoerak arintzen eta apaltzen dituzte baina ez dute lortzen egoera horiek erabat desagertarazten, ez baitituzte bazterketa eragin duten faktoreak desagerrarazten. Honetaz gain, ekonomian esparruan dihardute soilik, beste bazterketak alde batera utzita. Txirotasunaren eta bazterketa sozialaren aurkako politikak bi zentzutan bideratu behar dira.

Lehenik, arazoak aurreikusi eta saihesteko asmoarekin, geure gizartean den etekin banaketari dagozkion desberdintasunak aldatu behar dira, eta

ondorioz lan prekarietatea eten eta ordaindutako lanaz harago dauden jarduerak onartu eta ezagutu beharko ditugu. Bazterturiko edo horren arriskupean diren herritar askok lan egiten du, baina euren lana ez dago ordaindua, edo ez du egonkortasunik edo ez dago onartua. Era berean, biztanleariaren zahartzea, migrazio prozesuak, sare sozial eta familiarren ahultzea edo lan ibilbideen jarraikortasun eza moduko fenomeno berrietara moldatu beharko dira babes sozialeko sistemak. 2008ko hasieran, Foessa, Caritas eta OCDEren txostenek Espainian %20tik gorako pobrezia kopuruak jaso zituzten, hau da, 8 bat milioi txiro, EBko kopururik altuenetarikoa. OCDEren azken datuen arabera, ehunekoa %30era iritsia omen da, 13 milioi inguru, OCDEko herrialdeen antzekoa. Espainiako Bankuaren esanetan, 2002an, sendi txiroenen %20k urteko 8.700 euro jaso zuten, halaber, aberatsenen %10ek 85.100 jaso zuten. Bada, 2005ean, txiroenen %20k 6.900 euro jaso zuten bitartean, aberatsenen %10ek 85.500 euro jaso zuten. Beraz, desberdintasun soziala, behera beharrean gora ari da.

Bigarrenik, bazterketa sozialak dituen izaera ugariei zor, ikuspuntu barneratzaile baten baitan egin behar zaio aurre. Pertsonen ekonomia baliabide nahikoak eskaini behar zaizkie, eta halaber, euren integrazio soziala bultzatu. Hezkuntza, lana, kultura, harremanak eta etxebizitza bezalako arloei ekin behar zaie, bi irizpide nagusi buruan: ekimenek norbanakoari moldatuak izan behar dutela eta jarraipen eta laguntza mekanismoak izan behar dituztela lagun. Birgizarteratze eskubidea benetakoa izan dadin, prestazioen eta gizarteratze ekimenen arteko erakundeen zubia izan behar da, baina ez lagundua mugatzeko edo estu hartzeko asmoz, baizik eta hainbat proiektu abian jarri ahal ditzan bermatzeko.

### **3.1.6.5. Immigrazioa**

Alternatiba Eraikitzenen ustetan mugak botereek pertsona eta natur baliabideak hobeto menderatzeko ezarritako marra artifizialak dira. Pertsonak

nora bai eta nora ezin diren joan zedarrizten duten muga irudizko eta odol eta garretan zein harresi edo hesien bitartez eraikitakoen aurka gaude.

Pertsonak ez du legez kanpokoa izaterik, ezin da ekonomia interes aldakorren arabera onartua den ala ez den merkatal gai moduan erabili. Pertsonak planten barna mugitzeko eskubidea dute, baita ondo irizten dioten tokian ezarri eta lan egiteko, inolako trabarik gabe eta bertakoen eskubide eta betebeharrak bertsuekin. Baina, langile batzuek bertan euren herrialdeetako lan baldintzetan jardutea nahi dutenen aurka, tokian tokian adosturiko hitzarmenei begirunea zor zaie eta.

Kanpotarren etortzea ekiditeko neurri polizialak eskatzen dituztenengandik urrun, giza eskubideak herrialde guztietan bete daitezkeen eskatzen dugu.

Gune batean gutxieneko epe batean bizi izan diren pertsonak erabateko eskubide politikoak izan behar dituzte herrialde horretan.

### **3.1.6.6. Zerga sistema**

Egun geurean zabaldu diren ideia neoliberaletan zera diote, errentak desfiskalizatu behar direla, hau da, zerga zuzen batzuk jaitsi edo baita desagerrarazi ere. Hauen aurrean, Alternatiba Eraikitzenek zergek dituzten bi funtzioak, bananezinak eurak, aldarrikatu nahi ditu: biltzea eta birbanatzea. Kalitatezko zerbitzu sozialek, bidezkoak beraz, zerga biltze politika aurrerakoiaren beharra dute: gehien dutenek gehien eman dezatela.

Zerga presioa zuzenean lotua dago ongizatearekin. Ezagun da EBko ongizate eta gizarte babes maila altuena duten herrialdeak nordiko deritzenak direla. Suedian, bada, presio fiskala BPGren %50etik gora dago; eta EAEkoak, aldiz, doi-doi gaintzen du %30ekoa. Zergak ekiditeko politikak babes

sozialengandik zeharo aldendurik daude, erakunde publikoek eskaini ezingo dituzten zerbitzuak pribatizatu eta herritarrek euren poltsikotik ordaintzea baitute helburu. Honek, noski, ordaindu ahal dutenen eta ezin dutenen arteko desberdintasun soziala areagotzen du.

Ondoren zergen gaiari loturiko hainbat **proposamen** bildu ditugu:

*PFEZ (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) (IRPF gaztelanieraz).*

*Lan errentak:* Errenta altuenen gaineko zerga kargua egungo %45etik %55era igotzea. Neurri honekin batera BGAEngatik (gaztelerazko EPSVak) eta etxebizitza erosteagatik emandako zerga-arinketak murriztu edo kendu egin behar dira, gehien dutenei zergak arintzeko aukera ugariago ematen diete eta.

*Kapital errentak:* lan errenten moduan tributa dezatela, ez egun duten %18 aldaezinarekin. Zerga paradisuak baztertu behar dira hauekin batera.

*Jarduera Ekonomikoen Irabaziak.* Kontrola handitu behar da, iruzurra saihesteko.

*Sozietateen zerga.* Azken erreformek ezarri duten %28tik %35era igotzea.

*Ondare zergak:* Jasotako kopuru eskasaren karira ezabatu den zerga gau berrezartzea, ondare esanguratsua izateagatik ordaindu beharko luketen guztiek hala egin dezaten ondo gainbegiratu, sozietateak sortu edo antzeko zerga arinketa sistemak erabiltzeko aukerarik gabe.

*Zerga ikuskatzea* giza baliabide gehiagoren laguntzarekin *indartzea* funtsezkoa da. Enpresari eta profesionalen jarduera ekonomietan arreta jarriko duten ikuskatzeak, hor baitaude zerga iruzur poltsak.



### **3.1.6.7. Politika sindikala.**

Alternatiba Eraikitzenen ustetan sindikatuak langileen defentsarako funtsezko tresna dira, kapitalaren nahi mugagabeei eta euren babesle politikoei aurre egiteko zein gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baten bidean jarriko gaituen aldaketa sozialaren alde egiteko.

Hala ere, funtzio hau beteko badute *sindikatuak burujabe* behar dute izan gobernuekiko, patronalarekiko zein alderdi politikoeikiko, ekonomiko buruaskiak, langileriaren interesei soilik zor dakizkien.

Ertzeko prekarietateak langileriaren eskubideen babesa oztopatzen duten arlo guztietan sindikatuen hedapena sustatu behar dugu. Horretarako enpresa gizon zein emakumeen sindikatuen aurkako jarrerak zigortzea, baita penalki ere, eskatu behar dugu, eta orobat, lan esparru guztietan prekarietatearen aurka borrokatu.

*Sindikatuaren elkarlanetik sortutako ekintza sustatu* beharra daukagu, lan eta enplegu baldintza hobeen aldeko eta lan eta gizarte eskubideen babeserako borrokan. Euskal Herrian jasaten dugun konponezineko barreiaketa sindikala oztopoa da patronal eta administrazio neo-liberalei aurre egin nahi bazaie. Arazo eta ekimen bakoitzaren inguruan sindikatuen arteko ahalik eta elkarkidetzaren handiena bilatu behar da, beto edo bazterketarik gabe. Krisi ekonomikoaren edo lanaldian suertaturiko heriotzaren aurrean eman beharreko erantzunean premiazkoa da elkarlan hau.

Sindikatuaren zuzendaritzek adostasunetara iristeko dituzten arazoak jakitun, Alternatiba Eraikitzenek *behetik sorturiko mugimenduak sustatzea* du xede, izaera ireki eta bateratzailekoa eta arazoei aurre egiteko erantzun zabal eta bateratzaileak bilatuko duena.

### **3.1.6.8. Ekonomia krisia.**

- Finantza krisia eta bere ekonomia oinarria.

80 eta 90. hamarkadak bitartean herrialde gehienetako agintariak kredituaren inguruko mugak indargabetu zituzten, eta hala bankuak depositoak eta kredituak ez ziren lanez ardura zitezten baimendu zuten eta nazioarteko kapital merkatuen liberalizazioa eta akzio merkatuen arautze-eza sustatu zituzten. Finantza merkatu berriak indartu ziren eta txirotutako herrialde berriak merkaturatu ziren: Brasil, Txina, Errusia, India,...mundu mailako finantza dinamikara, ondorioz nazioarteko finantza kapitalari negoziarako gune berrietara ateak ireki zitzaizkion.

Finantza negozioaren hazte neurrigabeko hau ekoizpen ekonomiatik aldentzen da. Baina, ustezko kapital horren pilaketak baditu bere mugak, badaude-eta bilakatze korapiloak deritzenak finantza esparru eta esparru errearen artean: %2 edo %3ko igoera duen ekonomiak ezin du %15eko etekin orokorrik eman. Dibisa, akzio eta antzekoen salerosketa espekulatibotik eratorritako irabaziak uzurtu egiten dira puztutako prezioetan erosi dituztenak jabetzen direnean prezio errearekiko hainbesteko alde dagoela non ezingo dutela jarraitu hain prezio garestietan saltzen. Hau dela eta, goiz ala berandu, finantza burbuila guztiek eztanda egiten dute eta prezioek berriro berrekiten diote objektuok merkatu errealean duten salneurriari eta irabazi espekulatiboak desagertu egiten dira.

Burbuila horiek ez dute espekulataile diruzaleen ilusioa soilik oinarri, aitzitik, kapital askeen etengabeko sorkuntzan oinarritzen dira. Lehen iturria pilatu gabeko irabazien hazkundera da, mugimendu bikoitz batetik sortua dena: lan-sarien atzerakada orokorra eta irabazi tasak berrezarri arren suertaturiko pilatze tasaren geldotze edo atzera egitea. 80ko hamarkadara arte irabazi tasa eta pilatze tasa elkarren lagun joan ziren baina orduantxe bide ezberdinei ekin

zieten. Finantza merkatuek hau eraldatzen dute 3 bideren bitartez. Lehenik, finantza errenten jabeengana doan plusbalia zatia da. Ereduak, beraz, desoreken handitzea dakar. Bigarrenik, soldata eta errenten arteko nahasketa da: goraka doa finantza poltsikoratze bitartez ordaintzen zaien soldatapekoen kopurua, soldatok benetako lan-saria baino plusbaliaren birbanaketa bihurtuta. Hirugarrenik, familien zorpetzearen garapen izugarria dago, euren kontsumoak aurreztearen murrizteari zor egiten du gora, ez soldata igoerei esker.

- Krisiak eztanda egin eta ekoizpen ekonomian eragin

Finantza krisia benetako ekonomiaratzea bide ezberdinetatik burutu da, herrialdearen arabera ezberdina izanik:

1. Kredituaren uzkurtzea garrantzitsua da finantza krisiaren hedatzerako.
2. Burtsa kotizazioen erorierak gutxiago kontsumitzera bultzatzen du.
3. Jendartean zabalduriko kezkak kontsumoa eta inbertsioaren gaineko eragina du. Egoerak okerrera egingo duelakoan, ahal duenak aurrezte pertsonala indartzen du, eta hala kontsumoa, ekoizpena eta inbertsioaren jaitsiera lotua dakar. Halaber, biztanleriaren gehiengoa txirotzen ari da, diru birtualean eraikitako ustezko ondasunen (etxebizitzaren salneurrian batez ere) salneurriak behera egiten baitu eta baita akzio eta pentsio-planetan sartutako sosen balioa; lan, soldata eta etxebizitzaren galerak ahaztu gabe. Hala, finantza erakundeek kobraezinezko mailegu pertsonalen kopurua bikoiztu egin zen 2007tik 2008ra.
4. Eraikuntza arloak BPG eta enpleguaren zati handia hartzen zueneko herrialdeetan (Espainia kasu) indar gehiagoz jo du higiezin krisiak. Erabilitako lan esku kopuru handiak azaltzen du PPGren jaitsiera baino handiagoa den langabeziaren gorakada.
5. Makalaldia mundu ekonomiara hedatu da komertzio eta inbertsioari dagokienenean.

- Krisiaren irtenbideak

LANEK (Lanaren Nazioarteko Erakundeak, OIT gazteleraz) argitaratu berri duen informearen arabera, Europar Batasuneko herrialde kide gehienek, proportzioan, AEBk baino gehiago ordaindu dute bankaren "sorospenean", Britainia Handiak gehien (BGPren %28,6) eta Espainiak gutxien (%14,3); AEBk, ordea, %5,1. EBk herrialdeek, ordea, azpiegiturak eta zerbitzu publiko eta sozialak hornitze aldera sortutako enpleguan gutxiago ordaindu dute, hala nola hezkuntzan, osasun sisteman, giza zerbitzuetan,...AEBk BPGren %6,6 jarri du helburu honen zerbitzura; orobat, Alemaniak %2,8, Britainia Handiak %1,3, Frantziak %1,1 eta Espainiak %0,8 besterik ez. EAE eta Nafarroak, babes sozialari dagokionean Espainiaren berarena baino baxuagoa den gastuarekin, ez du gastu eskas hori hobetu.

Honetaz gain, ELGAK (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak, OCDE gazteleraz) 28 ekonomia garatuenetarako aurreikusiak dituen 25 milioi langabeetatik, lau milioi baino gehiago –beti ere ELGaren ustez, beste zenbait aurreikuspenek 5 ala 6ra igotzen baitute kopurua- Espainian kokatuak izango dira eta honek langabeziarako gastuaren igoera ekarriko du nahitaez. Oraingoz langabezia-sarien maila mantendu egin da, are gehiago, 2008ko otsailaren Erret Dekretu bitartez, zeinak zenbait kasutan kontratuaren amaiera kontratu eteteen ondoren etorri bada kontagailua hasieratik abiaraztea bermatzen duen.

Gizarte krisia. 2008an mundu mailan gauzatutako ekonomia atzerakada depresio orokorra bihurtzen ari da 2009an, produkzio erortzeaz eta herrialde zentraletan zein mundu mailako periferiak jasandako langabeziaren igoeraz bustiriko testu inguru batean. Herrialde aberatsetako finantza zein ez-finantza merkatuek jasotako *milioi zaparradak* ez du beherakada eten. Joerak okerrera egin du eta langabeziaren hazkundea bizkortu egin da. 3 hilabeteko epe

laburrean AEBtan 3 milioi langabetu gehiago zegoen. Espainian, langabezia izugarri hazi da, eta ofizialki 2009ko bukaerarako %18ra iritsiko dela aurreikusten da, nahiz eta Europak 2010erako %21,4koa izango dela uste duen. EAEn, euskal estatistika zerbitzuek eskainitako datuak inolaz fidagarriak ez izan arren, 2009ko lehen hiruhilabeteen langabezia %67 igo omen da.

Azken hamarkadan, espainiar ekonomiak urteko %3,6ko igoera indizea izan du, europar batz bestekoa baina altuagoa; izan ere, euro zonaldeko beste inon baino lanpostu gehiago sortu dira, 6 bat milioi. Hala ere, langileen soldatek BPGan duten kopurua jaitsi egin da, 1992ko %72tik 2005eko %62ra arte, nahiz eta 1991tik 2008ra 14 milioi langiletik 20ra pasa izan. Horrek oso garbi adierazten du pertsonako soldata jaitziera izugarrikoa izan dela. Beraz, hazkunde ekonomikoak ez dio bide eman soldaten igoerari, baizik eta kapitalaren pilatzeari. Esate baterako, BBVAko presidentek urteko 20 milioi jaso izan duen arren ez zuen arazorik izan soldata izozteak eta kaleratzearen merkatzea eskatzeko, hain lotsa gutxi du non pentsioak altuegiak direla eta murriztu egin beharko lirakeela iritsi den, Pentsio Planean 60 milioi euro pilatu dituen fondoa izanda. Fiantza erakunde handien buruek, zeintzuk neurrigabe aberastu diren euren kudeaketak egungo finantza eta gizarte krisira eramaten gintuen bitartean, euren soldata babestuekin darraite. Adibidez, 2007an, 16 finantza erakunde nagusien presidente exekutiboek 334 milioi dolar batu zituzten, 2005ean baino %30 gehiago. Espainian, 15 banku nagusien aholkularien soldatek 115,7 milioi euro pilatu zituzten. IBEX 35 enpresen %75ek blindatua dute euren zuzendaritza, hau da, 284 goi-karguk kaleratuak izanez gero 2 eta 5 urteko soldata jasotzea bermatzen dien kontratua dute.

Kopuru hauek handiagoak ez izatearen arrazoia pentsio publikoen transferentzian dago, Europar Batzordearen 2006ko txosten batek onartzen zuen XX mendeko gizarte politikaren lorpen handienetakoa izan dela pentsio publikoei esker zahartzeak ez ekartzea nahitaez pobrezia edo semealabekiko mendekotasuna. Europar Batasuneko herrialde gehientsuenetan Gizarte

Segurantzaren pentsioek osatzen dute adinekoen diru iturri nagusia, hori dela eta pobrezia eta euren arteko ezberdintasuna pentsio sistemaren arabera da. Nazioarteko datuen arabera *Luxembourg Income Study (LIS)* erakundeak egindako txosten batek adierazitakoari jarraiki, 65 urtetik gorakoek ez dute bitarteko pribatuen bitartez pobreziatik ateratzeko baliabide nahikorik.

- Norantz doa krisia eta zein irtenbide dugu?

Estatubatuar ereduaren oinarriak zalantzan jarri ditu finantza krisiak: defizit bikoitza, komertziala kanpora begira eta aurrezkiaren krisia barrualdean. Bi kasuetan, finantza merkatuek kudeatzen dituzte desorekok, baina hauek uzkuartzen badira, hazkunde mota honen zutabeak erori egiten dira, familien aurreztea blokeatu egiten da eta munduko beste lekuetatik iritsitako kapitala galgatu egiten da (Txinarekin gertatzen ari da dagoeneko). Honen ondorioz, finantza krisiak AEBren hazkunde geldotze iraunkor bati emango dio bide, gero gainontzeko lekuetara hedatuko dena. K. Schmidt-Hebbel, ELGAko ekonomista-buruak, maiatzaren 4an honakoa adierazi zuen: "testuingururik okerrenea gauzatzen ari dela eta egungo krisia 1929tik izan dugun larriena da".

Krisitik ateratzeko behar denbora, finantza arloa salbatzeko eskaini diren kopuruen izugarritasunaren parekoa da, direnaren eragin bikoitza izango baitute BPGan.

Herrialde nagusiek krisiaren eraginak besteengana bideratzeko borrokak zehaztuko du noiz emango zaion irteera. Gizarte esparruan kapitalaren presio handiagoa izango da soldata eta gizarte gastu publikoaren aurka. Nazioarte mailan, potentzia handien arteko merkatu eta ekonomia gudak (adibiderako Sarkozy eta Merkel G-20an) esparru berriak izango ditu eta mundu ekonomiaren zatitzea ekarriko du. Mundu ekonomiaren uzkuartzeak protekzionismoa sustatzen du, modu askotan, esate baterako AEB eta Espainiako gobernuek "estatubatuar" edo "espainiar" produktuak erosteko

luzaturiko deia edo europar gobernuek euren sektore industrialei emandako dirulaguntzak. EBren barne kontraesanek europar plangintza bateratu bat abian jartzea galarazi dute, eta praktikan, Egonkortze Ituna alde batera utzi da. Bankuak fondo eta berme publikoen bitartez salbatzeko planek bankuen berregituratze eta elkartzeak gauzaten lagundu du, nahiz eta EBko araudiak estatuen aldetik jasotako abantailak debekatu; horrela herrialde aberatsetako bankuei are abantaila handiagoa ematen diete hego herrialdeekiko. ELGAK adierazi duenez, Espainia dela ELGA osoan bere nazioko enpresei laguntzeko diru gehien eman duena (BPGren %0,7 Eslobakia eta Korearen % 0,5en parean, honek espainiar liberalen protekzionismoa agerian uzten du, gehienetan herrialde txiroen aurkakoa). Europako Batzordeak esku artean dituen estatu eta enpresa arteko *legez kanpoko dirulaguntza* kasuetatik, 48 Espainiari dagozkio. Langileria mugimenduak beste langileen aurka merkatu batean parte hartzeari uko egin behar dio. Protekzionismoaren aldeko jarrerak, merkatu ekonomiaren testuinguruan, xenofobiaren eta merkatu gerren garapena sustatzen du, baita beste izen gehigarriak ez duten guda orokorrak ere. Honen alternatiba ez da joera neoliberalak defendaturiko nazioarteko hedatzea, baizik eta kapitala bazterrera uztea eta bere ordeztu herrien arteko elkarlanean eta elkartasunean oinarrituriko mundu ekonomia planifikatua abiaraztea, beharizanen, bereziki herrialde txiroenenak, asebetetzean eta mundu mailako natur baliabideen irautean oinarrituko dena.

**Keynesiar irtenbidea.** Europar mailako koordinaketa plan ezak argi erakusten du estatu bakoitzak berearen alde egin duela. Soldaten galgatzerako aitzakia ederra izango da krisia, lehiakortasun handiagoaren testuinguruan jardura mantentzeko itxaropenean. Europa neoliberalaren gabezia eta keria guztiak agerian geratu dira aldatze politikarik gabe, aurrekonturik gabe eta EBZri (Europako Banku Zentralari) ezarri zaion maileguak emateko debekuekin. Baina auzia funtsean politikoa da: kapitalismoa arautuko bada mugatzaileak beren lepo hartuko ez duten talka maila behar da.

Zenbaitek krisitik ateratzeko "kapitalismoa berdea" jotzen dute alternatibatzat. Teorikoki posible izanda ere; praktikan, dagoeneko martxan den eta jardueraren %80 erregaietatik hartzen duen kapitalismo sistema eraldatzea bateraezina da klima aldaketaren aurkako borrokarekin. Ekonomia birpizteko politikak, egun, berotegi-efektua sortzen duten gasen isurketa areagotuko du. Mundu ekonomiaren berrantolatze ekologikoak epe luzerako koordinaketa eta aurreikustea behar ditu, maila internazionalan. Lehiaren eta merkatuaren legeek, ordea, epe motzeko irabazia behar dute. Kiotoko Hitzarmenarekin betetze aldera, Europar Batasunak merkatu mekanismoetara jo du, emisio merkatuak sortzea kasu; nazioarteko lehiaren aurre babes gutxiagoko industria sektoreak merkatu honetatik at utzi direnez, bere eraginkortasuna murriztu egin da.

**Irtenbide antikapitalista:** Kapitalismoaren egungo krisiaren luzatze eta hedatzeak garbi utzi du ekintzarako egitarau antikapitalista baten beharra, honako osagaiak bere egingo dituenak:

- Aberastasunaren birbanaketa, azken hamarkadetan gauzatu den soldaten kopuru proportzionalaren murrizketari buelta emanda.
- Ekonomiaren bilakaera ekologikoa, baliabide naturalen kudeaketa publiko eta parte hartzailea bermaturik eta energia ekonomien, energia berriztagarrien, elkarbanaturiko garraioen, bizileku sozialen,...aldeko ekimen publikoak sustatuta.
- Zerbitzu publikoen garapena, pribatizazio prozesuak geratu eta atzera eramanez eta zerbitzu publiko eta sozialen erabilpena hedatuz (haurren eta autonomiarik gabekoen zaintza, haurtzaindegiak, ...).
- Kontrol sozialari lotuko zaion banku zerbitzu publikoa sortzea, bankuak nazionalizatzea eta zerga paradisuekin amaitzea.



- Kaleratzeak debekatzea eta soldatei eutsirik lan denboraren murrizketa ezartzea, denbora eta soldata horiek soldatapekoen, lan baldintza kaskaretan ari direnen eta langabetuen artean bana daitezen.

### **3.1.7. ELIKADURA SUBIRANOTASUNA**

Elikadura subiranotasuna egungo nekazal eta abeltzain industriarekiko paradigma alternatiboa dugu, 3 oinarritan sustengatua: elikadura gizakiaren oinarritzko eskubidetzat onartzea; herrialde eta estatu guztiei euren abeltzaintza eta nekazaritza eredu propioak garatzeko eskubidea onar dakiela; eta politika edo eredu horien gunean elikagaiak ekoizten dituztenak jartzea, hots, nekazariak, abeltzainak eta arrantzaleak, kontsumitzaileekin batera.

Definizio honetatik abiatuz, ekintzarako 3 ardatz nagusi zehaztuko ditugu: bata, elikadura eskubidetzat onartzea eta ez merkantzia moduan, honetarako elikadura subiranotasuna eta agroindustriala parez pare jarriko ditugu, azken hau baita mundu osoan, eta Euskal Herrian bertan ere, noski, nagusi dena; bigarrena, oinarritzko subjektuak diren landa ekonomien aldeko proposamen zehatzak egingo ditugu; hirugarrena, natur ondasunen –ura, bioaniztasuna, lurra,...- kontrol sozial eta publikoa bermatuko duten ekimenak zehaztuko ditugu.

#### **3.1.7.1. Lehen ardatza: nekazaritza eta abeltzaintzarako eredu ekonomiko-soziala: elikadura eskubidea da, ez merkatugaia.**

Lehen ardatza 3 zatitan banaturik dago. Lehenak egungo mundu elikadura sistemaren jatorria eta oinarriak zehaztu ditu. Bigarrenak Euskal Herriko egungo nekazaritza eta abeltzaintza aztertu ditu, baita elikadura ereduarekin duen elkarreragina ere. Azken zatian elikadura eredu alternatiboaren, Elikadura Subiranotasunaren, ezaugarri nagusiak zehazteaz gain eragin politiko nagusiak aipatu dira.

##### **3.1.7.1.1. Egungo elikadura eredu**

Egungo nekazaritza eta abeltzaintza ereduak erabat lotua zaie MMEK -Mundu Merkataritza Erakundeak, OMC gazteleraz- ezarritako neurri liberalei, elikaduraren premia kontuan hartu gabe, ezta lana eta osasunari dagokion gutxieneko gertutasuna ere, ez iparrean ez hegoan ere. Elikagaien prestaketa eta euren merkaturatzea ez da beste edozein merkaturagairen ezberdina, ibilgailuena kasu.

Hala, elikagaiak, ehungintza bezalaxe, mundu mailako ekoizpen eta finantza sare izugarrien zati dira, nazioarteko enpresen mende. Halaber, mundu mailako sare eta merkaturagairen hauen gaineko erabakiak esparru aldeaniztunetan hartzen dira, herritarrak ordezkatzeko ez dituzten erabakiguneetan, esate baterako: MME, NDF -Nazioarteko Diru Funtza, FMI gazteleraz- edo MB - Munduko Bankua, BM gazteleraz-. Elikadurak, beraz, eskubide izateari utzi dio eta merkaturagai hutsa bihurtu da.

Halere, Iparraldeko gobernuek ez dute beti elikadura merkaturagai hustzat hartu. Lehen, gobernuek oso zorrozki zaintzen zuten elikaduraren esparrua eta bere babeserako neurri eta mekanismo andana erabili ohi zuten. Egungo erabateko privatizaziora eraman gaituen garapen politikoan 3 une izan dira funtsezkoak: iraultza berdea, egitura egokitzeko programak eta MMEren sorrera. Garapen hau bermatu zuen filosofiak egun indarrean darrai, eta eredu hori ulertzeko aztarna nagusiak agerian uzten ditu:

- *Iraultza berdea* izenarekin da ezaguna Rockefeller eta Ford fundazioek abian jarritako ekimena eta industria ekoizpenaren mundu mailako hedatzeari hasiera eman zion. Hazten ari zen elikadura segurtasun-ezari erantzun nahian, nekazaritza eta abeltzaintza industrialak sustatu zituen Hegoaldeko herrialdeetan. Ekimenaren muina zera zen: haziak, hibridoak, ongariak, pestizidak eta ureztatze sistemak bezalako teknologia paketeen bitartez, nekazal eta abere ekoizpena handitzeak gosea murriztuko zuela. Munduan zehar 30

urtez egin diren 300dik gora ikerketa eta txostenen ondorioak biltzen dituen azterlanaren arabera guztiz kontrakoa gertatu da: batetik, Iraultza Berdearen teknologiak Tropikoko landasistemak kaltetu ditu eta nekazal/abeltzainak ingurugiro zein ekonomia arriskuen aurrean babesgabe utzi ditu; bigarrenik, insumo -nekazal edo abeltzain arloko lehengai edo lagungarriak- hauen prezioa altuek nabarmen igoarazi dute latifundista eta nekazarien arteko aldea, azken hauek ez baitira gai teknologia honen gastuari aurre egiteko; hirugarrenik, ustiapenen errentagarritasuna txikiagotu egin da azken urteotan, insumo kimikoek sorturiko mendekotasuna zein lurraren higatze eta okertzea dela eta; laugarrenik, agroaniztasuna nabarmen murriztu da, izan ere, aldaki hibridoak hedatzeak, tokian tokiko laborantzak galdu izanak eta labore bakarrerako joerak elikadura aniztasuna eta biztanleriaren elikaduragabezia handitu dituzte.

- *Egitura Egonkortze Programak:* mundu mailako nekazaritza eta abeltzaintza industrialaren hedatu izana Egitura Egonkortze Programei zor zaie. Programok ekonomiak euren ekonomiak berregituratzera behartu zituzten, esportazioari begirako ekoizpena igotzean, komertzioaren liberalizazioan eta kanpotik etorritako inbertsioetan oinarrituriko ekonomia baten zerbitzura. Arlo honetan gauzaturiko programek eta ekonomia berregituraketek esportazioari begirako laborantzen sailkatzea eta ohikoak ez ziren agroesportagarriak ekoiztea izan zuten helburu nagusi, bertako beharrianak alde batera utzita. Hala "egokituriko" nekazaritza eta abeltzaintzarekin batera, bertako nekazal eta abere merkatua zein langileak babesteko eta laguntzeko estatuek zituzten azpiegitura, programa eta mekanismoak (diru-laguntzak eta prezioak kontrolpean izatea) ezerezean utzi ziren. Hala, egitura egokitze programek munduko elikagai merkatu bakar eta hiperlehiakor baten garapenari bide egin diote, MME lagun zutela.

- *Mundu Merkataritza Erakundeak (MMEk)* nekazaritza-abeltzaintzaren arautze ezarako aukera eman du. Gobernuak etxeko nekazaritza-abeltzaintza sektoreari laguntzak murriztu dituzte eta merkatuen zabaltze etengabe baterako interesa duten korporazio handien esku utzi dituzten euren ekonomiak. Nekazaritza-abeltzaintza merkatu liberalizazioetan sartu izanak argi erakusten du elikadurari beste edozein sektoreri bezalako trataera eman nahi zaiola.

Hurrengo lau puntuetan azaltzen dira, bada, egungo sistemaren zehaztasun eta ezaugarri nagusiak:

- *Nazioarteko enpresen elikagaien gainean duten kontrola*
  - Nekazal eta abere merkatuaren liberalizazioak agrokimika, farmazia edo hazi konpainien, agroelikadura korporazioen eta elikagai saltzaile handien arteko pilatzeak ekarri ditu. Korporazioak dira nagusi elikadura katearen une guztietan: elikagaien ekoizpena, lehengaien hornidura, garraioa, elikagaien prozesua eta merkaturatzea. Funtsean, liberalizazioari esker nazioarteko enpresa talde txiki batek zer elikagai, non, zeinek eta zer preziotan ekoiztu erabakitzeko ahalmena du. Nazioarteko enpresa hauen neurrigabeko botereak pisu politikoa du, eurek kontrolatzen dute merkatua, ez gobernuak. Estatu eta eskualdeek elikaduraren gaineko subiranotasuna galdu dute.
  - Prozesu honek nekazari eta abeltzainen autonomia urritu egin du. Euren produktuen eraldatzea eta merkaturatzea, gero eta neurri handiagoan industria eta egitura handien esku dago. Ondorioz, euren jarduera ekoizpena mugatu zaie eta industria da gainbalioaz jabetzen dena. Testuinguru honetan, nazioarteko enpresek merkatu gaineko botere izugarri duten bitartean munduko osoko, iparraldeko

zein hegoaldeko, nekazari eta abeltzainek finantza krisiari aurre egin behar diote.

- Tokian tokiko ekoizpen eta merkatuaren desagertzea
  - Tokian tokiko ekoizpen, zabaltze eta merkaturatze sistemek, orokorrean enplegua bermatu ohi dutenak eta ekoizpen eredu ekologikoago izaten direnak, desoreka ikaragarrian dihardute lehian enpresa handien aurka.
  - Liberalizazioaren eraginez ekoizleentzako gutxieneko salneurri bermatuak ezabatu dira eta diru-laguntzak nabarmen murriztu dira. Nekazari eta abeltzainek, laguntza programen hondo-jotzeari aurre egiten ari direlarik, ezin diote kanpotik ekarritako elikagaien lehiari eutsi eta landatik ihes beste erremediorik ez dute. Hau da, insumoen salneurriak gora ari diren bitartean euren produktuenak behera egiten du, ondorioz, euren irabazia erabat laburtzen da. Prozesu honen erruz tokian tokiko elikagai ekoizpen eta merkaturak desagertu egiten ari da.
  - Lehia ez-zuzenak eta insumo garestiekiko mendekotasunak landa arloko herritarrak txirotu eta euren ustiapenak alde batera uztera behartu ditu. Honen ondorio da nekazari eta abeltzainen proletarizazioa eta hirietara ospa egin beharra, azken hauetan topa ditzaketen enpleguak ez dira ez euren esparruari lotuak ezta egonkorrak ere. Eredu honek dakarren osasun, ekologia eta gizarte kostua mundu osoan pairatu da. Iparreko herrialdeetan, landa munduan galdutako lanpostu guztiak ez ditu bere egin ez industriaren igoera eskasak ezta zerbitzu arloak izan duen igoera nabarmen baina ez-nahikoak ere. Hegoaldeko herrietan, non oro har nekazaritza eta abeltzaintzak pisu handiagoa duen, arlo hau lanpostuen %80 edo %90 hartzera iris daiteke, eta ondorioak, noski, okerragoak dira.

- *Ustiapen eredu produktibista eta intentsiboa*
  - Egungo ustiapen eredu intentsiboak epe motzeko irabazi du helburu bakar, horretarako natur baliabideak hondatzen dituzten produktu kimikoak erabilia ere. Halaber, ekoizpenaren kostuak murrizteko labore bakarraren alde egiten da, hala lurzoruaren kalitatea urrituz, basamortutzea eraginez eta bioaniztasunari kalte eginez, natur sistemen plaga eta gaixotasunen aurrean duten babesak kolokan jartzen baita.
  - Ikuspegi merkantilista honi jarraiki, azken hamarkadetan gene ingenieriatzara jo da elikagaien ekoizpena handitu eta merkatzeko asmoz. Erabilpen genetikoari buruzko ikerketa independente gutxi dago, 20ren bat, baina denak bat datoz gene ingeniaria ingurugiroari eta giza zein abere osasunari arriskutsua zaion salaketan. Euren arabera, helburuak bete baino kontrako norabide egin dugu. Transgenikoak landatzeak herbiziden eta intsektiziden erabilpena handitu du, eta beraz ekoizpen kostuak gora egin du. Honetaz gain, ikerketek estuki lotzen dituzte osagai transgenikoak eta nekazarien pobrezia, kanpoko insumo garestien mende geratzen dira eta.
  - Transgenikoek giza osasunean dituzten ondorioak bereziki kezkarriak dira. Gainera, kontsumitzaileari ez zaio ematen elikagai bat transgenikoa den ala ez jakiteko aukera. EBren egungo araudiaren arabera, osagai transgenikoen %0,9 baino gehiago duten produktuek soilik dute etiketan informazio hori adierazteko beharra. Sistemarik eraginkor eta garbienak ere nekez berma dezake GM elikagaiak identifikatzea, labore transgenikoek kutsatu dituzten hazi eta elikagaiak ezin baititu kontrolatu.
- *Bioaniztasun galera*

- Agroaniztasuna nekazari eta abeltzaintzat bizi eta lan iturria izateaz gain, ingurugiroaren egonkortasunaren bermea da. Azkenaldian aniztasun hau arriskuan da enpresa fitoeraldatzailleen kontzentrazioa, gene ingeniriatza eta haziei buruzko edo lan egiteko moldeei buruzko edozein ezagutza patentzako lege aukera direla eta.
- Ohiko hazi biltze eta birsortze praktikak albo batera geratu dira eta egun fitoeraldatzailleak dira mundu mailako hazi eskariari aurre egiten diotenak.
- Enpresa fitoeraldatzailleek presio itzela egin diete euren bezeroei (landa munduko langileak oro har) irabaziak handitu nahian, nekazal aldakien pribatizazio eta salmenta euren eskuetara mugatuz. Patente bidezko pribatizazioak bide eman die enpresa hauei hazien salmenta eskubideez, birsortzeaz eta ikerkuntzaz jabetzeko. Euren helburu nagusia mundu mailako landa komunitate eta ustiapen guztiek urtean behar dituzten hazi guztiak eros ditzaten da, erabat banatuz ereitearen lana eta aldakiak birsortu edo hobetzearena.
- Hazi eta landareen esterilizazio metodoak, gene eraldaketaren bitartez, bioaniztasunaren murriztean lagundu du. Teknologia hauek haziak gordetzeari bidea erabat ixten diotenez, landa langileak urtez urte haziak eroatera behartzen dituzte.

### **3.1.7.1.2. Euskal Herriko agroelikaduraren egoera**

Euskal Herriko nekazaritza eta abeltzaintzaren egoera ez da globalizazio liberalaren ondorioetatik eraginik gabe geratu. Bere ezaugarriak ez dira Europar Batasuneko beste herrialdeen ezberdinak: ekoizlearentzako prezio baxuak, landa esparruko lanpostuak galtzea, nekazaritza-abeltzaintzaren



industrializazioa eta irabazi guztiez jabetzen diren egitura eraldatzaile eta merkaturatzaileak garatu izana. Hona hemen ezaugarri nagusien analisi laburra:

- *Nekazal eta abere aktiboen galera:* 1997tik 2003ra EAEko lehen sektore barruko lana %30 jaitsi zen (18.950 langiletik 13.120ra) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera. Nekazarien gizarte-segurantzako afiliazioa %20 jaitsi zen epe horretantxe. Arlo honetako aktiboen jaitsiera elikagaien salneurrien jaitsierari zor zaio. EHNEren esanetan, baserritarrek jasotako dirua duela 20 urteko bera ala baxuagoa da, nahiz eta merkaturaturiko gaien prezioak etengabean gora egin duen.
- *Ekoizpen gaitasunaren galera.* Nekazal eta abere aktiboen galerak ekoizpen gaitasunaren beherakada ekarri du. Sektorearen "profesionalizazioak" ezin izan dio ekoizpen mailari eutsi. Esnekien esparrua esanguratsua da. Azken 5 urteetan Bizkaiak esne ustiategien %54 galdu du. 2006 bukaeran 316 ustiategi soilik zenbatu ziren, nahiz eta ez urruti oso sektore zabaldua zen. Ustiategi kopuruen jaitsierak, noski, enplegu zuzen kopuruan zein ekoizpen mailan eragina izan du. 1990ean Bizkaian 146,722 milioi litro esne ekoiztu zen bitartean, 2004an doi-doi pasa dira 91 milioitik.
- *Baserritarren autonomia galera.* Enplegu eta ekoizpen prozesuak loturik ekarri du nekazal eta abeltzain ustiategien autonomia galera. Batetik, gero eta baserritar gehiagok integratu behar du ekoizpen sistemaren zein salneurrien baldintza guztiak kontrolatzen dituzten egitura handietan. Bestetik, euren funtzioa ekoizpenera mugatu ohi da. Produktuen eraldaketa eta merkaturatzea gero eta hein handiagoan pilatzen ari da industria eta egitura handien eskuetan.

- Ekoizpen eredu intentsiboaren nagusitasuna. Ohiko ezaugarri estentsiboekin diharduten ustiategi berezi batzuk izan ezik, Euskal Herriko landa eremuan nekazaritza eta abeltzaintza industrialak da nagusi. Esate baterako, EAE eta Nafarroako abeltzaintza ustiategiak arloko politikaren arabera daude, behi eta ardi-haziendaren kasuan salneurri baxuek dirulaguntzen mende uzten dituzte ustiategiak, txerri-haziendari dagokionean araurik gabe daude.
- *Transgenikoak Euskal Herrian.* Euskal Herria, Europar Batasuneko gainontzeko herrialdeen moduan, ez dago produktu transgenikoen eraginetik at. Egun nekazaritza abeltzaintzan edo elikadura dauden GM produktuak hazi, labore, animalia bazka eta giza elikagaietara iritsi dira bi prozesuri esker: batetik, indarrean den araudiari egokitutako berariazko askatzea; bestetik, kutsatzea, hau da, berariaz ala nahigabe askatu direnak, legez kanpo. GM organismoak ingurunean berariaz askatzea 2001/18/CE Direktibak arautzen du. Araudi honen ondorioz, Espainiako merkatuan honako GM produktuak aurki litezke: ereiteko haziak, industriarako inportazioak, elikagai industriarako zein abere bazkarako inportazioak eta elikagaietan prozesuan zehar atxikitzen diren mikroorganismoak, legamiak kasu. EHNEren esanetan, Euskal Herrian abeltzaintza eta nekazaritza gene ingeniritza saiakerak ere egin dira. Landa irekian buruturiko saiakera gehienak kutsadura transgenikoa saihesteko prozedura barik burutu omen dira. Araba eta Nafarroan egindako entseguak Neiker, Centro de Biotecnología de Navarra, ITGA, Petoseed Iberica eta Senasa enpresek eginak dira.
- *Nekazal lurren galera.* Lur gabezia arazo orokorra da Hego Euskal Herriko nekazaritza eta abeltzaintza sektorearentzat eta oztopo nabarmena da sektore hau modu jasangarrian gara dadin. 1992tik 2002ra ereindako %18,98 galdu zen, eta bereziki lazgarria izan zen

galera hori patata (%65), zuhain (gaztelerazko forrajea) (%59) eta baratze laboreen (%43) lurrari dagokionean. Lur galtze honen arrazoietan artean daude txandakatzerik gabeko ustiatzeen bertan behera uztea, baso eta zuhaitz landaketen zabaltzea eta, bereziki, hiri-lurzoruaren eta urbanizagarriaren hedatze nabarmena. Hamarkada berean hiri-lurzoru eta urbanizagarria %30 igo da. Joera honek nekazal lurren gaineko espekulazio presioak gora egitea eragin du.

#### 3.1.7.1.3. Elikadura subiranotasuna: eredu sozial eta elikadura ekonomiko berria

Elikadura Subiranotasuna egungo eredu agroindustrialarekiko paradigma alternatiboa da 3 zutabetan: elikadura oinarrizko Giza Eskubidetzat hartzea, herri eta estatu guztiek euren nekazaritza eta abeltzaintza politikak zehazteko duten eskubidea aldarrikatzea, eta politika horien gune bihurtu elikagaiak ekoizten dituztenak: nekazariak, abeltzainak eta arrantzaleak. Eredu berriak honako ezaugarriak ditu:

- Elikadura subiranotasuna eta elikadurarako giza eskubidea: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak elikadurarako eta elikadura aldetik ongizateaz gozatzeko oinarrizko eskubidea jasotzen du. Baina egungo elikadura ereduak ez ditu biztanleriak behar ondasun eta zerbitzuak sortzen, baizik eta irabaziak ematen dituzten merkatugaiak. Gizakiaren oinarrizko beharrezan, elikadura barne, irabazi horien menpean geratzen dira. Hala, bizitzaren logika mundu merkaturako elikadura ekoizpen industrialaren aginduetara jarri nahi da.
- Elikadura subiranotasuna eta tokian tokiko ekoizpena: elikadura subiranotasunak tokian tokiko merkatuan bertako ekoizleak

lehenesten ditu. Egun mundu mailako merkatuak ezarritako salneurriek, liberalizazioaren eraginez, tokian tokiko ekoizleei euren merkatuetara jotzea oztopatzen die, beraz, ekoizpenerako eskubidea urratzen zaie eta tokian tokiko zein eskualdeko ekonomia murrizten da.

- Elikadura subiranotasuna eta merkatua: egungo ereduak elikagaien merkatua liberalizatu du nazioarteko enpresek euren merkatu esparruak zabaltzeko duten interesak direla medio. MMEk ezarritako liberalizazio baldintzen harira nazioarteko enpresen ekintza esparrutik at mugitzen den edozein ekimen ez da lehiakorra. Eredu berria lortuko bada, a) MME elikagaien merkaturatzeari eta ekoizpen esparruei buruzko edozein negoziaketatik kanpo utzi beharko da, b) herrialde bakoitzaren elikadura subiranotasuna errespetatuko duten benetako mekanismo demokratikoak ezarri beharko dira merkatua arautzeko, c) barne kontsumoko %5 onartzeko betebeharra ezabatu beharko da eta d) dumpinga (koste azpiko salneurrian saltzea) gelditu beharko da.
- Elikadura subiranotasuna eta ekoizpen eredu agroekologikoa: indarrean den eredu eskala handiko laborantza bakarrean eta insumo kimikoen erabilpen intentsiboan eta osagai transgenikoen erabilpenean oinarritua dagoen bitartean; elikadura subiranotasunak ezagutza tradizionalaren eta agroekologian oinarrituriko jardueren alde egiten du.
- Elikadura subiranotasuna eta nekazaritza eta abeltzaintza erreforma: elikadura subiranotasunak nekazaritza eta abeltzaintza integralaren erroko eraldaketa eskatzen du, beti ere herrialde edo eskualde bakoitzera egokituak, baserritarren ekoizpen osagaien (bereziki zorua, ura, basoa) eta ekoizpen baliabideen (finantzazioa, ahalmena eta kudeaketa zein bitartekaritza gaitasunen indartzea) eskuragarritasuna

bermatze aldera. Eraldaketa prozesu hauek, nekazal erakundeen kontrolpean, ekoizleen banakako eskubideak eta talde ustiapenen eskubide kolektiboak bermatuko dituzten nekazal eta merkatu politiketan izan behar dute ardatza.

- Elikadura subiranotasuna eta natur baliabideen babesa: elikadura subiranotasunak lurzorua, ura, haziak eta animalia espezien moduko natur baliabideen zaintza eta erabilpen jasangarria aldarrikatzen du. Lurzorua lantzen dutenek natur baliabideen kudeaketa jasangarrian eta aniztasun biologikoaren zaintzan zeresana behar dute izan. Zainketa jasangarriak insumo kimikoak eskatzen du laborantza bakar komertzialak, industria ekoizpen ereduko ustiapen intentsiboak, patentatzeko eskubidea eta baliabide genetikoaren merkaturatzea bazterrera uztea.

### **3.1.7.2. Bigarren ardatza: nekazal eta abeltzain ekonomiak indartzeko estrategiak.**

Aipatu ereduaren defentsak eta Euskal Herrian gauzatzeak politika aktiboen beharra du ereduaren garapena posible izango bada. Hurrengoan Euskal Herrian eredu berria zabaltzeko funtsezkoak diren politikak azaltzen dira laburki:

- *Agroekologiak aurrera egiteko politikak*

Egungo EBren politikak eta Euskal Herriko administrazioek egiten duten aplikazioak eredu agroindustrialaren lehenesten eta babesten du dirulaguntzen bitartez, eta eredu agroekologikoa zigortu. Agroekologiaren aldeko politika berriak dirulaguntzen joera aldatu beharko du eta ekoizpen eredu berria lehenetsi. Hona dirulaguntzetarako irizpide nagusiak beharko luketenak:

- Eredu estentsiboen sustapena, edo intentsifikazioaren aurkako neurri eraginkorrak.
- Sektore arteko dibertsifikazioaren sustapena.
- Beharrizan eta handicap zehaztetara egokituriko diru laguntzak, hala nola, oztopo orografikoak eta beste natur traba batzuk. Zentzu honetan, dirulaguntzek baserritarren eta gizartearen (enplegua sortzea, kalitatezko elikagaiak eta ingurugiroarekiko begirunea) beharrizanen araberakoak behar dute izan, ez ekoizpen mailari begirakoak.
- *Nekazaritza eta abeltzaintza produktuen sustapenerako politikak*
  - Ekoizleei euren produktuen eraldaketa debekatzen dieten neurri filosanitarioak bertan behera uztea bete ezinezkoak badira eta produktuen kalitate eta osasungarritasunean eraginik ez badute.
  - Ekoizpen ereduaren, produkzio kopuruaren eta produktuaren salerosketen modua eta distantziaren araberako osasun maila ezberdinak eman ahal izatea.
  - Izugarritzko inbertsio teknikoek beharra duten osasun araudi baztertzailak albo batera uztea, eraldaketa modu artisauei lekurik ematen ez baitie.
  - Eraldaketarako eskualdeko azpiegiturak sustatzea: nekazal produktuen eraldaketarako azpiegiturak baserritarren merkaturatzeko aukerak handitzen dituzte. Egitura hauek tokian tokiko produktua bertan kontsumi dadin laguntzen dute eta kontsumitzaileen, dendari txikien eta ekoizleen arteko harremanetarako aukera ematen dute.

- *Elikagaien merkaturatzearen babeserako laguntzak*

Nekazal eta abeltzain ustiapenen bideragarritasun urria ulertzeko faktorerik garrantzitsuena produktu hauen salneurri eskasean dago, saltzeko moduarekin lotua dagoena. Egun, sektore honek arazo handia du eraldaketa eta pilaketa nazioarteko talde handien eskuetan pilatu delako, taldeok produktuaren jatorrizko salneurria merkatzen eta kontsumitzaileari prezioa asko igotzen diotelarik sekulako irabaziak lortzen dituzte. Gizarte, ekonomia eta ingurugiro ikuspuntutik eredu honek ezin du iraun.

Aitzitik, saltoki txikia da baserritarrei euren produktuak merkaturatzea bermatzen dien tresna. Larriak dira, baina, horrelako dendeak pairatu behar dituzten oztopoak. EAE merkatal gune handi gehienetarikoa duen tokietakoa da Espainian. Azken honetan batez beste 249 metro karratu dago mila bana biztanleko. EAEn, aldiz, 340. Are gehiago, Jaurkitzak eskuartean du Dekreto zirriborro bat zeinak egun dauden guneen eremua 2,42 bider handitzea baimenduko lukeen. Gune handien hazkunde honek saltoki txikien %33,69 ixtera behartuko lukeela uste da. Egoera hau atzera ekarri beharra dago, bere ordeztu saltoki txikia sustatu, gizarte, ekonomia eta hiriaren biziari etekin gehiago ematen baitizkie, nekazal eta abere ekoizpenei merkaturatzeko bidea irekitzeaz gain.

Udal ugari daude euren arau subsidiarioen eraldaketa prozesuan zerbitzuetarako zona berriak ezartzeko, hauen artean komertzio gune handietarako espazioak. Nahitaezkoa da saltoki txikien, baserritarren, enpleguaren (sortzen dena baina baita galtzen dena ere, lanaren kalitatea,...) eta lurzorua etorkizuna kontuan hartzea.

Hau da, nekazaritza eta abeltzaintza produktuen merkaturatze zuzena laguntzen duten neurriak hartzea:

- *Salerosketa zuzeneko sistemak* sustatzea,, non baserriarraren mozkinak altuagoak diren eta kontsumitzailearentzat kostua baxuagoa den, produktu eta merkatu ezberdinen ikerketek adierazten duten moduan.
  - *Asteroko azokak* berreskuratu. Desagertu diren tokietan berreskuratu eta biziraun dutenetan aurrera bultzatu. Azoka hauek toki egokietan jartzea merezi du eta komeni zaizkien azpiegiturekin hornitzea. Guneotan baserriarren eta gazteen produktuak egongo direla ziurtatu, baserritarra ez den produktuaren birsaleroste ekidinda. Batzuetan bi jarduera hauek (baserritarrak eta birsaltzaileak) bateragarriak izan daitezke baina garrantzitsua da ondo bereziak izatea eta azokaren arduradunek informazio egoki eta zehatzak emateaz gain bertako produktuen kontsumoa sustatzea. Ekoizpen sistema jasagarrienak ere hobetsi behar dira, noski, industrializatuenen aldean.
  - Halako asteroko azoka edo merkaturik ez den tokietan, inguruko baserrien produktuak salerosteko proiektuak sustatzea, azpiegiturak edo beste zerbitzuak eskainiz.
  - Ekoizle eta kontsumitzaileen arteko elkarkidetzak babestea, "Nekazaritza, partekatutako ardura" proposamenaren ekoizpen zein kontsumo oinarriak aintzat hartuta.
  - Erakundeen ekimen eta ekitaldietan tokian tokiko produktuak erabiltzea eta talde jantokietan (eskolak, zahar egoitzak, ospitaleak, osasun zentroak,...) tokian tokiko elikagaia sustatzea.
- *Lehen sektorean enplegua sortzeko politikak*



Ustiategien errentagarritasun eskasak landa munduko langile kopuruan eragina izan du. Belaunaldi erreleburik ez da ia ematen. Ustiapenen errentagarritasun eskasari gehitu egin behar dizkiogu egungo ekoizpen ereduari edo lurzoria lortzeari atxikiriko zailtasunak, lurzoria bera oso urria izateaz gain espekulazio presio handia ari da jasaten. Lehen sektoreko lan postuak sortzeko politikak nekazari gazteak babestu behar ditu eta lan-indarra lehen sektorera gerturarazi.

- *Zerga politika*

Jasotzen den errentaren arabera tributazio baterantz jo behar dugu, sektorearen zehaztapenak kontuan hartuta. Zerga trataera eta euren funtzionamenduak gutxieneko homogenizazioa behar du izan egun tributazio sisteman, dirulaguntzetan, salerosketa zuzenean, agroturismoan,... dauden ezberdintasunak ekiditeko.

- *Landa garapenerako politika*

Egungo nekazaritza eta abeltzaintzarako diru laguntzen zati gehiena beste zerbitzu motak edo arlokoak ez diren azpiegiturak sortzera bideratzen dira, diru laguntzak beste sail batzuetatik jaso beharko lituzketenak. Hala, landa garapenerako funtsek ezin dute balio gune hauetako beste gabeziak estaltzeko diru laguntzen edo udalen betebeharren ordezkotza izan.

Diru laguntzak nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpenaren egoera eta aukerak hobetzeko bideratu behar dira, irisgarritasuna, ura, argindarra, eraldaketa proiektuen babesa, merkaturatzea, gazteak landa lanetara erakartzera eta jarduerak bideragarri izateko behar dituen zerbitzuak bermatzera.

### **3.1.7.3. Hirugarren ardatza: natur baliabideen kontrol soziala**

Azken ardatz honetan natur baliabideak kontrolatzeko neurri eta politikak aipatuko ditugu, beharrezkoak eredu agroekologikoa lortuko bada.

- *Lurraren kudeaketa*

Lurzoruaren eskasiak erabat baldintzatzen du Hego Euskal Herriko nekazal esparrua eta oztopo garrantzitsua da modu jasangarrian garatzeko. Lurzoruaren galera honen arrazoi dira txandakatzerik gabeko ustiategien bazterketa, baso ustiategien hedapena eta, bereziki, hiri-lurzoruaren eta urbanizagarriaren hedatze nabarmena. Urbanizazioari aurre egiteko eta landa eremuari eusteko politikak funtsezkoak dira.

Horretarako, erakunde bat sortu beharko litzateke, erakunde guztiak lotuko dituen erabakiak hartuko dituen, sail ezberdinen artean osaturikoa eta administrazio publikoarekiko autonomia izango dena, zuzendaritza independentearekin eta inplikaturiko administrazio guztien kontrol politikoarekin (udalak, batzar nagusiak, gobernuak eta Ogasun, Ingurugiro eta Nekazaritza ministerioen ordezkariak) eta landa eremuko ordezkariarekin. Erakunde honek honako funtzioak hartuko lituzke bere gain:

- Lurraren ikerketak egitea lurzoruaren sailkatze agroekologikoa zehazteko, ingurugiroaren zaintza eta nekazaritza eta abeltzaintza arloko lan postuak kontuan hartuta.
- Erabilgarri dagoen lurzoru publikoa zehaztea eta Administrazioekin batera lan egitea lurzoru horien ahalik eta gizarte errentagarritasun handiena eskuratzeko.

- Lurzoruak lortzea gero landa salneurrien truke nekazari eta abeltzainen artean banatzeko, ustiategiak zabaltzeko helburuarekin eta gazteak lehenetsita. Neurri hau bereziki aplikatu beharko da rekalifikazio mehatxuan diren Nekazal Lur eta Basoen Lurralde Arloko Planak (PTS Agroforestal, gazteleraz) balio ekologiko handikotzat hartzen dituen lurretan.
- Lurzorua behar duten baserritarrei etenik gabe informazioa eskaintzea, baita sektoretik kanpo egonda ere bertaratu dutenei (ikasleak, langabetuak, ...) ere.
- Estatistika bidezko jarraipena egitea nekazaritza eta abeltzaintza lurrek bere lurralde arloan duten garapenari, ustiapen kopuruari, errentagarritasun mailari eta lan postu sortzeari.
- Nekazaritza eta lurralde politika publikoen aholkularitza.
- Bitartekaritza baserri jarduera epe aurretik etetea.
- Jabetza publikokoak diren lurrak baserri jardueretarako Berreskuratze eta Lagatze Programa jartzea.

Aipatutakoez gain honakoak ere interesgarriak dira:

- Hiri eta industria zabaltzea eten. Etxebizitza berrien eraikuntza, ahal den heinean, erdigunearen berrosatzean eta "urbanismo kirurgia" operazioen (utzitako zonak berreskuratzea, ...) bitartez, hala industria eta hiri guneen hedatzeari galgak jartzeko. Antzera industriguneekin. Askotan udalek langabeziari aurre egiteko ikusten duten aukera bakarra industriguneak kokatzea izaten da – hala inguruko udalerrri eta eskualdeen arteko lehia zentzugabea hasten da ez baitago planifikazio orokorrik- eta ez dute planteatzen baztertutako edo utzitako industrialdeak berreskuratzen saiatzea.

- Bakarturik dauden eraikuntzak egitea oztopatzea eta dentsitate baxuko biziguneen eraiketaren aurka egitea.
- *Uraren kudeaketa*
  - Uraren kudeaketa publikoa
  - Baserri jardueretarako tasa baxua ezartzea
  - Lehorte garaietan, ur gabeziak jotako ustiategien hornikuntza bermatzea
  - Banaketa sare handien sorrera aztertzea, bata etxeko beharrak asetzeko eta bestea baserri jardueretarako. Azken honi tarifa murriztua jar lekiok.
  - Lurraren hedadurara eta animalia kopurura egokitutako uraren erabilpen egokia.

## **3.2. ERAKUNDEAREN EGITURA**

Agiri honetan askotan aipatu dugu zein garrantzitsua den eraikitzen ari garen paradigmak bere barnean izan ditzala kultura politiko berria, ekintzarako modu eta metodologia berriak, eta benetan demokratikoa, irekia, dinamikoa, kooperatiboa eta berdinzalea izango den egituraketa. Halako erakundeak soilik lotu ahalko ditu askapen osoaren inguruko borroka guztiak eta euretan diharduten subjektuak egitarau komun baten inguruan.

Bat egite prozesuaren ondotik, erakunde berriaren osatzean zehaztu diren oinarriak aurkeztuko ditugu atal honetan. Erroko demokrazia mahaiko eztabaida eta gogoeten ondorio da hein handi batean, baina izan du beste ekarpenik ere, batez ere feminismo eta internazionalismo mahaitik.


Proposamen hauek bi zatitan banatu ditugu. Lehenak, erakunde berrirako organigrama proposamena biltzen du, lurraldetasun eta taldekako sortze logiken arabera; bigarrenak, metodologia demokratikoak izenpean, parte hartze kultura aktiboa eta kalitatekoa sustatzeko ezaugarriak aipatuko ditugu: hezkuntza, informazioa,...

### **3.2.1. Organigrama**

Organigrama proposamen hau garatuko bada, honako printzipioak izan behar dira kontuan:

- Erroko demokraziaren alde egiteak eskatu egiten du demokrazia zuzenaren (militanteek erabakiak hartzea), parte hartze demokraziaren (taldekako sortzean oinarrituriko prozesu eta egiturak epe motz, ertain edo luzera) eta ordezkariaren (ordezkariaren ikuspegi ezberdin batekin, eta erabaki eskumenak eta ardurak pila daitezen saihestuta) oreka behar da.
- Zentzu honetan, sortuko diren eztabaida eta erabaki organoek bateratu egin behar dituzte: alde batetik, batzar nagusiaren autoritate nagusia; eta bestetik, lurralde dinamika oreka eta taldekako sortzea. Hala, batzar nagusiak erakundearen estrategia enfokeari buruz eta gai nagusiei buruz hartuko ditu erabakiak; eta zuzendaritzetan eta egitura betearazleetan lurralde ordezkariak eta taldekako sortzerako organoen ordezkariak izango dira.

- Egitura betearazleen ordezkariak euren jatorriko biltzarrek (tokian tokiko taldeek, lurralde historikokoek, edo taldekako sortzeek) aukeratuko dituzte, eta uneoro kargutik kendu ahalko dituzte. Honetaz gain, karguen errotazio sistemak izango dira, baita militantziari zein gizarte mugimenduei edo herritarrei informazioa irisarazteko sistemak ere. Kargu publikoek Euskal Herriko idioma ofizialak ezagutu beharko lituzkete.
- Erakunde osoaren demokrazia emango bada informazio garden eta zehatza jaso beharko dute afiliatuek, eta militantearen parte hartzea sustatuko duen kultura demokratikoa garatu beharko da, militante guztiei formakuntza eta trebakuntza eskainiz.



Hau da proposaturiko organigrama. Tokian tokiko batzarrak, lurralde batzarrak eta taldekako sortze mahaiak oinarri dituen piramide sistema da. Hortik abiatuta lurralde historikoa ordezkatzeko egiturak sortuko dira (beti ere lurralde logika eta taldekako sortze logikak lotuta). Azkenik, egitura hauek ardatz dituztela, nazio mailako ordezkariak sortuko da, aipatu bi logiketarik datozen ordezkariak gain batzar nazionalak aukeratuko ordezkariak osatuko dutena.

Hau litzateke, bada, prozesua urratsez urrats:

- *Nazio Biltzarra* da erakundearen proposamen estrategikoen inguruan erabaki esparru nagusia.
- *Udal batzar* bakoitzak autonomia du bere eskumei dagokionean, erakundeak nazio mailan ezarritako irizpideen baitan. Udal batzarrak bere ordezkariak aukeratuko ditu (hauen funtzionatzea, ardurak eta betebeharrak aldeztatik erabaki ostean); eta lurralde historikoko zuzendaritzarako ere bere ordezkariak aukeratuko ditu, estatuek ezarri moduan.
- *Taldekako sortze zein lurralde historikoko mahai* bakoitzak bere arloan sortze, informatze eta zabaltze lanez gain, lurralde historikorako bere ordezkariak aukeratzeko eskumena ere badu.
- *Lurralde historikoko zuzendaritza*, beraz, udal esparruetako ordezkariak eta lurraldeko taldekako sortze mahaien ordezkariak izango da osatua. Bi logiken arteko kopuru proportzionala ezarriko da, taldekako sortze prozesuak eragina izango duela ziurtatzeko, epe ertain eta luzean ez ezik, egunerokotasunean ere eragina izan dezaten.
- *Nazio zuzendaritza* aipaturiko bi osagaiez osatuko da: taldekako sortze eta lurralde dinamika; batetik, taldekako sortze mahai nazionalek organo honetarako ordezkari batzuk aukeratuko dituzte zuzenean; bestetik, lurralde bakoitzeko zuzendaritzek ere, dagokien indarrean, euren ordezkariak hautatuko dituzte. Aipaturiko ordezkariak gain, nazio biltzarrak ere aukeratuko du ordezkarien kopuru bat. Zuzendaritza ezberdinetan kargu bat baino gehiago izatea ahal den neurrian saihestu egingo da.

- Halaber, *idazkaritza tekniko*a ere (liberaturiko pertsonen multzoa) osatuko da, erakundearen antolatzerako funtsezkoa diren gaiez arduratuko dena: barne komunikazioa eta informazioa, kanpo komunikazioa, erakundearen lehentasun den trebakuntza politikoa, parte hartze tekniken garapena eta agenda eta programak osatzea, internazionalismo, berdintasunaren sustapena,...
- Azkenik, *Emakumeen Gune Autonomoa* osatzea ere proposatu dugu, feminismo mahaiarekin batera (non ildo honen inguruko egitarau sortzeko asmoz gizonezkoak eta emakumezkoak bilduko diren), erakundeko emakumezkoen jabetasuna, formazio eta eztabaidarako egitura moduan funtziona dezan. Bere baliabide propioak izango ditu, eta erakundearen barne logiken barruan sartuko da, berezitasunak berezitasun.

### **3.2.2. Metodologia demokratikoak**

Aipatua geratu da, egitura demokratikoak ez direla nahiko borondate, politika zehatz, parte hartzea eredu eta metodo argi eta garbi gabe. Hori dela eta, egitura hauei zentzu hauetan aurrera egiteko neurriak gehitu behar zaizkie. Hona funtsezko puntu batzuk:

#### **3.2.2.1. Parte hartze kultura: afiliatua eta militantea**

Puntu honetan eztabaida dago, bi kontzeptu hauen arteko bereizketa mantendu nahi ez dutenen eta karguetara iristeko orduan beharrezko ikusten dutenen artean.

Halere, zaila da bi kontzeptuak garbiki bereiziki dituzten irizpideak finkatzea. Berariaz bileretara inoiz etortzen ez den horrek erabaki eta bozketetan parte hartzea saihestu nahi da, baina era berean interesa eduki bai,



baina arrazoi ugari direla eta, aktiboki parte hartu ezin duten eskubideak ez dira urratu behar eta malgua izan behar da eurekin.

Ondorioz, aurretik hitz egindako *erakunde barruko kultura demokratikoa* hartu da aintzat: pertsona guztiek behar dute izan *informazioa eskura*, erabakiak dagokien tokian hartu behar dira, bileren informazioa jasotzeko sistema egokiak eduki behar dira, eta bilera horiek ondo prestatu alde aurretik, *barne komunikaziorako kanal egokiak* behar dira, *funtzionatze protokolo berdinzaleak*,...

Eztabaida erabat itxi gabe, *arretaz* jokatu beharko dugula zehaztu da, bi printzipio buruan: *kuota ordaintzea eta parte hartzea* dira gutxienekoak. Hala, *erabaki esparru bakoitzak (udalekoa, mahaia,...)* oniritzitako *zuhurtziak hartu ahalko ditu* printzipio hauen baitan.

Azkenik, noizean behin eta kontsulta asmoz, *Alternatibazaleen Biltzarrak* egitea proposatu da, proiektuko militante izan ez baina ingurukoa den jendearen iritzia entzuteko.

#### **3.2.2.2. Emakumezko eta gizonezkoen arteko parekotasuna**

Zuzendaritza eta organo betearazleetan parekotasun osoa egotearen alde egin dugu (irizpide hau betetzea ezinezkoa izanez gero, kasu zehatzetarako klausulak jarri ahalko dira). Parekotasun bera eskatuko da idazkaritza teknikoko kideei dagokionean.

#### **3.2.2.3. Ordezkarien kargu errotatzea**

Dagoeneko onartua den printzipioa izanik, *karguen errotatze protokolo zehatza* egin beharko da, eta estatutuetan sartu. Horrela, denbora luzez karguari eutsiko dioten burokrazia egiturak sortu ez daitezten.

Bestetik, kargu publiko eta pertsona liberatuentzako *soldata bakarraren* alde egin da.

Azkenik, *kontu emate sistema* ezarri beharko da gure ordezkariarentzat.

#### **3.2.2.4. Gutxiengoaren eskubideak**

Aipaturiko egitura demokratikoak sortuz gero, gutxiengoek euren kezkak eta aldarrikapenak adierazteko bidea izango dute dagokien tokietan.

Erakunde bat demokratikoa izango bada, aniztasunaren onarpenean batasuna mantendu beharko du, proiektuan parte hartzen duten pertsona guztien eskubide eta betebeharrak onartuta. Oinarrizko printzipiotzat hartzen da, beraz, *edonork bere iritzia adierazteko eskubidea, gehiengoarekin bat egin ala ez.*

Bestetik, ***ez zaio onuragarria iritzi***, egungo bat egite unean batez ere, esparru guztietan ordezkariak izango luketen *antolatutako joera edo ildoak* egoteari. Hala eta guztiz ere, ***iritzi ildoak sortu ahalko dira***, egituretan eragina izango ez dutenak, ordea.

Epe ertain edo luzean ildo horiek sortzeko beharra ikusiko balitz, bistan da estatutuak aldatuko liratekeela neurri hori hartu ahal izateko.

#### **3.2.2.5. Hauteskunde eta erakunde jarduna**

Oinarri Agirian argi geratu zen, *hauteskundeak tresna direla, ez helburu*. Zentzu honetan, bozka kopurua baino, militanteak egitarau komun baten inguruan biltzeko gaitasuna, proposamen alternatiboak garatzea eta erakundearen gizarte inplikazio maila izango dira arrakastaren adierazle. Hauteskundeek helburu horietarako laguntzen dutela ikusten den heinean, eurretan parte hartuko da. Erabakia dagokion organoak hartuko du.

Gobernuetan parte hartzearen erabakia, erakundearen izaerari jarraiki, erroko egitarau alternatiboa garatu ahalko denetan soilik hartuko da; ez erreformista denean baizik eta sistema gainditzeko helburua duenean.

Hori dela eta, gehiengo duen gobernu antisistema egonik, bertan sartuko gara erroko programa aintzat hartuta. *Gutxiengoan, beste gobernu batean eragiteko* aukerari dagokionez, Europan, Espainian eta Euskal Herrian ezker ez-sozialdemokratak burutu dituen esperientziak kontuan hartuta, *ez parte hartzea aldarrikatzen dugu*, are gutxiago Jaurlaritzan, Foru Aldundietan edo hiriburuetan, non eskumen ugari eta anitzak egonda kontraesanak pilatu egiten diren.

Hauek dira, beraz, bat egiteko erakunde berriaren oinarriak finkatuko dituzten printzipio, neurri eta proposamenak. Arestian aipatu moduan, bat egite prozesu hau ez da soilik abenduaren 13tik adierazi genuena –hiltzeko jaio, baina gure aztarna garrantzitsua utzita: politika egiteko modu berriak, bai edukietan bai taldekako sortze tresnan-; hazteko, jende gehiago biltzeko ere nahitaezko prozesua da.

Argi dago gure herrian ezkerak jasaten duen atomizazioak sistemaren alde dauden indarrei mesede egiten diela. Bada garaia aurrerapauso historikoa emateko eta sare sozialak, politikoak eta programatikoak iruteari ekiteko; eta kualitatiboki zein, bereziki, kuantitatiboki sinesgarria izango den alternatiba osatzeko.

Apaltasunez, baina irmoki eta eskarmentuz, sektore politiko eta sozial handiagoekin bat egiteko beharra planteatzen dugu; uneoro bukatzeke egongo den erakundea sortzeko beharra; politika egin eta ulertzeko bide berrien harira egiteko beharra; alderdia baino gizartea eraikitzeko erronkaren beharra; baloreen esparruko borroka duen garrantzia aldarrikatzeko beharra,... Jakitun gara zein zail den bide honetan aurrera egitea, jakitun kontraesanak sortuko direla eta oztopo ugari gainditu beharko direla, baina gogoz gaude konpromiso horri ekiteko.

Helburua garbia da: epe ertainean ezker alternatibo eta subiranista bloke handia osatzeko baldintza objektiboak sortzen eta indartzen laguntzea (ahal dugun neurrian), sistemaren aldeko indarren egungo nagusitasuna kolokan jarriko duena. Zentzu honetan, bat egiteak gizarteko esparru guztietan – baita erakunde eta instituzioetan ere- alternatiba osatzeko indarrak batzea da, sistemari demokratikoki aurre egingo diona, behe-behetik eta ezkerretik.